

JEAN BARBIER PIARRES I

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

Piarres I, Jean Barbier (Ramon Sanchezen edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1992

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

PIARRES I

Aintzin-solas

Eskuarazko liburu bat gehiago.

Pfu... eginen dute zenbeitek, soin gainak higituz, halako aire minthu batekin.

Zerentzat? Nork irakurtuko du?

Zerentzat?

Eta, ez duzue, dohakabeak, ikusten Eskual-Herria egunetik egunera ttipitzen hari zaukula?

Ez duzue ikusten, gu, Eskualdunen izaite berezia, bertze gizakietatik oraidino gora berexu gaituen izaitea, izatu diren jende eta gauzen hobi zabalean etzateko heinean dela?

Eskualdunagoak, gure gizontasunak, orai arte nunbeit han iraun badu, bazterretako erauntsi eta zalaparta guzien gatik, dohain berezi batzueri esker iraun duela? Eta dohain hoik: fede, ohidura, josteta, etxe, oihan eta lur guziak oro ahulduz erhaustuz, ezeztatuz dohazila?

Ongarristatuak, arthatuak ez diren pentze alhorretan, udaberriari buruz satorrak nausi.

Lurpez, nehor ohartu gabe, bere lan galgarria baderama satorrak; eta gero, noizpeit, etxeko jauna ohartzen denean etsaiaren jauregieri, harriturik, errabian dago. Berantegi.

Zonbat etxe, zonbat jauregi, itsas bazterrean, zonbat oihan, mendi mazeletan, nolako eremuak, Lapurdin bereziki, arrotzen eskuko direnak, arrotzen meneko!

Nun gorde dire ontasun eta etxe horien jabe sortu zirenak, ihesi norat joan dire?

Ai! arrotzen diru madarikatu horrek ezbalu etxerik eta lurrik baizik erosten!

Gogoak eta bihotzak ere beretzen baititu, zorigaitzez, ebasten dauzkigula!

Ongi ethorri! beraz, Piarres liburu berriari.

Lehenagoko eskualdun zaharretarik dugu Piarres gaztea. Kontrabandan hari da, pilota partida batek ez du izitzen; igandetan meza bezperak entzunik eta bi mus ustelen artetik, badaki, eskualdun kantu pollitenaren itzulikatzen. Oihanaldekoa da Piarres. Erroak hazkar ditu Oihanaldeak, aitaxotik semeatxira, guziek, behar orduz eta behar den bezala, ematen baitakite Jainkoari berea, auzoari laguntza eta lurrari lana.

Baina arrotzak ez ditezila Oihanaldetik hurbil, lur mikorik erostekotan!

Ai! Oihanaldearen idurikoak ukan baginitu eskualdun etxeko jaunak orai arte!

Berant bada berant, egungo egunean oraino, Senperen bezala, Itsasun, Donibanen, Milafrangan eta, arranoek begi pean dauzkuten bertze zenbeit herritan, Oihanalde hainitz baginu!

Liburu ederra, liburu ona, liburu beharra: Piarres.

Bainan nork irakurtuko du?

Nork irakurtuko duen? Eskualdun gazte guziek... Eskual-Herriaren eritasuna ezagutzen duten... ezagutua behar luketen sendaginek eskura baliezeete.

Sendaginetan lehen, herrietako apezak. Nahi duenak nahi duena erran dezala.

Daukat hemen, Eskual-Herrian, Erlijionea eta Eskuara, gure ohidura zaharrak eta

sinhestea elqarri josiak dabiltzala, eta hain aspaldian nun, ahulduz eskuara, galduz ohidurak, nahi-t-ez ttipituko baituzue fedea eta kasik hilen azkenean.

Egiaz diozu, Barbier, «Elizetan hegaldaka dabilan arima gabe, arima gabeko gorphutz bat baizik ez dela Eskual-Herria».

Senpereko eliza gerizatzen duten arimek Senpereko lurrean dituzte gorphutzak. Hezur ala hauts, berriz piztuko dire. Senpereko etxe batean sortu ziren, etxe bereko lurrarekin lanean higitu, etxe berean hil.

OXOBI

I

Ama semeak

Ilhun-nabarrean, keetara joanik, zeruari, hedoiari beha eta beha eman zen Piarres. Mendealetik heldu, zirurikan iragaiten zitzaizkon lanho ilhunak, etxe-kaskoa herrestaka hunkitzen zutela. Kurlinka erlastu batzu inguruka sumatzen zituen, han, Olhasoko sorhoetan, dena marraka eta intzire. Eta hirri bat ethorri zitzaion Piarresi ezpainetarat, begiak argi argia egiten zitzaizkola. «Guarda gutti ikusiren diagu gaur, erreka horietan!...».

Etxerat buruz itzuli zenean, ama, hain maite zuen bere ama, hanxet zuen, athearen ondoan, harj begira hura ere:

—Zer bada, Piarres, hor gaindi behar othe zaitugu gau huntan oraino? Grinaz hilarazi nahi nauzu beraz, haurra?

—Hilarazi? Grinaz? Ez balin ba!... Zertaz behar zira grinatu, ama? Behin orano ez naukate Senpereko guardaño horiek beren aztaparretara bildurik?

—Ez bildurik? Hurren bildurik ez othe zaituzte izan, iragan egun batez?

—Bai, hala da, ama, bainan ene gerriko higatuxe bat utzi diotet eskuetan, eta deus ez bertzerik. Aingira harrien artetik bezala, iragan nitzaiole bi othe mustuken artetik. Eta uste dut, gibelarakoan, othe adar horietatik batek zaflako eta sistako ona eman diozkan garaztar guardari.

—Bethi bardin izanen zaizkit beraz, Piarres? Bethi bardin axola gabea? Bainan, kontu emazu zure gerrikoa azkarragoa ez dadien gertha bertze aldi batez, eta orduan, ahalkea ditekete guretzat.

—Ahalkea? Eta zertako, ama? Baditekete kontrabandan ari diren guziak ez diren aberasten. Bainan bat ez dakit kontrabanda hortan ohorea galdurik. Egia edo gezurra, aditua ere dut, Eskual-herriko auzapez edo herriko gizon bat baino gehiago hautatu dela, kontrabandan ari zirela orok jakina gatik. Ez, ez ama, kontrabandixta ez da ohoin bat, hurbilik ere. Zaude deskantsu. Beren puskak edo kabalak ongi pagaturik, nehoi makurrik ekarri gabe, beren irabazia ongi beretzen dute egundainoko kontrabandixtek.

—Zoazi eta errozute hori guarden aitzindariari...

—Guarden aitzindariari? Guk hazten ditugu eta guardak eta heien aitzindariak! Zer egin lirote gu gabe? Bertze lan bati lotzea lukete, eta, segur, ama, lan hori ez lezaketela laborariena har edo kontrabandixtena! Deskantsu begozi bertze guardatto horiek. Gure beharra badute horiek, guk horiena baino gehiago, eta gobernio guziak horien beharretan izaiten ohi dire bethi, bozkatzeak heldu diren guzian. Muthil hoberik ez dute gobernio gizonen...

Horra zertako, ama, gobernioak ez daukun baitezpada kontrabanda debekatzen, bainan bai, aintzinetik erraiten ere daukun bezala, eskuetarik hartzen, ahal duen aldi oroz, ongi gaziturik uzten gaituela, guardek haren aztaparretarat bildu gaituztelarik. Horrela, gobernio, guarda eta kontrabandixtak, oro bizi ditezke, zoin bertzea baino hobeki,... kontrabandixtak gaizkienik.

—Ori, haurra, ez dakit bada nik, horrenbertze ez dautazu erran egundaino. Bainan, nahi zinduzket bertzelakaturik. Ah! —hain adixkide duzularik— jaun errektorak nola ez zaitu bada kontrabanda madarikatu hortarik oraino gibelatua? Etxeko oilasko parerik ederrena eremanen bainioke, mirakuilu hori egin baleza sekulan!

—Oilaskoak begozi oilategian, ama, edo erremotzu erretrari, kontrabandari aipatu gabe, heldu diren Phesta-Berrietan jan ditzagun harekin, Jainkoaren loriantan. Jaun erretrari barkatzen dauku kontrabandant ibili garenean, bainan ez dauku erranen, ez dezaguke erran kontrabandant ibil gaitzen. Hori sobrakina galda ginioke. Bertzalde, gure etxe-lanetan nahiago gintuzke harek ere, zuk bezala, ama, zeren, askotan etxeko segida galtzen duen kontrabandixt batek baino gehiagok. Aithor dut hori, ama, eta ahalketzen ere naizela nere lagun zontabitez...

Bainan, noiz holakorik ikusi diozu zure Piarresi? Othaskaz othaska ibili ondolan, noiz egundaino aztaparretarik, adaretari biharamunean berriz lotzeko?...

Hori hola da engoitik, ama gaixoa. Zuhaurrek eta zure aita zaharrak odolean emanaz errenkuratzen zaizkit gaur! Eta gero, Eskual-Herrian ez zen lehenago kontrabandari, zeren ez zen muga-haririk. Zertako eman dituzte muga horiek Dantxariako edo Irungo zubieri hurbil? Eskualduna ez othe da berez bere ibili behar Eskual-Herri guziko mendietan? Gure lehenagoko zuzenetarik, hori bederen ez othe ginuen begiratu behar, hori bederen ez othe zukuten utzi behar hego-aldeetik edo iphar-aldeetik guri nausitu erresumek?

Ez naiz batere Frantses-Herriatik zeiaritu beharrez ari, ama, zeren maitexko dutan Frantses-Herri handia. Bainan, behin ere ez baitiot aipatu, ongi jakin nahia nindake, jaun erretrari zer othe dion hortaz? Kastillara batre gabe, eskualdun mendi guzietako zuzenen jabe eskualduna! Hoi hoi loria, ama!

—Zure loria eta moria guziaz hirri egin lezake, ori, gure jaun erretrari. Ametsak ez du egundaino hazi gizonik, Piarres...

—Hala hala da eta, ama. Ametsetak lukainkez bertzerik behar dut gaur, eta, othoi, xingar zafla bat ona erreko dautazu, xahakoa nik bethetzeko artean. Ira-lekutik aita ethorri ere gabe, han harat urrun joana niteke, nere lagunengana.

—Bai, eta, zure amak, erran dituenak oro debaldetan erranik, lorik gabe, dena grinetan, othoitzean artzea duke gau luze itsusian!

II

Ortzango errekan

Uria jauts-ahala ari zuen orai. Haizeak, bira-bina lurrean hildurik azken ostoak, furfurian zeramazkan alde orotarar. Ametz ihartuek, norbeit edo zerbeit harrapatu nahi izan balute bezala, beren adar luzeak luzatzen zituzten ilhunpean...

Bainan, uriari, haizeari, hosto eta adarrerri konturik egin gabe, bristi brasta bazoan Piarres, han, mugatik hurbil atxeman behar zituen laguneri buruz.

Arbola zilo batetarik, huntz handi bat airatzen zaio, xixtuz, eta berehala, burla batean, urrundik kantuz hasten: «Huu, huu!».

—Zer duk, huntza, huu eta huu? Ez nauk bada izitzeko errexa! Ala, iragan gauean bezala, guardak salatzen othe dazkidatak?....

Eta hor, hirri batean, orhoitzen da Piarres, amak ostixoan erran bezala, aintzineko gau ilhun batez, Uroneko gain hetan, Azkaingo muga, guarden eskuetan gelditzen dela. Jan-Batit beren aintzindariaren erraneri behatu gabe, bazoazin sei lagun, biranazka, hogoita hamabortz pintako untzia bizkarrean. Errekaz erreka, zokoz zoko, Jan-Batit axeri zaharrak galdatzen zioten bezala joaiteko orde, gainez gain bazoazin, Miarrizko itsasargiak bidatzen zitula.

Bet betan, Serresko Jauregiari hurbil, seiatarik azken biak ondolik zituztelarik pentoka gainerat igaitekoak oraino, bi guarda xutitzen zaizkote aintzinean, bertze bi, aldiz, gibeletik jalitzen: «Haltelà!». Piarresen lagunarekin jada borrokan ari da guardetarik bat, eta bertzea gerruntzetik lotzera doa Piarresi berari, ahapetik, erdi trufan eta hatsa joanik, erraiten diola: «Ago, to, ago, ez deus bat, izpirituaren garreiuan lagunduko haut berehala!».

Oldar batean, jauzi bat izigarria egin zuen orduan Piarresek, eta gerrikoa guardaren aztaparretan utzirik, bere untzia bethi bizkarrean, bazoan orai demuntreak hausteko, aldapari behera. Guarda haren ondolik, kasik hura bezen laster. Olhagaraiko landan huna orai non diren, Piarres bethi aintzinean, bethi eta aintzinago. Guarda sumatzen du hatsantua, ethendua, bainan bethiz han, zonbeit urhatsetan. Behin ere arthiki ez duen untzia behar othe du berhorat arthiki gaur lehen aldikotz? Ez oraino segurik! Eta sukar bat belhaunetan, badoa, badoa, ilhunbean, bethi eta zaluago. Guarda ez du gehiago gainean... Bainan, oi, Piarresen zoria! Han, landaren buru buruan den keeta nola idek nola handik iragan, guarda gaineratu gabe?...

Hainbertzenarekin, tiro bat iditzen du han, urrun, Serresko kaskoan. Guarda gelditu da. Etsitua bide duke, eta bertzalde, tiroz haren galdea dukete lagunak. Piarres salbu da oraikotik, gerriko txar bat, hartako eremana zuen gerriko txar bat, garaztar guardari utzirik doi doia.

* * *

Eta Piarres, orhoitzahen horrek arindurik, tanpa tanpa badoa bethi, Beholan harat, Kamieten-bordan harat, Atsulaiko azpitik, Urdazurirat buruz.

Bet-betan, azienda zerbeit, ezpainak luzatuz, norbeitek akulatu nahi balu bezala, han, alde aldean, haitz ondo baten parretik heldu, aditzen du halako xixtuñasta bat: «Bvuu! Bvuu!»... Begi onak zituen Piarresek, bederen ostixoko huntzaren begiak bezen onak.

Gehiagokorik gabe, Franxixko, beren espiuna laster ezagutzen du beraz, han, arbola-ondoarekin bat egiten duen mamu hartan.

—Hi haiza, hor, Franxixko? Zer berri da?

—Lagunak bilduxeak direla dakikan bordaldean, bilduak ere gaur iraganarazi behar ditugun hogoita bi pottokak.

—Eta guardak?

—Oh! guardak! Beren ohe-kamantzetan hobeki dituzkek, holako gauarekin!...

—Hoa hi, to, sekulan! Herbia lo ez othe zia gok...

—Ba, errana den bezala, herbia lo zia gok uste ez den tokian, eta guardak... beren kamantzetan... Senpereko guarda horietarik ez duk bethi, gaur oraino, bihirik agertu hemen gairi, eta Dantxariakoak ongixko diaudek, hantxet, beren atherbean kukuturik. Hemen ikusten hautanaz geroz, ni heienganat joan ere gabe, errotek beraz laguneri, aipatu tenorean mugi ditezen, eta zalhu zalhua gero! Xipatua nauk zangoetarik kaskoraino, eta hormatua zinez eta egiazki. Erna zaizte beraz, eta zuek, hor, nere giblean sumatu bezen laster, han harat aintzina joanen nauk, Ganix bertze espiuna kausitu arte. Deskantsu ethor zaitezke; badiat beldurra, oraikotik, nehork ez duen jakin gaurko gure balentria.

—Erran bezala beraz, Frantxixko, eta Jainkoak digula gau on!».

* * *

Hogoita bi gizon bilduak dire orai, mugaz haindiko borda zaharrean. Bostpasei gizon adinetako, gaineratekoak oro gazteak edo sasoin ederrekoak, begiak argi, oinak zalhu, guziak gizon deliberatuak.

Eta Jan-Batit, orok nausi-burutzat aspaldi onhartua dutena, huna mintzo non den, bere azken manuak erraiten diozkatela.

«Alo, hots, muthikoak, ernatu behar diagu. Ez duk errana uri hau laster athertuko edo bederen eztituko ez dela. Lehen pottoka bigarrenari buztanetik estekaturik, bi pottokentzat bi gizon, batto aintzinean, bertzea giblean. Senpereko mugartino saratarrak eta ainhoarrak aintzinean; Senpereko mugatik eta harat, saratarrak giblean, kabalen akulatzaile.

»Ez neri egin iragan gau horietarik batez bezala. Elgarretarik ehun hurratsetan, goazen erreka erreka, eta nahiz ilhargirik ez den, itzalez itzal bethi. Mendibizkarrak begozi kasko arinentzat. Beholako gain hetarat ethorriko zia gok Ganix, eta anhartean, Franxixko hor diaguk, begiak ernerik. Goazen beraz beldurrik gabe, baina beharriak xut, Ortzango errekan barna, Motxokobordari buruz, larrez larre bethi; eta gero, Bokaleko su handien parretik eskuin, bethiko gure bidetik. Bihar goizeko bortz orenak gabe behar gaituk Baionan, dakizuen ostatuko abere-barnean.

»Guardarik suertez ager baladi, ez izi. Heien tiroek ezditek minik egin sekulan, gizon beldurtiari baizik.

»Gainerat jin bazaizkitzue, kolpe tzarrik ez eman, baina bai borroka eta inharros-aldi bat ona. Lehenbiziko makilakaska emaitetia diat gaurko egunean oraino, eta zuek ere naski hala hala. Ez gaituk gaur hasi behar. Ezinbertzean ohilduko zaizte beraz, eta ihesari emanen, Otsansbehereko Madalenarat gero atheratzeko.

»Bat edo bertze harrapatua balitz halere, eta ezin atheratu balin badugu guarden eskuetarik, bere onetan bazakikek harek ixilik egoiten, nehor gutarik salatu gabe sekulan.

Eta ondoko egunetan badirek behar den laguntza guzia. Kolpe tzar bat harturik ospitalerat eremana balitz ere, hura sendatuxe orduko, otomobil bat baino gehiago izanen duk, haren toki segurerat eremaiteko; han hobe baituke lehenbiziko amiztiak arte, ezen ez eta Baionako presondegi ilhunean... Bazaiztea?».

—Bagaituk.

* * *

Eta, Ierro Ierro, ixil ixila heldu ziren orai hogoita bi gizon eta hogoita bi pottoka, biranazka, elgarretarik ehun bat urhatsetan, saratarrek kaprestutik zaukatela aintzineko behorra, senpertarrek gibeletik makilarekin akulatzen zutelarik bigarrena.

Batixta zaharra bigarren zaldietatik baten gainerat hupatua zen, ixil ixila. Zahartua pitta bat zen, eta gero, Jan-Batit han zen, aintzin aintzinean, holako maleziarik ezpaitzezaken ikus gau ilhunean.

Gau ilhuna? O bai ilhuna zela, eta egiazki ilhuna! Noizetik noizera, larre-bidea huts-eginik, galtzen ziren bat edo bertze; eta, nahita ez, orduan, ondotik jin beharrak aintzintzen zitzaizkoten.

Ainhoako par hetan, gibealeko pottoka zonbeit irrintzireka hasi ziren, beren lagunak aintzinean sumatzearekin. Beharrik, laster ixildu baitziren, eta beharrik oraino, guardarik ez baitzen han gaindi!...

Kamieten-bordarat gabe, senpertarrak, xokoen berri hobeki bazakitelakotz, aintzinean eman ziren, gibelean aldiz saratarrak, Jan-Batitekin hala hitzartu bezala. Handik oren-laurden bat gabe gero, oro bildurik zauden Beholako gainean, Frantxixkoren beha. Gehienak izerdituak ziren, bainan altzeirua bezen hazkar bethi. Ahamen bat ithoka jan zuteneko, xahakoak eskuratu orduko, han zuten Frantxixko: «Beholako guardak Xilarreneko hegazpean emanak ziren, eta Ganixek, Handia eta itsasuarra, karrikako bi guardak segitu zituen Motxoko alderaino, eta gehiago ez ikusi; atherbe zerbeitetan etzanak, hori gauza jakina».

—Hots! Goazen beriz aintzina. Piarres, hemengo xori xaharra baihaut hi, lehen lehen eman hadi; gibelean emanen nauk nihaur, Xilarreneko ihizi horiek trukes-joko zerbeit egin ere balezate. Hi, Frantxixko, hoa berriz Ganixen bidera, eta begiak eta beharriak erne egon hor!.

Eta, Jan-Batitek erran bezala eman ziren oro berehala. Eta, bazoazin, larrez larre, errekarri gora, hitz erdi bat elgarri erran gabe gehiago. Hogoia eta bi gizonak, hogoia eta bi pottokak han ziren orai, oro errekan sartuak.

Bet-betan, hatsantuak, elgarrenganik hogoia urhatsetan, laster eta laster heldu, atheratzen zaizkote Frantxixko eta Ganix, espion agitzaileak:

—Guardak! Hortxet heldu, Motxoko aldetik hunat makurturik....

Eta hanbertzenarekin, oihu bat aintzinetik: «Haltelà!" Eta gero tiro bat... Handia eta itsasuarra, hor aintzinenan!... Bertze oihu bat, bertze tiro bat gibel hartan... Xilarreneko guardak, heldu hek ere, malezian ordu arte beren buruak baztertuturik...

—Debruen bisaia! Salatuak gaituk. Berma hor, muthikoak, eta nik erranak oro egin!.

Piarresen Handia hor du, hamar urhatsetan, bere zango alimaleekin heldu, jauzika; itsasuarra gibelaxagotik, lasterka hura ere. Piarresen, egundaino ordu arte, ez du pottokarik utzi guardetan atrebituenari... Berehala, ahapetik, ithoka, erraiten dio bere

lagunari:

—Bahaiza, to? Zafra zak hire hoi, eta jo biek eskuin, bethi eskuin.

Eta Handia, bere beso kankailekin, gizon edo potoka, zerbeiten hartzera doalarik, jauzi batean eskapatzen zaizko pottoka eta gizonak, irrintzireka pottokak, erhotuak gizonak. Oren laurden oso bat, othaskaz othaska, pentokaz pentoka, fur furian eta trumilka badoazi hiru gizonak. Doi doiak egiten du saratarrari lotzen ez baitzaio guarda thematsua. Bainan ez. Aski goizik bazterrerat salto egiten du kontrabandixtak; eta orai, guarda bethi ondotik, ximixta bezala badoa Piarres, bere bi pottoka erhotuek airean deramatela, haur bat eraman lezaketen bezala. Umatua da, leher egina. Buruhas, galtzak pusketan, badoa bethi, ithotzera doana arbola adarrari bezala, aztaparka lothua kaprestuari...

Handia bethi ondotik othe du? Huna jada, Mendiburuko borda... Bihurgune batean, eta batere gelditu gabe, behatzen du gibelerat... Ilhunbeak baizik ez ditu ikusten. Herrestan eremaiten dute zaldiek ehun bat urhats oraino; bainan gero, leher eta zapart eginak hek ere, eta Piarresen gibel-karga hazkarkiago eginik, zankez gelditzen dire, ikare-daldaretan. Eskuaz eztiki balakatzen ditu orduan Piarresen, eta gero, beharria lurrari, luze luzea emaiten da, larre-sorhoaren gainean, gizon-urhatsik deus sumatuko othe duen?... Ez! Handiak noizpeit etsitu bide du, han, behere hartan... Jarririk, orduan, bultatto bat deskantsatzen da gizon gazte zainharta. Hatsaren hatsez, bulharrak goiti eta beheiti ari zaizko, zapart egin nahi baliote bezala.

—Ah! nere xahakoa! Ah! gure ama onak eman xingar zafla!. —Bainan, xingar eta xahako, oro han erainak ditu, doi doia, Ortzango errekan!...

* * *

Handik oren bat gabe, Otsansko kaperarat, erdi herrestan, erdi mainguka, terren ten ten, bat bertzearen ondotik heldu, ikus zitezken hogoita bi gizon, eta hogoi pottoka.

Jan-Batit harat hunat bazabilan, begi zorrotz batean; eta, leher eginak, bertze guziak, hari begira, erdi etzanak zauden, kapera zaharreko paretaren inguruan. Bere ulitxekin uzteko hobia zen Jan-Batit kapitaina...

Eliza zaharraren zola zolan, zabal zabala ikusten den harrilauzaren gainean eman zen orduan Jan-Batit, eta bere laguneri erran zioten:

—Oro hor gaituk naski orai? Hogoita bi gizon, hogoi pottoka aldiz hogoi eta bietatik. Makurrago oraino athera gintezkean. Nork salatu gaituzken? Hobe dik harek hori guk ez jakinik. Bainan Jainkoak bazakik, eta aski duk. Piarresen eta Frantxunek pokado bat emanen diaukutek, hor, Otsansbeherean, xutik; eta gero, hemen gehiago mutzitu gabe, eta guardak berriz hunarat gabe, bideari lothuren gaituk, eta, argia gabe, Baionara helduko.

Eta, erran bezala, biharamun goizean, argi-hasteko, gehiagoko makurrik gahe, oro helduak ziren Baionarat...

III

Piarresen igandea,
biharamunean

Piarres, arrats hartan berean, Donianen gaindi itzuli zen etxera. Haren lagunak, zoin bere alde, joanak ziren hek ere, bertze balentria bat arte zuhurki ohilduak.

Urhe pullitak sakelan zeramazkan, gorri gorria, krin krin ontsa egin nahiak oro. Bainan, ez; mokanes gorrian tinko korropilaturik, ixil eta prestu heldu ziren Piarresekin, eta Piarres bere buruarekin gogoetetan ari zen. Aldapan hunat, Mingotenean hunat iragaitearekin. Zer boliada bezperakoa, han, Ortzango errekan! Ez zen haratik ez hunatik, Handiaren eskuetan doi doiak egin zuen ez baitzen aldi huntan gelditu! Guarda zaintsua hora, bat izaitekotz! Eta gizon ona, prestua, zuzena, deusik haren kontra athera ez ziteken gizona, bere eginbidea baizik ez zakiena sekulan!...

—Zer ahamenean ahal dagon guretzat, den tenorean!... Mirakuiluz bezala begiratuak ez othe ditiagu gure hogoi pottokak? Bai, Jan-Batitek barda erran bezala, gaizkiago athera gaituk eta atherako ere oraino, hogoita bost aldiz... Bainan, goazin jakituz jakituz; egunean egunekoa, Piarres! Gure Aitan ere hola duk errana, eta ez haiz Jainkoa baino zuhurrago behar. Bego beraz. Handia bere aho-kiretsarekin. Bere eginbidea egin dezala bethi, orai arte bezala, eta gurea, gure biharko egitekoa, bego hura gure gain...

Gau beltza arras gabe, ilhun-zeinuetako, etxean zen gure Piarres, Olhaso kasko kaskoan, izar-arte ederrean izar bat iduri, urrundik ikus ziteken etxe xurian.

Piarres urrunduz geroz handik mogitu ez balitz bezala, ama han zen orai ere, hegazpean xut xuta, beltz beltza athearen ondoan... Bainan, bere hura entzun orduko, eta bere harek ikus beldurrez ahalketua bezala, brixtakoa sartu zen sukaldean, eta kanit handi bat eskuan, begiak dir dir loriarekin, eman zen xingar azpiari zafla gorri eder bat khendu beharrez.

Zonbat nahi zalu eta ixil itzalia izanagatik, ez zuen amak bere semerik enganatu, eta, hirri maite bat ezpain-xokhoetan, sartu zen beraz Piarres:

—Jainkoak dauzula gau on, ama!... Arrosario hoik higatuxeak ahal ditutzu gaur gehiago, bardako othoitz luzeak eginik. Bainan hala hala, uste dut baliatu ere zaizkitan aldi huntan. Zer nahi den, huna ni etxean, berriz ere...

Eta, begiak goseturik ezarriko zituen usain goxo batekin xingar azpia erretzen ari zen artean, hitz laburrez eta parabolarik gabe, erran ziozkan amari bezpertko berririk larrienak. I;z oro, bainan bai, ama soberi grinarazi gabe erran zitezkenak; gainetakoak, gero noizpeit kondatuko zituen beharbada... bere haurreri, neguko arrats zonbeitez, bainan ez bethi gaur bere amari.

Aita eta bertze haurrideak ez ziren oinon etxerat itzuliak, Piarres, bere otruntza eginik, xutitu zenean, zerbeit lani lothu beharrez hura ere. Bainan, amak, ezti ezti, erran zion, oherat zohakela arrats hartakoarengatik, eta lanari gero begitarte hobea eginen ziola, ondoko egunetan.

Eta oren laurden bat gabe, othoitz on eta labor bat eginik zurrungan gozoki, bi gau hetako loen hartzen ari zen Piarres.

* * *

Bihartmunean, —igandea— iguzkia gora zen jada, Piarres atzarri zenean.

Beherean, Marie, arreba zaharrena, sukaldeko lanetan ari zen, haurride gazteenak meza nausirat gero berekin eramaiteko. Aita-amak, goiz mezan ixil ixila izanik, sorhoaren buruan agertzera zoazin. Ahalkea... Piarresek zuen orai, igandetako bere atorra xuria emanik, arrebari agur bat erranik, keeta ondoan aita-amak kurutzatu zituenean. Ildako hirri bat —gure eskualdun halako hirri hura— ezpainetan, baztertu zitzaizkon biak, eta, aitak, bere pipa erhien artean harturik, burla maite batean erran zion:

—Zaude zu, Piarres! Gure zurrungak ere ez zaitu naski atzarrarazi eta ez bide nauzu, egun, behien uztartzen aditu!...

—Ezagun da, aita, zuhaur ere, kontrabandan, harramantza gutirekin harat hunat ibiltzen ikasia zirela lehen. Bainan, zu, ama... Ez nakien... Xuriko bera ere ez othe zinduten gaur atxemana? Sainga bat ez baitu oraino goiz huntan! Orai, ba, xanpaka, eta bazter guzietan zalapartaka...

—Ongi egin ere du, haurra. Asko jendeek baino gehiago ezagutza irakusten daukute frangotan gure alimaleek. Lo egitearen beharra bazinduen, Piarres. Amak erran daizkit oro. Zoaz beraz deskantsu, zure mezaren entzutera. Sarri arte, eta gero, gaur, tenorez etxera. Goizean goizik, bihar, behar dugu behereko landa hori itzuli, eta barnatik oraino, eta ontsa ongarrizaturik; ezen, akituxea dugu zonbeit urthe hautan. Sarri arte, Piarres.

—Sarri arte, aita; sarri arte, ama...

Eta, zalu zalua, jauzika ezpartin xuritan heldu zen orai Piarres, sorho handiari behera. Miñauta multzo bat, inguruka, biraka bazabilan, han, behereko landa hetan, beren kukurustak fantesiaka bezala gibelerat, hegal-azpiak iguzkira xuri xuria, berho guzietarik urrun, sorhoaren erdian, haur batzu bezala salto eta jauzi ari ziren, intzireka, xixtuka, hegal-zaflaka, hemen har beltz bat athera, hantxet zizari luze luze bat...

Urrundik airatu zitzaizkon Piarresi, behako bat doi doia eman baitzioten muthiko gazte erneak. Gauza bitxia! Oihan eta errekek oro hain ongi zazkien kontrabandixt harek eskerrik ez zuen ihiziarentzat, eta herrian, gutiz gehienek, ez harek baino gehiago. Herbi bakar zonbeit doi doia, eliza phestari buruz, artean atxemaiten zituenak, edo beharrez tirokatzen. Pekada zonbeit gero, Jaun merarentzat edo grefierarentzat,... eta hortan akabo. Mixel zaharrari uzten ziozkan bertzeak; eta martxoan, urrian, usoak hedoika Olhaso kaskoan iragaiten zirelarik, doi doia gelditzen zen lanetik, behako baten heieri emaiteko eta Goix-bideko gain hetan herriko aizinatuek edo ihiztari errabiatu bakhar zonbeitek igortzen ziozkaten tiro-banperi ohartzeko...

Herrirat heldu eta, bere asteko belharra karrika buruan erosirik, hura elizan sartzean berean, hasi zen meza-nausia. Kapelua, paretako itze handi bati dilindan emanik, selauruetan, bethiko bere tokian belhaunikatu zen, agur bat egin Jainkoari, gero bere ezkerreko eta eskuineko lagunerik, eta arrosarioak eskuan, etxean laburxko egin goizeko othoitza berriz hantxet hasi zuen eta aldi huntan bururatu.

Orai kanta zezaken, eta deskantsuz, bere gazte lagunekin. Eta kantatzen ere zuen, kantatzen ere zuen orok, burrustaka gainetik beheiti, aldareko argiak harat hunat ibilarazteko heinean.

Jaun erretorak bere phedeikua bururatu zuenean, bet-betan, Piarres, begitarteko zain bat mogitu gabe halere, gauza bati ohartu zitzaion, halako laztan batekin. Denbora hartan oraino, guarda eskualdun gehienak eta bertze zonbeit ere elizan ibiltzen baitziren, ohartu zen beraz Piarres, Handia, guarda Handia, parrez-par zuela bertze aldetik, eta

Handia hari begira eta begira zagola, bere begi beltz onekin. Dardara bat bozean, azkarkiago oraino kantaz ari zen orai muthil gaztea:

«Othoi, ama maitea, urrikal zaizkigu,
Jainko zure semea hasarre baitugu!».

Eta, Jainkoa, zuk barkha, gogora jin zitzaion, Handia ere hasarre zela gaur harentzat, eta Handiak ontsa gaizki entzuten zuela meza, igande hartan, eta Piarresen ere behar bada...

Gogorrarena behar zen beraz egin baitezpada, eta arima xuri xuri garbiarena. Ortango errekan kaprestutik behorak atxikirik, min egiten zioten oraino eskumuthurrek, puxka bat umatuak ere zituen bere hezurak oro... Bainan, zerbeit egin behar zen, futxo!

Meza-nausitik lekora, hain xuxen, Pierre, Ibarroneko plekari pullita hantxet zuen aintzinean. Badoako berehala, eta gizon andana bat, arbola azpitan, beren zigarroak erre eta erre ari diren artean, erraiten dio:

—Bi duro bahunke galtzeko, Pierre?

—Galtzeko? Ez! Bertze bien irabazteko, ba!

—To, Ortango errekan bipher eginik, guarda horiek, begiak harmaturik eni baitaude, nahiz oraino xehakatua naizen, Frantzoari eta Aguxtini behar diagu biek ari, bezperak ondoan. Bahaiza?

—Ba, muthikoa, ba. Ez diagu bada holako bat eginen elgarrentzat, behar orduan? Gero arte, beraz, Piarres; banioak berehala, Frantzoa eta Aguxtin non kausitaren ditudan...

* * *

Eta erran bezala, bezperak ondoan, lauak han ziren, errabotan, lauak pilotari lerdanak, ezpartin eta galtza xurietan, gerriko gorri eta urdinetan.

Giblean, bi bazterretan, mulkoka eman zen jendea, gizonak xutik edo jarriarik; haur txar andana bat —geroko pilotariak— jauzteka plazaren bi alderdietan, han, aintzin hartan, nehon ezin —errexituak. Pilotari zahar guziak han ziren jada, lehen lerroan: Xantiago, Théophile eta Xabatene, nehon guti ikusi baita holako hiru pilotari herri beretik betan atheratzen. Hiruak, doi doa... ez zahartuak, baina zohituak, Xantiago, bere bethiko Clovis zenaren mustatxa alimalearekin; Théophile, Jon Doni Petriri elizan erori kapelu eder bat buruan; Xabatene, zigarro bat —ez lehenagoko hura, hatik— bere ezpain mehe eta hortz xurien artean. Heien aldean, Dominixe zaharra, tente xutik egoki, lerdan eta gazte, bere lau hogoi urtheekin; Ganix, Ganixon, Audet, Sanson eta bertze batzu oraina, eriak iguzkiari bezala, hek pilotari berotzerat ethorriak.

Aspaldiko jaun bikario ona, bere gazteen erdian, bati oihi, bertzeari hirri, gozoki ari zen. Jaun erretora ere han zen, bota-harriaren gainean xutik, bere Eskualdun gizonen erdian. Eta jaun erretora, jaun mirikua, jaun mera eta laborari hek guziak, bi eskuak bizkar giblean kurutzaturik, han zauden, beren lanak eta grinak ahantzirik, orentto bat deskantsuan iragan beharrez. Gehientsuek aste guzia izanen zuten gero, lurrarekin borrokan artzeko, eta beren begitarte arraien zimurtzeko.

Eta kuxean hasi zen gudua. Pierre-ezkerrak bere saka bihurriak alderdi guzitarat zirurikatu zituen berehala. Eta berehala ere hasi trebesak, eta alderdi orotarik hetan:

—Hamar libera sakearen alde!

—Eginak dituk.
—Nahi duk berriz?
—Eginak dituk!...

Eta Jan Pierre, Mixel, bertze Jan Pierre oraino eta Battitta eta Gakien, oro betan oihuka:

—Hamar libera erreferaren!
—Hogoi libera sakearen!

Frantzoa, bi ukaldien artetik trebes guzieren ohartua hura ere:

—Hamar libera? Eginak dituk. Bertze hainbertze? Eginak dituk. Hogoi hamarri!...

Piarres, ixil ixila, bere hari dago, non xoko bat atxeman, non toki hil eta torta bat, harat pilotaren igortzeko.

—Hamar eta zazpi, sakeak hamar, erreferak zazpi, hogoita hamabortzetara!

Xaxiarari edatera, a, a, a, a!

Eta Axkona gaizoa, luze luzea, Jainkoak gorapenean sorrarazi zuelakotz, kantaz ari da edo hobeki musikan, bere boz xarmelarekin. Axkonaren aldean, bere zango luzeak bi plegu eginik, pilotari zonbeiten jauntziak sorbaldatak dilindan, kokoriko kurturik, xotx bat eskuan, Martzel ari da pilotarien pontuen kirrimarratzen, han, lurrean, errabot bazterrean. Leon, Artziringo merak bi botoila arno errebota eskuineko gordagirat ekharririk, pilotariet xorta bat edan dute orai, eta, hatsaren hartzeko, ixil ixila eman dira paretari kontra, batzu xutik, bertzeak kokoriko. Piarres xutitzen da lehenik; eta bere lagunari hitz bat erranik, ezker badoa gibel hartarat, eskuetara guti aski thu eginik.

—Hogoita lau, eta hogoita bat, sakeak hogoita lau, hogoita bat erreferak!

Frantzoa eta Aguxtin aintzinean dire beraz, Frantzoak bere sake dindila atheraturik, eta ezker, jendeatarat, asko pilota sarturik.

Bainan, Piarres orai pulliki airerat edo aintzinaire plantaturik, hor, begiak hesteko artean, bardintzen dire.

—Ados, jaunak, ados. Hogoita launa bardin!. —Ez da gehiago trebesik, bardinean baizik; eta berehala, trebesik ez da batere, gainetik jokatzailak iziturik eta ixildurik.

Bainan gero, huna berriz oihuak. Piarresen alde orai guziak:

—Hogoita hamar eta hogoita sei!!!
—Hogoi hamarri, hiru hogoi hamabortzi!

Eta ostixoan Frantzoarentzat bezala, orai haren kontra ari dire, urratu moltsa saretu beharrez. Berantegi gaur goiti!!

—Hogoita hamalau eta hogoita bederatzi! A la noblia, a, a, !...

Piarresek joan du partida, eta haurrak jada errebotera xinhaurriak bezala jalirik, jauzika plekan ari diren denboran, pilotariet eta jendeak, oro badoazi orai, plazari behera, murmur erasian. Sakelan ximiko badute han zonbeitek. Bainan, bertze aldi batez irabaziko dute hek ere; eta, hirri hormatu batean, diote: kito egin dutela gaur ere, aintzinetik gogoz irabazia zuten partida ondotik gero galdurik!...

Piarres bere jauntzia bizkarretik, adixkide multzo baten erdian hirriz heldu zen, Elizabiderat buruz. Eta huna non Ortzango erreko itsasuarra hurbiltzen zaion, maltzur maltzurra:

—Biba hi, Piarres! Atseginekin ikusten diat hire esku-muthurak ez ditukala oraino oro Ortzango errekan utziak.

—Ortzango errekan? Esku-muthurak?

—Ba, esku-muthurak, eta zango-aztalak... Ez entzunarena egizak orai!

—To, emadak bakea... Hola balitz ere, zer da gero? Ortzango erreka zuentzat behar baduzue, utzezatue Atheka legunak edo oraino Atheka-gaitzak. Hauta emaiten dautzuet; bainan utz niri orratz-xiloaren ttikiko xilo bat. Hura askiko diat... Ni hola bilhatzeko eta musikatzeko orde, haugi to gurekin afaltzera eta musean gero partida baten egitera. Hogoi libera, lehen seietarik, biga bier. Bahaiza?

—Bagaituk. Goazen berehala, eta ez hadiela samur!

* * *

Oren laurden baten buruan, aldaturik, Piarres gaineko barne handian sartu zelarik, baziren jada han edale zonbeit. Bi bordari zahar, botoila baten aintzinean, buruaz elgar hunkitzeko heinean bat bertzearenganat kurtuak, persuka ari ziren, bertzerik sekulan egin ezpalute bezen deskantsuz:

BATIXTAK

Erranet derautzut, Mattin, iduri zautala
Arno onak parerikan munduan ez duela;
Urean bizi baita errekan igela,
Igel geldituren duzu, bethi hala hala...

MATTINEK

Igelak egundainotik ura du maitatzen,
Etxe arno on huntarik ez baitu jastatzen;
Mama gorritik behin balu hurrupatzen,
Balakike ostatura bi jauziz ethortzen...

* * *

Xoko batean, bere laguna kanporat orduan atheraturik, bertze gizon zahar bat, kokotsa ahur barnean emanik, mundu huntan egin ahala errepikan ari zen:

«Gaztetasunak bainerabila
Nola airean iñhara!!!...».

Goraxko harturik airea, ezin bururatu zuen, eta kolpe bat edan, laguna berriz itzuli artean...

Haratago, hemezortzi urtheko lau edo bost muthiko gazte, zintzurak urraturik ari ziren, bi bozetan eman behar kantu bat, lau bozetan emanez, hilak ere phiztuko baitzituen heien krizkolak...

Bainan, ez zen, ostatu hartan, behar ez bezalako ahapaldi bat aditzen, ez eta ere solas lohi bat. Ez zen hau, Eskual-Herrian berean sobera tokitan ikusten diren sehi zantzail eta mari-muthiko hetarik. Ixil ixila harat hunat bazabiltzan, beren buruari zu erraiten eta erranarazten zioten bi zerbitzari gazte.

Erdiko mahainean eman ziren Piarres eta haren lagunak, eta berehala lothu haxoari. Hoberik egiten ohi da bethidanik auzo-herrian, Ezpeletan. Bainan, ona bide zen Senperekoa ere, ezen ogia busti eta busti ari ziren oro, mahain-inguruan, eta hirri onik adi

ziteken kanpotik beretik.

Haxoaren ondotik, bide bera hartu zuten gero sahets-hexur guri guri hatzuek, eta Hettoko arno on eta berotik ari baitziren hain xuxen, alegrantzia osoan ziren orai guziak.

Motxoko gasna legun batetarik zerra bat hartu zuteneko, eta zangoez tronadurari batere zanpaka arizan gabe, han zuten orai, aintzinean, kafe bat hauta, laatza bezen beltza eta ifernuko sua bezen beroa:

«Kafe on batek oro ahanzten...!».

Deus ez zen han kafe on batek ahantzarazi edo antolatu beharrik. Pattantun bera ere frango pixkorra zuten eta idorra.

Ximiniatik bezala, pafadaka aho guzietarik heldu zen orai khea, khe xuri kurumilkatua, gure ametsez leherra barnean daukan khea, eta, Jan-Batit hasi zen bere boz ederrarekin, barne guzia dardaretan emanez:

«Iruñeko ferietan,
Iragan San Fermiñetan,
Ehun zaldi arribatu Andaluziatik, tropan;
Merkatu eder bat zauntan,
Zagolarik bi lerrotan.

Bat zen pikar'ta zuria,
Bota bainion begia:
Andaluz batek egin daut bi untz urhreren galdia;
Eskain orduko erdia,
“Harzak, hiria duk zaldia...”».

Axkona eta Martzel, Antton eta Jan Piarre, Piarres eta Mixel, oro lothuak ziren orail Jan Batitekin, eta pattantunek tartean zintzurra leguntzen ziotela, aho-mihi guzietan hain luzaz izan den Irungo Partidaren persuak eman zituzten bururen burru:

Pilota partida bat, Irungo herrian,
Probintziarren eta Frantsesen artian;
Jaun aphez Baztangoa zen Frantsesekilan,
Gidari gobernador, kuraiarekila
Ethorria urrunetik, molts onarekila,
Bitoriaren bila, "Kaskoinarekila"».

Bertzerik ere eman zuten oraino, hala nola Xoriberrikeraria, Nork erranen du, egun, Frantzia, edo Saratarra naizela orok badakite, baina Piarres xutitu zen erranez:

—Biba zuek, muthikoak. Loria zaitak hola zuen entzutea. Haurkuntza batzu bezala, solasik gabeko aire mutu batzuetan, tilili eta tra la la artzeko orde, eman ditiagu kanturik ederrenak, egiazko eskualdun kantuak; baina denbora bazioak, eta guk, gure mus-partida oinon egitekoa! Hots! Benita, kartak hunara, eta zalu zalua!

—Itsasuarra eta Mixel, Pette eta ni...

Eta mahain estalki bat berehala hantxet hedaturik, huna lau muslariak kartak

eskuan.

—Pikatzak...

—Mus exku.

—Mus, lagunerat.

—Zer mus eta mus? Izituak? Hogoi libera joanen direlakotz lehen seiatarik! Ez da musik: Biak inbido eta pareak ba!

—Hoa pulliki, Pette! Orai galduak, neke izanen dituk gero hiltzeko...

—Ago deskantsu, Piarres. Toki guti askiko ditek gaur sakelan, guri irabazi begi gorriaren eremaiteko...

Espantu horiengatik, hordago guti zen lau jokolarien ezpainetan; inbido eta paso gehiago. Beren lagunak, xutiturik emanak ziren heien gibelean. Kantari zaharrek utzi zituzten berehala beren koplak eta iñharak. Aldean zagozin, hek ere, gibelean eskuak, begiak muslarian jokoari josiak. Lau urhe keinuka ari ziren aldiz mahain gaineen, eta lehen seiatarik pirripitatu heharrak, kito-doblerik gabe, aintzinetik hitzartu bezala!

Ilhun-zeinuek jo zuten hainbertzenarekin, eta, bere xokotik, gazte kantarietarik batek oihu egin zuen berehala: «Anjelus!». Eta han zirenek orok, kapelua khendu eta, kurutzearen seinalea eginik, ahapetik erran zuten egiazko eskualdun batek, non nahi eta hethi, erraiten ohi duen otboitz maitea.

Eta orai, jostetak utzirik, kopetak zimurrik, ilhar bat noiz elgarri irabaz, keinu bat ezin sartuz, tantoz tanto bazoazin lauak, lakasta batzuen pare aztaparka elgarri lothuak Pettek hiru tanto gadu ditu: lau andre, lau erregen kontra...

—Ez baitut hogoi liberakoa hortxet igorri, Piarres!

—Ez, ez oraino. Goazen pulliki.

Pulliki edo itsuski, oraikotik debruak joan du gure manddoa, ezen, bost hamarreko eta launa tanto dira bi alderdietatik... Beraz, orotan tantoa behar!... Piarres exku da.

—Goazen pulliki, Pette, eta orhoit pasoak eta musak ere badirela oinon azken tantoan...

Itsasuarrak eman ditu kartak, eta... heldu zaizkote: Errege, zaldun, batteko, batteko Piarresi, Errege, xango, batteko, batteko kartemaileari... Ah! elgarren berri ez hor jakinen!...

Bultatto bat gogoetetan egonik, ilhun ilhuna hasten da Piarres:

—Paso handira!...

Itsasuarrak aski luke tanto bat, handiko tanto hura... Eta hain xuxen Errege, xango eskuetan ditu. Ba, bainan gero, bi batteko baizik ez, ondotik jarraikitzeke!... Hobe du beraz xikirat joanik. Han, han, jostetak! Paso joanen da beraz handirat: «Paso!». Pette eta Mixel paso joan dira hek ere, beren lagunak jokorik ez ondatzeko.

Hainbertze gizon bazirelarik barne hartan, nehoren hatsik ere ez zen han gehiago ezagun; oro ixil ixila egoki, hats-bahituak, sukar bat begietan. Ostixoko kantari zaharrak halako daldara hoi bat bazuen ezpainetan; aldiz, daldara hoi eskuetan zuen gaur-gero Itsasuarrak:

—Ah! paso joan zaiztea guziak! Gurea duk partida!...

Eta urhe begi-gorrien gainetik Mixel bere lagunari eskua hedaturik, bere bi battekoak agertzen ditu —bainan jo gabe— mahainaren gainera. «Orai, orai xitximariak!».

Galdua da Piarres! Bi batteko baditu harek ere; bainan, gero, zaldun eta Errege, ttikira!!... Harenak egin du, itsasuarra uzten balin badu jotzerat, azken hordagoaren egiterat!...

Eta, hor, sudur ondoak zimurtuz, xixtuka jada Pette hasia duelarik, jokolari zahar zaharrenaren matrikula bat jiten zaio Piarres gazteari gogorat. Itsasuarrak Mixelen eskua bere ahurrean daukalarik oraino, arthikitzen ditu Piarresek ere bi battekoak, oihuka erraiten duela:

—Zuena partida?... Ez oraino! Huna nik ere bi batteko! Mintza gaiten ttikira, eta exku naizen bezala, niri duk lehenik mintzatzea... Paso! Bi batteko biek izaki eta ikusiko diagu nork bere faltaz igorriko duen partida!

Nor izi eta nor harri? Besoak ilhortu zaizkote Mixeli eta haren lagunari. Ah! Itsasuarrak badaki, Piarresek, bere bi battekoen ondotik, zaldun bat duela kartarik ttikiena! Bainan, ez du horrek kanorerik, eta —gauza segura— orai izitua izanagatik, ttikirat atheratua zen Piarres! Eta berak, xango bat baizik ez izaki battekoen ondotik!... Zer dezake beraz, paso joaiteaz bertzerik? Eta, burua galdurik, orhoitu gabe hobeagorik ez dezakela igurika paretarat, Piarresek hedatu arterat erortzen da itsasuar gaizoa:

—Paso!...

Paso hala hala eta zalukara joan da Pette maltzurra; paso azkenik Mixel fede onekoa.

Oihuka orduan, erdi xutitu da Piarres:

—Eup! Orai, kutx ala pil! Mixelek ez badu parerik, gurea duk partida! Puskak izaitera, ez zian itsasuarrak holako burrunbarik erabiliren ttikira... Pareak ba, eta hordago!...

Mixelek ez zuen, zorigaitzez, parerik!... Hordago iragaiterat utziz, eza bereganatzen zuen Piarresek, partida aldiz exkutik irabazten, hordagoa atxikitzen balin bazion itsasuarrak...

Orai, Pettek eta Piarresek zituzten eskuak elgarri, tinko tinko, lorietan emanak:

—Biba, hi, Piarres! Hoi duk hoi jokatzeari!... —Eta urhe begi-gorriak bildu zituzten biek ahur barnerat.

Bazterretikan, xoratuak, aho-xilora heieri begira zauden hango muthiko gazteak; eta bi zaharrak, burua daldaratuz, beren gogoarekin ari ziren. Piarresen matrikula lehenbiziko partidari hala hala berek baliatu beharrez.

Mattin persularia, Piarresen aintzinean plantaturik, persuka jada hasia zitzaion:

«Mendian ikusi tiat herbiak kalitzen,
Usok, oihan beltzean, tanpez arthikitzen;
Ikusi, kontrabandan, çuardak enganahen,
Ez ordean muslari bat hoin ongi çarbitzen!...».

Itsasuarra, Mixeli beha eta beha, bere buruarekin erasian ari zen orai:

—Eta, partida nerea zelarik! Ez ikusi behar, paretarat ni joanarazi beharrez ari zela Piarres demonio hau! Nik ez joko ttikira! Gaineratekoak oro nere galtzeko baizik ez izaki eta!...

—Hots, gaizoa, engoitik hola duk. Bertzela jokatuko hintzen... jakitera. Bainan, jakitera, handia joko nikan nik ere haste hastetik, eta partida nerea zuan, hoinbertze tira-mia gabe. Handian ni enganatu beraz, eta hi gero ttikian. Horra kito. Exkutik eraman diat hastetik nerea zen partida. Pattan-ttun-untzi zonbeit bilduko dauzkuk egun horietarik batez, eta laster hola gibelerat bilduko duk gaur suntsitu begi-gorria. Haugi, to, hunat; arno-berotuak emaiten ditiagu, Pettek eta nik, hemen aurkitzen direneri, eta gero, guziak

etxe alde!...

Eta, erran bezala, Xantiago, herriko-muthila, plan ran plan, plan ran, plan, karrikan bere atabalarekin erretiraren emaiten ari zelarik oraino, Piarres, zalu zalua eta xuxen, bazoan Motxoan harat, Dolabaratzean harat, ilhargi xuriari kantuz:

«Argi-zari ederra, argi egidazu,
Bide luze batean joan beharra nuzu».

Eta Olhaso kaskoan, Oihanburuko, Laparraeneko eta Etxegaraiko xakurrak, sainga eta sainga, dena erasia ari ziren. Etxean, Piarresen amak, gopor-esnea suaren aldetik harturik, hozten eman zuen leihoaren gainean, eta xuriko, buztana harat hunat zerabilkala, lausenguka gainerat ethorri zitzaion...

IV

Lanean

Pottoka iraganarazteaz eta pilotan ala musean irabazteaz bertzerik bazakien Piarresetik, eta berak amari erran bezala, aztaparretan min guti zuen gero, biharamunean, lanari lotzeko.

Aboztuan harbien eraiteko edo sorhoen egiteko, aitarekin bera aski zen bethi, nihongo muthilen laguntzarik gabe. Eta, orgak mukurru gain gaineraino betherik, Gantxume bere anaia ttikiena orga-kaskoan belharraren erdirat jostetan arthikirik, Oihanalderat, behien aintzinean, akilua eskuan heldu zelarik, zinez egia... ederra zela gure Piarres! Erregetik egundaino ez baita ederrago sartu hiri nausian, bere errege-makila eskuan!...

Piarresen loria, gero, buruilaren ondarrean edo oraino urrian, etxe ondoko paretati aztaparka lothuz, suge beltz alimale bat iduri luzatuz zoan mahasti zaharrean! Mahats-biltzaileak oro hirriz eta kantaz, arnoz hanpatu mulko urhezkoeri hortzez asikika, — haixtur edo kanit sista bezenbat hortz-asiki— gogotikago lothuak batik ixkiriot edo odre xaharreko mahatsari; otharreak, saskiak, zurezko untziak, leher egiteko heinean betheak! Eta ilhuntean, gero, etxeko ala auzoko, oro Oihanalderat heldu, karrankaz orga handiak, kantaz oraino mahats-biltzaileak, azken sistako bat elgarri karkaraka igorritz, eta has-herri hura guzia airean emanez!

Goizetik Garramun edo Zumalakardirat joanik, Piarresen eta haren aitaren lanak, han aldapa borthitzean, iratze gorria sega handiaz lurretat arthikitzeko, maltxotan gero emaitako, eta azkenean, Ganix tarteko semeak harat ekarri orgetan sar-ahala tinkatzeko!

Geroxago oraino, lasterrez, oro landan izanen ziren, artho-bizardun zohituen eta azken ilharren biltzeko; artho buru hetaz erranen baitzintuen, beren zango luzeen gainean ikusi eta, lehenagoko atxoen kiloak, ixtupaz edo beren ilez betherik, oro han landatuak gelditu zirela Oihanaldeko alhorrean.

Etxe aintzineko iastorrean hedatu behar ziren artho zangoez bertzeak erretzen zituzten gero landaren erdian; eta Piarres eta Ganix, su handi haren aldean, beren sardiak eskuan, urrunerat ilhun-nabarrean ikusiko zituen arrotzak bazuken biharamunean zer konda; baizik eta, Senperen, bazirela oraino lehenago non nahi Lapurdi guzian kausitzen bide ziren sorgin itsusietarik. Hetarik bat —Gantxume ttikia— jauzteka erkatz-gider baten gainean ikusi zutela, beren begiez ikusi; bertze bi sorgin aldiz, sardi handi batzu eskuan, ifernuko su-handi baten harrotzen ari, putinka hek ere!...

Hazilako aro ederretan, ogiak egiten ziren, urriko lehen igerandean elizan benedikatu haziarekin ongi nahastekatu ondoan. Aitak, bi xotx elgarrekin bihurritz josirik, kurutze ttiki batzu moldatzen zituen eta, gero, han hemenka landatzen, alhorraren erdian. Piarres eta Ganix azienden biltzen ari ziren artean. Gantxume —Xuriko xanpa eta xanpa bere aintzinean— harat hunat lasterka zabilan, haziaren usainerat pisu pisua eta karrankaz ethorri beleak ohildu beharrez. Eta orai, bazoazin oro barnerat, uztailan bilduko zuten ogi ederra, Jainkoaren menturalat, han, kanpoan utzirik.

Aphirilaren beldurrez, eremu ederra eraiten zen gero bazka ferdez: olo, allubria edo zingila. Anhartean, harbi hostoak han ziren eta hosten ondotik harbi-buruak, Oihanaldeko aziendek goserik hiltzeko beldur guti baitzuten, beren heia idor eta beroan. Heia hartako laza handieri behiti irmi-armu sare bat ez zen dilindan ikusten, Piarresetik sinheste guti

zuelakotz arras, eztul tzar bat azienderi emaitako baizik ez diren gingilleria zikin hetan.

Segur, alimale guzien zoria ez dela bardina mundu huntan! Hetan ere, jendeetan bezala, ontsa direnak izaki; eta bertze batzu aldiz bethi herrestan: zakur begigorri eta mirakuiluz baizik xutik ez dagozin behi hetika!... Piarresen artha bere aziendentzat! Hogo bat buru edo hurbil bazen han, heia garbi beroan, egun guzia etzanik, ñasta bethi beren sabel handietarat behin egorria ehun aldiz goiti berriz ekarraraziz, athe-leihoak neguko horma eta haizeari ongi hetsirik. Piarres han zabilan maiz, beren buru handiak doi doia makurturik, begi on handi batzuekin hari begira zauden Gorriari, Katzori, Xuriari eta bertzeeri fereka bat emanez, etzangia bat garbia hedatu beharrez, izaka eta errekek artharekin hustuz maiz aski, azpiak hala hala arduran eginez, asteazkenarekin eta ortziralearekin bardin, zorigaitzaren heldurratetik. Buru ahulak ez zituen egundaino maite izan herrian, eta bere aita zuhurak bezala, hirri egiten zuen, zaragarraren kontra bere behiari norbeitek beharri bat zilatu ziolarik...

Hala hala, superztizione ttikikoa bezenbat fede handikoa zen Piarres, eta, Kanderailu goizean, bihotz onez emanen zen buru-has, bere ama jiten zitzaiolarik heiarat, goizean jaun erretorak benedikatu xiriotik hiru xorta, Trinitate Sainduaren izenean, heia hartarat lehenik eta gero oilategirat edo xerritegira ixuri beharrez. Behin baino gehiagotan, lehenago, bere ama maitearen eskutik sorbaldaren gainean hartu zituen, haurrean, hiru xorta horiek, sukar mota guzien kontra; ongi baliatu ere baitzitzaizkon behar bada... Biziki pullitago othe zen, behi bat heian eri izanez, amotzar gizon bat bezala, auzo-herrirat, Sarako xara batetara, argi-hastea gabe joatea, eta auzo-herriko xaratik argi-hastea gabe hola ekarri goosti-aldaska bere heian emaita, behiaren sendarazteko?...

* * *

Heiako erreka eta izakaz bertzerik ere garbitzen zuen Piarresek. Bere galtzak galtxoin ilezkoetan sarturik, bazoan, berho-sasiak pudarekin haiotzarekin xuxenduz eta pikatuz, erreka-estaliak eta bertzeak artharekin hustuz; bardin —behi bakar bat uztarrian emanik— erreka-ziloetan adareta sartuz eta luze luzea lerraraziz... Bitxia gerthatzen ere baitzitzaion, egun batez, adareta hola zeramalarik. Intha mehar mehar batean, lohiaren, basaren gainean lerratuz zoazin beraz Gorria, Piarres eta adareta, noiz eta ere, ingurune batean, bekoz beko egin baitzuen bere auzo, Goaña, Litzartzako alabarekin. Gorria zalukara zoan, adareta ere ba, Piarres ere ba eta bidea hertsia zen..., bazterrerat jauzi baten egiteko artea doj doia izan baitzuen hantxet Goañak; eta biak, Piarres eta Goaña, elgarri beha gelditu baitziren, gorri gorria eginak...

Ondoko egunetan, Ehaltzeko-bordako Piarres zaharrarekin, mahats moxten ari zelarik, gogo dena hartua zuen oraino intha hertsia hartan gerthatu zitzaionaz. Guttiak egin zuen gero, ez baitzion hantxet Goaña gaixoari minharrarazi!... Halako su bat heldu zitzaion oraino ere mathela koskoetarat neskaxa gaztearen oihuaz orhoitu eta. Beharrik zen Goaña laboraria, gaztea eta zalua. Eta, gero, ez zen batere hasarretu, hirriño batekin gorritu bakarrik, Piarres bezala...

«Zer hari haiz, Piarres? Hire haixturrek gainekoa egin behar eta beheko begia pikatu dautek eta!...». Eta Ehaltzekobordako Piarres, Jon-Doni Petrirenaren iduriko bere buru ederra daldaratuz, begiak hirriz, maltzur airetto batean beha eta beha zagon gure Piarresi. Eta hala hala, sekulan ez eta, zer zuen bada gaur, bere mahats-haixturrekin, Irulegitik ekarrartzi aihen hoberenak hain gaizki moxteko?...

Piarres, arrats hartan, xixtuz sartu zen Oihanaldean, eta amak, bere ama-begi samurrez behaturik, bertze arratsetan ez zuen zerbeit ezagutu zion bere haurrari, eta berant arthe othoitzean egon ere zen, su-ondoan arras hoztu arte berant.

* * *

Abendoa, urtharrila bazoazin hola. Ongarriak hedatzen ari zituzten sorho guzietan, beltz beltza, dena khe, dena lanho, lasto mutzitu batzuz ihaurriak. Onkailu ona, osoa hola lehenik eman eta, xori-ongarriak hedatuko zituzten, bertze urthe batez, edo bertze lur batzutan, bazterrak oro betan erhoturik ezarri gabe, zuhurki eta jakituz.

Eta orain, sukilak heldu ziren etxerat Oihan-xutetik, Errekaluzetik, jaun handi batzu iduri, alfer eta nagi, luze luzea emanak orgetan; kopeta zimurtuz, adarrak beheiti makurtuz, belar klaska handi batean ekartzen baitzituzten Katzok eta Gorriak. Sukilak etxean sartzen... eta lehen elhur-lumak xuri xuria erortzen: eta erran gabe doa, Gantxume, heiako athetik, oihuka hasi zela berehala:

«Elhur-melur,
Ez nuk hire beldur,
Badiat etxean artho'ta egur!».

Xemartin ethor ziteken Amotzetik, urde gizenaren hiltzera, Gantxumek lagunduko zuen, buztanetik xerria bi eskuz atxikiz. Amattok bihotzean min zuen ba pitta bat, bere tturrinari lephoan egin sakiaren aintzinean emaiten zuelarik kolore gorrizko pandero ederra. Hain maite zuen Iturrin, hainbertze ferekatu eta hatzkatu zuen, hamar hilabetez, bere lepho gizenaren gainean, bere bi beharri handien artean! Hainbertze puska onez hazia ere zuen, hainbertze artho-bihiz pullitua, borobildua, gogortua!... Bainan, Piarresen burla maite zerbeit erranik, arintzen zitzaion amari bere bihotzmina, hirri bat ere ethortzen azkenean ezpainetara... Orogen buruan, Jainkoak gizonarentzat eginak ez othe zituen alimaleak?

Arbola frutadunak arthaturik, sagar. udare, merxika-ondo zonbeit landaturik, lur-sagarrak martxoan, beterrabak ere aski goizik martxoan edo aphirilan Oihanaldekoak egin baino lehen, asko esku-ukaldi emaiten zioten beren auzo guzietan, baitzakiten hola, ordainak igurika zetzazketela hek ere auzo berenganik. Lotak baitziren orduan oraino herrian, Erreka-Luzetik, Oihamunetik, egur-aldi ederrik ekartzen zuten ororen artean. Aspaldiko urthetan, jada, gaitz itsusi bat ametzeri, haitzeri lothurik, joanak ziren kapetatzeko lanak, eta tantaiak aldiz inkantean emaiten ziren, herriko moltsaren joritzeko, zerbeit behar-ordu handi agertzen bazen ere. Ah! lehenagoko Senpereko oihanak!!... Jendeak bezala, herriak ere kasoiltzen, kasko-zuritzen othe dira bada? zerbeit holako behar zen izan, ezen herriko asko Attonen buru gaineko ileak zerbeit baziren oraina, Senpereko ibar-muthurretako haitz edo ametz batzuen aldean. Aldaperi gora elgar ezin atxemanen ari, ikus zitezken zuhaitz bakar batzu, beltza, aspaldi zaurituak, besoez gabetu mamu handi batzu, doi doia xutik oraino egoki zirenak, ondoaren gainean ihartuak... Segur, lehenagoko senpertarrek ez lirotela ezagut beren ohiko herria!

Urthe oroz, sukil eta erro horietarik eginikako Iotaren jaun erretorari garraiatzeko, dotzena bat lagun biltzen ziren, Zaldiferran batzuetan, Goixbiden bertze batzuetan, edo han nonbeit Orizanen. Eta, Iñazio zurgina kapitain, Jan Batitek, Frantzoak eta Nikolasek

oihanean ondotik pikatu sukil handiak, Piarresen eta haren lagunak terrenten ekartzen zituzten karrikarat, panpalina soinutan, etxe-sartze batean obi den hartamantza guziarekin. Eup! Frantxixko! Eup! Pettan!... Eta, egur alimaleak jaun erretoraren korratlean ahalik eta hobekiena ohatu ondoan, orga tinkatzeko burdinak eta gatheak orgetan emanik, hartakotzat ethorri beren haur zonbeitekin igortzen zituzten aziendak etxerat; eta, eskuak behean pitta bat garbiturik, athorra-lephoa hetsirik, beren jauntziak soinean emanik, hamikatuak jartzen ziren hain ongi merezitua zuten otruntzaren aintzinean. Jaun erretora heien erdian. Eta, kurutzearen seiñalea eginik, ixil ixila salda-begiduna eskuetan airean husturik, batzuetan untzitik beretik azken xortaño hek hurrupaturik, lehenbiziko basoa ondoraino husturik, hasten ziren itzain maiteak oro, guziak betan elheketa. Eta loria zen egiazki heien orduan entzutea. Beren mahain-oihaia pulliki —zikindu gabe— bazterrean emanik, edo belhaunen gainean hedaturik, ari ziren ari! Oro unhatuak, ongi unhatuak, akhidurak eta behar bada lehenbiziko arno xorta harek matheletan gorrituak, elgarren kitzikatsetik ez ziren athertzen. Batek zortzi sukil ekarri; bertzeak, sei; baina gaitzak, egundaino nehork holakoik ez baitzuen oraino orgetarat altxatu! Frantxixkok Pettan kitzika, Pettanek Frantxixko eta bertze zonbeit ere bardin. Xarlex hirriz bazterretik, Martzel hala hala; Ximun aldiz, ohartu gabe, mahain azpirat, gelditu gabe, thu eta thu. Jaun erretora hirriz bertzeri, bainan beltzurika Ximuni... Hots, hiruzpalau oren goxoak iragaiten ziren, nehor ohartu ere gabe denbora bazoala, jan, edan eta hirri. Damurik ez zen han Xuriko, Piarresen xakurra, mahaian azpirat uste gabetarik edo bertzela erori hexurren biltzeko! Gasna bat hauta gehientsuek bazterreru utzirik —gasna etxean ere aski maiz jaten zutela—, kafe on bat lehenik, pattantunik gabeko koñaka gero guziek edanik, Iñaziok hasten zuen Baztanaldeko kantu pullit bat, Jan Batitek aldiz Senpereko bat ederragoa oraino, eta, zazpiak eta erdiak irian, bazoazin guziak etxerat... Goxo zen jaun erretoraren etxean..., bainan goxoago oraino beren etxean!

V

Etxea

Bai zinez maite zutela guziek beren etxea, zinez maite zuela Piarresek bere Oihanaldea! Han baizik ez zuen onik. Kontrabandan ar zadien edo oraino lanean, etxearenzat ari zen, etxe hura zuen bethi gogoan. Doi doia zakien bere deithura: Piarres Oihanaldekoa zen, eta hori zitzaion, bertze gehiagokorik gabe. Mendixka baten kaskoa baizik ez zen lehenik Oihanaldea. Bainan, gero, emeki, kaskoari sorbaldak eman ziozkaten eta bulharrak, hemen larre bat uzkailiz, bardinduz han pentoka zerbeit, arbola zaharrak errotik atheraz, mahasti-aihenak aldapari gora herrestan iganaraziz.

Hots, erresuma ttiki baten errege hil zitzaioten Aitaxo. Bezperan oraino, azken aldikotz ohean etzan baino lehen, bere erresumaren ingurua sukar-daldara batean egin zuen, lanean ihartu bere esku maiteekin fereka bat emaiten ziotela uztaileko ogi-buru pisueri. Ikusten zituen gauzak oro bere begien zola-zolan bertze mundurat eraman nahi balitu bezela, guzieri beha eta beha egon zen luzaz, begi hek ezin asez. Heian gero sartu zelarik, etzanik han zauden behiek, maitetasunez, marruma gozo bat egin zioten, beren gatheak inharrosiz... etxeko xakurra eskuperat ethorri zitzaion hura ere, fereka baten galdez, eta baratzeko loreen aintzinean burrunbaz betherik sumatzen zituen kofoineri agur bat —azkena— erranik, hotz-ikara batean sartu zen etxean lehenik, eta gero... ohean. Egun bat bethetzen den bezela, bethea zuen aitaxok bere bizi luzea; eta haren aita azken aldikotz luzatu zen ohe berean, ohe-zerutik beheiti heldu ziren oiha gorri beren artean, luzatu zen aitaxo, bethitik maitatu zituen Jainko handiaren eta Ama onarenganat joateko...

Eta Jainkoarengana joan ere zen aitaxo; bainan aita, ama gelditu ziren, gelditu bethiko beren etxea, Aita eman zen aitaxoren zizeluan, eta bethi bizi zen Oihanaldea, errege-makila doi doia eskuz aldaraturik, hilak, eta biziak, elgarren aldean aintzina bizi, etxe berean bethi, Oihanaldean. Aitak, egun batez, Oihanalde hoi utziko zion bere seme Piarresi, Piarresek gero bere gehienari, hunek hala hala bere premuari: gathe batean erhaztuna erhaztunari bezala, izanen ziren premua premuari aztaparka lothuak. Haurride gazteagoek, hek, etxe-zati zerbeit doi doia harturik, zoin bere alde eginen zuten, etxe hari trabarik ez ekartzeko; alde orotarar hedatuko ziren, behar balin bazen Ameriketarat hegaldatuko, eta handik askotan oraino etxea amodioz lagunduko... Bai, egiazki, hilen eta biziena, hango berekoen eta urrungoen etxea zen Oihanaldea. Zonbat aldiz, hari behatuta, ez zitzaion Piarresi etxe hura oilo-ama bat iduritu, oilo-ama batek hegalak bere xitoen gainera bezala, etxeak bere bi hegalak hedatzen zituela, hil eta bizi, orenen gainera!

Bertze aldi batzuez, jende bat iduritzen zitzaion zela etxe xuri hura, mendealari bizkarrez itzulirik, bere leihoetarik, begi handi batzuekin bezala, iguzkialderar beha zagon jende bat. Eta zinez, hala hala, nork egundaino jenderik maitatu othe zuen, Piarresek bere etxea maite zuen bezenbat? Itsutuki maite zuen, eta bihotz-erraietatik. Bururen buru, aspaldi ikasiak zituen saratarraren koplak ederrak, eta loria zen haren entzutea, akhilua eskuan, behien aintzinean kantu-errepiketan heldu zelarik:

«Ikusten duzu goizean,
Argia hasten denean,
Menditto baten gainean,
Etxe ttipitto, aintzin xuri bat,

Lau haitz ondoren erdian,
Xakur zuri bat athean,
Ithurriño bat aldean;
Han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua,
Maite dut nik sor-lekua,
Aiten aitek hautatua.
Etartetik kanpo zaut iduritzen
Nonbeit naizela galdua;
Nola han bainaiz sortua,
Han utziko dut mundua,
Galtzen ez badut zentzua!».

* * *

Oro maite zituen etxeño hartan, oro etxe inguruan: landa, sorro eta mahasti gizenak, xoriz bethe berho-sasiak, xilo batean gordatuz erasian kur kur kur ari zen ithurria, zeru urdina etxearen inguruan. Aireak, haizeak harrotzen ere zioten Oihanaldeko lur, hosto eta loreen usain berezia, auzoko lurrek ez zuten usain berezi hura: hola bederen iduritzen zitzaion Piarresi. Lur hura bihotzez maitatzea eginbide handia zitzaion. Ez othe zuen Jainkoak ahurtara bat lurrekin moldatu Lehen gizona? Ahurtara bat lur ez zirena oro bilhakatu behar egun batez?...

Oihanaldean lehenago hil zirenen izerdiek ez othe zuten emokatua lur-eremu hura guzia? Erdi-saindua bederen ez zena beraz ondotik ethorriak zirenentzat? Haren aintzinean, egun batez, kondatu baitzuten. Aitaxo lehenago ez zela sekula auzoko lurrera iraganen, eskalapoinetako lurra bere lurretara eroraraziz baizik, hirri egin zuen orduan Piarresek. Bainan orai, Aitaxok bezala ez arras berak eginikan ere, iduri zitzaion halako gauza maite batez hiririk bederen ez zela behar gehiago. Eta, zonbeit aldiz, ustegabetarik bezala, ez othe zitzaion gerthatu, bere buruarekin egon baitzen, zein othe zitezken aitaxok hala begiratu lurmokorrak?

Bai, apheza aldarekotzat bezala, lurrarentzat eginak ziren laborariak. Ez ziren, bizirik lur-bilhakatu behar; bainan, arima hegaldaka bere gain utzirik, zango besoak lur hari behar zituzten josiak, lur harekin borroka behar ziren bizi; eta biziari ukho eginez urruntzen ziren beraz, herritik hiritar zoazin eskualdunak. Besorik aski lurak ez izanez, ogirik aski izanen othe zen geroan jendearentzat, herritik joan eskualdunentzat eta berteentzat?...

Eta orhoit zen Piarres, lurraren amodio hoi aitaren ganik zaukala guzia. Egun batez, iguzki minarekin ari ziren biak gaineko landa handian. Hatsaren hartzeko doia gelditurik, beren herri maiteari beha eman ziren beraz ixil ixila. Haize-hegoak eskuak hunkitzeko heinean hurbil ekarriak, han zituzten, aintzinean, Larrune-Mendia bere harri peña handiekin, herriko oiha, hariztegi eta phagodi ilhunak. Hurbilago, itsasora buruz luzatuz zoala, ohiko ibar gizena; zur-xurien erdian aldiz, ur-handi maitea, elizari agur bat erranik, ihesi gero han harat zoana. Eliz-hilherriak xuri xuria han zituzten, biziaren amodioaz alderdi guzietatik inguratuak.

Han ber-berean hasten zitzaioten gero beren erresuma: luzatuz arthoak, urheztatuak

ogiak, itsasoko uhinak iduri, farra-farra alde guzietarat haizeak harrotuak. Aitaxok iguzkira landatu aihena aztaparka heldu zitzaioten ondo ondora, hilak phizturen zituen odola harri-arte guzietan bildu eta xurgatu beharrez thematua.

Ixil ixila bethi, loriatuak biak, han zauden aita-semeak, noiz eta ere, bieri betan zimurto baitzitzaioten kopeta... Hantxet, landa bazterrean nor zen han agertzen, heien lurrean? Orori beha, begi ozarrean nor da jaun hori, heien alhorrean? Eta egiazki erran ziteken bazterrak oro, gaitzituak, 'S beba zaudela liek ere. Ilan higatu arbasoak ez othe ziren, lur-mokar hakotxaren gibeletik, hasarre altxatzen ari, arrotzaren behatzeak asalduretan emanak?... Eta, begia ilhunik, landari beheiti abiatu zen aita.

«Zertan zabilta hemen, jauna? Arrotzari begitarte egiten diogu eskualdunek; baina, gaur, ez dakit nihauk ere zertako, arrotza baino gehiagokoa sumatzen zaitut zu... Zer behar duzu heme gureganik?».

Makila txar bat eskuan firurikatuz, urheztatu bi hortz itsusi kirrikan erakutsiz, mintzo zen orai arrotza: «Zenbat behar dautzut eskaini zure etxaldeaz?... galdatu guzia izanen duzu berehala. Begikoa zaut toki hau, jauregi bat ederraren hemen altxatzeko... nahi duzu aberastu?...».

Ikare batek hartua, begiak jali behar zitzaizkola iduri, ikaragarri egin zen aita. Burdin-sardia bi eskuz harturik, bazoan arrotzari buruz... «Zoazkit hemendik eta zalu, zuhurra balin baduzu! Bertzenaz, errozgora, hortxet, gizon hil bat zira... Atxikazu zuretzat zure diru zikina, baina bego gure herria... gure!».

Piarresen bi urhats egin zituen aitaren parrean emaitako, baina eskualdun zaharra bera aski zen mundu baten izitzeko: zuri zuria egina, jaun arrotza bazoan, eta zalu, landa handiari behera.

Bere sardia eskuetan, mendi kaskoan xut xuta, han zagon Oihanaldeko nausia, ihesi joan jaunxkilari gibeletik oraino oihuka:

«Jauregiak! Jauregiak?... Eta etxeak ez othe gure haurrentzat? Hirian goseak hil behar naski guziek? Gure haurrek behar ditek gure herriko lurra!...».

Eta arrotzaren ondotik, sainga eta sainga, mugaz han harat bazoan Oihanaldeko xakurra, herriaren etsaiak herriatik urrun urrun ereman beharrez!...

VI

Oihanaldean

Arrats hartan, orhoitzapen handi horiek hola gogorat ethorririk, pullitagoa, maiteagoa iduritu zitzaion Piarresi bere Oihanaldea. Xixtuketan aitarekin, tresna-gider berri egiten edo xahar xuxentzen, aldateian arizan ondoan, sartu zen beraz sukaldean, eta berehala, halako bat igan zitzaion bihotzerat.

Bai, zinez, goxo zen Oihanaldeko sukaldean!

Oi neguko arratsak, supazter xokoan,
Xixtuka ari dela haizea kanpoan,
Atheak hetsirikan, suaren ondoan,
Elgarri kontra oro sukalde beroan!

Elhurra zirurikan jausten da zerutik;
Uria, xorta-xorta, teilatu gainetik;
Arima herratuak intzirez kanpotik,
Berotzera jin nahiz leihoen artetik!...

Azantz bakar bat ez da kanpoan ageri...
Xuriko ber bera da erausika ari...
Zorigaitz, arrats huntan mendian denari,
Tanpa, tanpa, bakarrik gauaz doanari!

Zer goxoa beraz, gaur, gure etxeñoan,
Kanpoan hotz bezenbat goxoño barnean!
Esne lodi kaikuan, xingar gerrenean,
Gaztenak pinp paderan, arno goporrean!

Sukil eder bat erretzen emeki emeki ari zen; eta haren aintzinean kurturik, ama ikus ziteken, talo bat hurbil, bertze bat gibela, edo, oiha! xuri marratuaren barnean, beren titta eta printz beltzekin, talo hek garbi garbia eta bero beroa eman, oren hartan ari.

Oh! ama gaixo hura, nola eta zoin maite zuen Piarresen, munduko erreginarik handienarentzat salduen ez baitzuen, segur! Eta hala hala, zer ama ez zion emana Jainkoak! Zilarra bezalakoa! lehenik jaikia bethi, bethi azkenik etzana. Ez iduri eta, pitta bat gehiago egun guzietan, higatuz bazoan, bethi bardin maitea, deusetan errenkuratu gabe sekulan, higatzeko Jainkoak egin dituen ama on guziak bezala. Eta iduritu zitzaion Piarresi, bethi hola erdi-higatua baizik ez zuela ezagutu bere ama, haren lehen ile xuriari ez baitzitzaion ohartu ere sekulan!

Bere ustez segurik, ama maite horren amodioaz bertzerik ez zuen ordu-arte bihotzean; eta ama hura, sukilaren su-biziak mathelak gorriturik xutitu zenean, (erle bat kofoinean bezala) sukaldean harat hunat ibiltzeko, semea beha eman zitzaion maiteki; eta gauza horri oharturik, loriatu zen emazte gaixoa bere seme handiaren amodioaz... Eta, deusik erran gahe, sukar bat bihotzean, othoitz hau egin zion Piarresen Jainkoari: «Luzaz agian duzu gurekin utziko, luzaz agian hemen ahantziko!...».

Marie, su-ondoan hura ere, galtzerdi saretzen ari zen. Hola nik erran behar banu, ez zen baitezpada jendeek pullitak deitzen dituzten nexka gazte airos hetarik. Ez. Haren pullitasuna, kanpotik baino gehiago, heldu zitzaion barnetik; eta arima garbi garbi batek emaiten zioten haren gorphutz gazteari —eta bereziki begien maitetasunetan bereziena. Oihanaldearen gaineko zeru urdina bildua zuen hogoi urthe luzez begi hetan, eta zinez maitea zen Marie, bere euskualdun molde ederrarekin.

Mariaren altzoan katixima hedaturik, alki ttiki batean jarriak, Frantxa eta Xaneta, biitxi maiteak, noiz Jesukrixto ethorri zen mundura, ari ziren tira-ahala, jaun-bikarioak bezperan hitzeman saindua biharamunean bildu beharrez. Eta, bere galtz-erdiak bethi eskuan, orratz xorroxka erhi-muthurretan, Mariek maiteki xuxentzen zituen haur gaixoen behaztapatzeak, hirri bat jin baitzitzaion ezpainetara, Frantxak, durduzarik gabe batere, eta bere ile pullitak buruaz gibelerat igorritz, galdatu ziolarik: Oihanaldeko heia bezen handia zenez Betelemeko heia txar hura?...

Kaikua eskuetan harturik, eta zazpi urtheke bere arrebaren ahapaldiari hirriz hura ere, Betelemekoa baino handiagoa segurki zen heiarat joan zen orduan Piarres, eta behien deitzen hasi berehala. Katzori, Gorriari eta bertzeri tafla gozo bat eman zioten bizkar gainean, eta alimale maiteak marrumaz ari zitzaizkon oro: Muu!

—Ba, behia, ba!...

Ganix anaia gazteari oihu egin zion, ethor zadiela haren laguntzera. Bainan, Ganixek hamasei urthe zituen oraino, eta, dudarik gabe, lanik aski segurik bazuela egun hartan eginik, aldatei zokoan, brozelari kontra xutik emanik, mundu huntan egin ahala... turrutan ari zen, jaun erreterak gazte multxo bati eman turrutetarik bat ahoan, bere mathela gorriak zart egiteko heinean haizez hanpaturik. Ez ziozkan jaun erreterak ikusten bere mathela turruputunak! Eta ari zen, ari, Phazkoz herri guziaren aintzinean bere lagunekin gero agertzeko, turruta eta atabalak, plazako xakurrak oro ihesari emaiteko heinean hori horia argituak, kapelu gorritan, ezpartin eta galtza xuritan! Jan Battit eta Ganix beren atabalari lagunekin, bertze Jan Battit eta Paul turrutariekin, baziren gero pitta bat! Eta Senpereko haurrak, emaztekiak, gizonak berak, lorietan beha egoiten zitzaizkoten, bezperak erran eta, arbola azpi hetan sei zazpi lerrotan emaiten zirelarik. Eta Phesta-berriz, gero! Ai, Jainko zerukoa!... Mañifikateko aire hurt, denen aintzinean, herriko atabalari zahar guziak, begiak eta beharriak harmaturik, heieri beha, noiz huts bat eginen zuten!...

Eta jo eta jo ari zen Ganix. Butrun, Amotz, Olhaso, Branja, Emak-Hor, Biba Gu, Bibi eta berek hola izendatu bertze asko aire, lerro lerro bat bertzearen ondotik emanez, tturrutt eta ttutt zonbeit, tartean, beltzuri batekin eskapatzen zitzaizkola. Piarresen gaingoiti etsitua zuen haren bereganat ekarraraztea.

Aho xilora Ganixi begira, Gantxume ttikia, bere xaal hauts-kolorea gaur ahantzirik, nehun ez zagoken, tokiaren gainean jauzteka.

Tartean, Ganix akituxe zelarik, hartzen zion turruta eta, begiak kanporat jalirik, lephoko-zainak tiran tiran emanik, ithoka ari zen hura ere... Hamar urthe haizik ez zituen oraino; bainan, hamasei urthetarat helduko zelarik, turruta handi eta lodia galdaturen zion jaun erreterari, pa, pa, pa, basaren egiteko!

Behiak deitzirik, eta kaikua sarrixago edanen den esne lodi gizenaz betherik, sukaldean Piarres sartu zeneko, Aita jin zen hura ere, alimaler jatera emanik eta heiako athe-leihoak ongi hetsirik. Bethidanik zaukan: hotza partida dutela behiek, jendeek bezenbat bederen, edo gehiago. Gaztenak, pin, pan, paderan tiroka ongi erretzeko artean, haurrak, katixima ahantzirik, hirri-karkaraz zagozin denboran, bere bethiko tokian, zizelu-

xokoan jarri zen. Eta bi eskuak surat, pafa pafa deskantsuan ari zen orai, lurrezko pipa labur bat ahoan, pipa hartarik kurumilka zoan kheari beha, khe hura batere ikusi gabe, begiak han nonbeit galduak. Sukilaren aintzinean, karraskan errez zoazin aldiz othe adarrak...

Norbeit izaitekotz, gizona zen egiazki Oihanaldeko Thomas. Berrogoi eta hamabortz urthetan han harat bazoan orai, berrogoi urthetan bezen hazkar bethi. Larrua lanean ximaldua segurki, bainan begiak argi, kopeta zabal, eta kopeta haren giblean, kaskoetan xuxenena. Gut, arras guti sartu zen behin ere bertzeen egitekoetan. Halare, gizon zuhurra egiazki zelakotz, jende asko ethortzen zitzaion Oihanalderat, argi zerbeit haren ganik beharrez. Herriko gizon egina zuten aspaldiko urthetan, eta Paxkal jaun merak adixkide segurragorik ez zuen nahi bere biltzarretan.

Oihanaldean, gauzak oro haren erranetik zoazin, eta erregerik ez zen Thomasi nausitasun maiteenean joanen zionik. Faraon bere jar-alkiaren gainean bezenbat bazen hura Oihanaldean, lehenago iragan nausiek argi argia higatu zizeluren gainean. Solas alfer guti zoan aita maitatu haren ahotik, mehatxu gutiago oraino; hitz bat, keinu bat; aski baitzen hura ororentzat... Eta, berehala hemen erraiteko, nehork ez zuen aita hura Piarresen bezen gora ekartzen bihotzean...

Gaztenak erreak ziren bizkitartean. Bi, hirur aldiz paderaren athe ttikia burdina batekin idekirik eta berriz hetsirik, padera hoi bi eskuez azkenean harturik, haren barneko oñ-oña beltzak hustu zituen amak, suari batetara, gaitziru handi batean hedatu estalki ilhun batetara. Esku-zartaka eman ziren Frantxa eta Xaneta, oihuka Gantxume. Xuriko hurbildu zen hura ere, bainan, muturra errerik, zalukara joan, mahain-azpian gattuarekin aztaparkatzera...

Gaztenak pitta bat hoztu artean, aita bere zizeluan, Piarres eta Ganix mahainean, eltzekariari lothu ziren, kurutzearen seinalea eginik hiruek, lehen ahamenaren aintzinean. Eltzekari ona egiten zen Oihanaldean, gauzarekilako eltzekaria; eta, bakotzak berak hartuz bere neurria, gogo onez ari ziren beraz hiru gizonak. Baso bat arno gero, beren etxe-arnotik; gaztena gozoak, urik gabeko esne lodia... Bertze zertaz gutiziatuko ziren oraino? Erregek berak ederkiago jaten othe zuen eta edaten, bere jauregian?

Emaztekiak, haurrak hasiak ziren aldiz gaztena jaten, suari hurbil oro, kadira aphaledo alki ttikien gainean. Ezpain-kokotsak, sudur-muturrak hala hala beltz beltza eginak, Gantxume, Frantxa eta Xaneta burlan ari zitzaizkon aitari: erne zitezen; bertzela, bat ez zitzaioleta ixtantean geldituko!

Eta aitak, zurezko mailu batekin bere gaztenak leherturik, kondatu zioten, lehenago, haren haur denboran, Olhaso gain hek guziak gaztena ondoz ihaurri zirela. Bainan, zorigaitzez, Baxenabarren menditarrerik bezala, gaitza lothu zitzaioten heieri ere Senperen. Eta orai, bakar ondo batzu ziren xutik gelditu, Amotzen, Helbarron-Usondoko paretan, eta Oihanaldeko bixkarrean... Eta, zinez dolu zuten hortaz gure haurrek eta Gantxume mintzo zen jada, Oihanaldeko bazterrak oro gazten-ondoz landatu beharrez. Nork zakien eta, gaitz itsusia ez othe zenez oraikotik mugaz handirat sekulakotz iragana?

* * *

Piarresen pitxer handi baten bethea minata ekarririk, danga danga edan zuten guziek, eta, haurrak, lerro lerro bazoazkon orai amari, ixtorio eder bat haren ganik beharrez: «Ixtorio bat, ama, eta luzea, dakizun pullitena?»...

Beren gopor-esneak hustuak zituzten guziek. Pipa eta pipa ari ziren berriz gizonak. Ganix, eskalapoin gantzola bat itzatu beharrez, bere bethiko xokoan emana zen, Phesta-Berrietako aireak, xixu eta xixtu... xirurikatuz.

—Ixtorio bat, ama, ixtorio bat!

—Huna beraz, haurrak: «Bertze ordutz, bazen bele zahar, zahar bat, zahar-okitu bele bat. Hegal bat bazuen luzea, biziki luzea; bertzea zuen aldiz laburra, biziki laburra... Bigarren hegal hoi izan balitz lehenbizikoa bezen luzea, luzeago ziteken, haurrak, gure belearen ixtoria...».

—Ba! bethi ixtorio bera erraiten daukuzu, ama! Bertze bat, bertze bat, othoi!

—Hots, huna beraz, bertze bat, haurrak; bainan gero, hatik, aski, gaurko: «Behin bazen errege bat. Errege harek bazituen bi alaba. Alaba hetarik bat beztitu zuen xuriz, bertzea gorritz...». Nahi duzue berriz?

—Ba! berriz ere bethi gauza bera!

—Bertze bat, ama, bertze bat. Bi horiek aspaldian badazkigu eta...

—«Beraz, haurrak, etxe batean, non nahi sartzen omen zitzaizkoten laminak.

»Arrats batez, oherakoan, etxekandreak, uste gabe, lakha bat ahoz beheiti emanik, lamin bat atxeman zuen, biharamunean, lakharen barnean ithoa; ontsa harritu baitzen, sinhesten ahal ere duzuen bezala.

»Nola ez baitzen laminik lur-sainduan ehortzen, zilo bat baratze zolan eginik, han eman zuten lamina; eta, biharamuneko, dena ausin egina zen lamina ehortzi zen tokia; egundaino geroztik ezin garbitu baitzuten toki hura».

* * *

Amak bere ixtorio pullita bururatua du orai. Oro ixil ixila daude sukalde maitean. Tarte batetarik ari, ottia da bakarrik ezagun, hatsantua, lehertua, su-harri handiaren azpian. Azken othe-adarrak intzireka, tiroka, xixtuka ari dira su-phizkian, Oihanaldeko pandero ederrak, beren kobre hori edo gorriekin, untzitegiko zureria pullita, sukaldeko aska handia, bethiko kutxa zaharra dirdiretan emaiten dituztela. Xingar azpi xurien, lukainka eta bipergorri soka luzeen itzalak zein bitxi egiten duen han, paretan! Ezagun da; bururaino errerik, laster hilen dira orai itxinduak. Ixtantean, gauzak eta jendeak ilhunbean ditezke sukalde handian...

Gantxume, amaren altzoan lokartu da hantxet, eta, ametsetarik, laminekin ari da borrokan. Frantxa eta Xaneta, bi aingeru maite bezala, Marieren ondoan, sorbalda sorbaldari kontra, beren buru pullitek elgar hunkitzen dutela, lokartu dira hek ere...

Zizelu xokotik, orduan berean, ezti-eztia huna non mintzo den aita:

«Hots, haurrak, gure othoitza erraitekoa dugu gaur oraino. Iratzar hortik! Haize eta uri, horra zer ditek gaur kanpoan; eta haizearen ondotik, behar bada, elhurra bihar goizean!... Eman gaiten guziak Jainko Jaunaren gerizan!...».

Oro xutitu dira berehala, zoin bere tokian, eta, arrats guziez bezala, goratik, jada, begiak bere arimaren gainerat hetsirik, hasia da Marie: «Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean...».

VII

Maria zaharra

Thomasek erran bezala, elhur egin zuen gau hartan guzian; eta goizalderat amak athe-leihoak ideki zituelarik, bazterrak oro xuri xuria agertu ziren, ikus-ahala urrun. Halako ixiltasun handi bat eroria bezala zen kanpo heien guzien gainera. Etxe-barnean, hala hala, harrabots guti sumatuko zen; barruki-heiatik ethorri marruma ilhun zonbeit doidoia.

Etxearen aldeko gerezi ondoaren kaskoan, eliza-dorreko oilar handiaren pare finkaturik, bere bepazter horien artetik ezker eta eskuin orori beha, bele zahar bat karrankaz ari zen: kroa! kroa! kroa!... Bere goizeko othoitza erranik, jauzian athera zen Gantxume ttikia, eta, pisu pisua, orduan, kolore ederrenez dirdiretan iguzkiak aphaindua, airatu zen bele-kantaria...

«Zure bardako belea, ama!... Bainan, hegal ttikia handitu zaio gau huntan: Behozu anma, beha!».

Han, uhartzearen zola-zolan, beren bizkar handiak zabalduz, xuri xuria ageri ziren mendiak; Larrunek pesta-berrietako aldare eder bat iduri zuen.

Landa, sorbo, sorhopil, baratze, oro, xuri xuria hek ere, mila suz zilarrezatuak ziren, etxearen ondoan; eta irin pullitaren gainean, xori-paparo-gorriak saltoka leihoaren ondoraino heldu ziren, beren aztapar ttikiez elhurra zirrimarratuz dena. Frantxa eta Xaneta ogi-porroxka arthikitzen ari zitzaizkoten.

Elhur legun batek estalirik, bertze batzu eginak ziren herriko etxeak, Senpere guzia sorgin maite batek gau batez mudatu balu bezala, beltz-beltza athe-leioak, xuri xuria gainerateko guziak.

Errota-zaina urrun urrun ikusirik, harritu zen Gantxume eta oihuka hasi berehala, baizik eta, lehenagoko errota-zain xuriaren orde, errota-zain berri bat heldu zitzaiotela, beltz beltza elhur xuriaren gainean.

Oihanean, elhurrez gaineratik oro orratuak, beltz beltza hek ere, ikus zitezken arbola-ondo zaharrak, beso eta ile alimale batzuekilako mamuak iduri.

Tartean, iguzkiak gordatzerat egiten zuen, zeru ilhun, hauts-kolore baten azpian; antzara-basa batzu sistakoan jalitzen ziren hedoiak artetik, eta hedoi hetan berriz suntsitzen, halako karrasi erdoildu batekin.

Athe aintzinean, elhur-ukaldika ari ziren Ganix eta Gantxume...

* * *

Luze iduritu zitzaioten egun hura Oihanaldekoeri. Arratsean halere, lanak oro egin ondoan, elgarrekin goxo goxo goxatu ziren guziak, sukalde beroan, josteta maiteetan haur tikiak, eskuarazko irakurtzeetan bertzeak.

Eskualduna hartu zuen Piarresen, aitak Misionesten lan handiak erraiten dituen liburu gorria, Lurdeko Ama-Birjinaren ixtorioa Ganixek, Ebanjelio Saindua eta Jesu-Kristoren Imitazionea aldiz Mariek eta etxekandreak.

Untzitegi pullitean, gopor xuriek dir dir egiten zuten, eta gopor hetarik airatzerat abian, zazpi koloreetako oilar batzu, beren buztan handiak harro harroa dilindan, kukurukuka ari bezala zitzaizkoten Gantxumeri Frantxari eta Xanetari.

Sukalde xokoan, lau zangoren gainean xut xuta, bethi norapeit abian balitz bezala, orena han zagon, bere kopa luzearen barnean, zurezko kapelu oxkatua buruaren gainean, jendeeri eta gauzeri, orori begi handi batetarik begira. Bigarren begi handi batetarik, beheraxago, harat hunat bazabilan kobre hori borobil bat, tik tak, tik tak, urhats berean bethi. Hainbertze urthe hetan, zonbat oren goxo, zonbat oren ilhun ez zituen joak Oihanaldean, deusetaz durduzatu gabe sekulan! Etxeek arima bat balute? Eta etxeko arima hura han balitz, kopa luze haren barnean?... Edo hobeki, orenaren urhats ilhun hek Jainkoarenganat joan etxeko jendeen hurratsak balire, mixteriozko eskaler batzueri behera heren bethiko etxearen ikustera berriz heldu diren jendeen urhatsak?... Bethi, Gantxume, orenaren aintzinean landatua, han zagon orai, Frantxa eta Xaneta bere ondotik, norbeit edo zerbeit beharbada handik atheratzen ikusiren zutelako beldurrarekin...

Eta hain xuxen, makila-kaska bat athean entzunik, orenaren barnetik mamu bat jali balitzaiote bezenbat harritu ziren haur gaixoak, eta Xuriko, hortzak kirrikan, jauzi batean athera zen mahain azpitik. Bainan, ordukotz, boz samin samin bat ari zitzaioten guzieri:

—Gau on, jendeak, gau on!» eta makila baten gainean bi plegu egina, sukaldean sartu zen Azkenbordako Maria, eskale xaharra; eta, bere etxean izan balitz bezen deskantsuan, joana zen jada supazter-xoko xokoan jartzera, bi eskuak suari berehala... Eta, Mariaren eskalapoinetako elhurra su-harri beroak kuxean urtharazirik, bi ur erreka jali ziren haren zangoetarik.

—Gau on, gau on, Maria! Ongi-ethorria zuri. Aro hitsa hautatu duzu, gaur, Oihanalderat hola ethortzeko... Gopor bat esne harturen duzu, barnetto horren berotzeko...

—Ba, to, ez daiat ezetzik erranen, Thomas. Artho xuritzea zindutela uste nian, egiaren erraiteko. Ez nauk ni, eskalea. Eta badakik adixkide onetarat baizik ez naizela joaiten sekulan. Plazatar horiek berentzat atxik ditzatela beren bi-arditeko txarrak. Jende hobeagorik atxemaiten diat, beharrik, bazter-etxe hautan guzietan. Ah! Thomas, negu borthitza zioak, dorphea zinez ni bezalako xaharrentzat. Bainan ez nauk harritzen ere. Sekulako ametsak eginak ditiat! Eta gero, iragan egun horietan guzietan, nere xakurra dena lausengu heldu zitzaitakan ondorat, gathu milinga bat bezala, nere belhauneri fereka eta fereka! Larrungo ithurriek sekulan ez die dirdiratu, orai zonbeit egun bezala, eta nere hezurretako minak asiki eta asiki ari zitzaiztakan, gauaz eta egunaz! Banindioian, elhur eta horma itsusirik behar ginduela oraino!... Otsoak ere agertu omen dituk hor, Zugarramurdiko kasko horietan!...

—Zaude deskantsu, Maria, ez da gaur otsorik hunarako!...

—Bazukek, Piarres. Bainan ez duk bethi hola izan Senperen, eta nihaurek, haurrean, mihi alimale bat dilindan, begi odolztatu batzuekin larre-hegitik niri begira ikusia diat otsoa. Orai, axeriak balin badira ere non nahi, otsorik bederen ez duk hemen gaindi ageri. Eta gero, ehaiz otsoek izituko luzketen hetarik. Zer muthikoa egina haizen, eta zer Oihanaldeko nausia eginen dukan egun batez! Ahal bezen berent, hatik; ez dea hala, Thomas?... Eta ehintzen bada, haurrean, halako izigarri hetarik. Lapin-buru bat baino gehiago ehintzen eta; hogoita bortz aldiz besoetan ekarri baihaut, sukalde huntan, eta orai ni nagon tokian berean. Gaurko elhur-luma horietarik batto bezen arina kausitzen hindutan. Eta orai, bi erhiekin atxik nindezakek hor, Jainkoaren lorian!

Ah! Oihanaldeko etxe maitea! Haur-haurretik bildua diat etxe garbi hunen amodioa, Piarres, hire amatxi zenarekin batean katixima hemen ikasten nuelarik. Ibarronen, Helbarronen eta Amotzen bezala, Xerora guk deithu atxo xahar bat baginian, Madalen zeritzana; eta arrats gehienetan, Oihanalderat jiten zian Madalen, inguru hautako

zazpi-zortzi bat haurrerik katiximaren erakasteko. Bitxikeria batez orhoitzen ere nauk, to, hortxet, xoko hortan gerthatu bitxikeria batez...

—Hean, hean, Maria, bitxikeria hoi?

—Beraz, gure mendean ez baitzen oraiko argi eder hoitarik ikusten oraino, arraxina-mukizu baten inguruan giniantzian, su-burdin handi hoieri hurbil. Bere kiloa beso-azpian, phiru-phiru ari zian aldiz Madalen, bethitik ongi zakizkan katiximako galdeak guri eginez:

—Girixtino zare?

—Bai, girixtino naiz, Jainkoaren graziaz.

Eta, holaxet baginiatzian, galdez galde, emeki emeki hamar aldiz gauza berak errepikatuz. Hor, bet-betan, ohartu zian Madalen, bere krakoaren ondo-ondoraino errerik, hiltzera zoala arraxina mukizua; eta, bere lanetik piru bat ez nahiz galdu, hortzez eta erhi-muthurrez ixtupa luzatzen zuela, oiuhu egin ziaian:

«Arraxina hori goiti zan!...».

Eta zoroa, ni! Ustez eta katiximatik oraino ari zen gure xerora, dolamen batean ihardetsi nioian:

«Arraxina hori goiti zan».

Hirri bat ezpainetan eta bere buru maitea daldaratzen zuela, halako urrikalmendu bat bozean, zartez erran ziaian:

«Ai, ttula!...».

Eta nik, nere katixima bethi gogoan, deuseri ohartu gabe, errepikatu nioian berehala, ikaretan:

«Ai, ttula!...».

Oihanaldean oro hirriz ari ziren Mariaren atheraldi pullitari. Maite ere zuten aspaldion atxo gaixoa, eta bazakien hoi gure Mariak.

Suari bero eta bero ari zen, gauza guzieri begira, bereak oro izan balitu bezala etxe hartan; eta, kalakari gaitza Jainkoak eginik, ez zen beraz mintzatzetik athertzen.

«Ba, gaixo Oihanaldea, etxe maitea izana hakit eta bethitik: Jainko maitearen etxe bat, gauaz egunaz bezala. Luzaz eta luzaz, sarrailarik ere ez zian hemengo athe handiak, eskualdun etxe gehienetan ohi zen bezala. Bainan gero, orai berrogoita hamar bat urthe, edo hola, Murilloren eta Xirriparen beldurrez, jende guzia izitu zuan hemen gaindi. Atheak hobeki hetsi zituan, eta zuen aitatzik behin baino gehiagotan garbitu dik, erdoaldurik orai, ximiniaren gainean etzanik dagon xixpa hoi. Zer hel ere, gaineraino bethi kargaturik egon duk tresnatto hoi, hortxet, sukalde xokoan...».

—Murilloren eta Xirriparen ixtorioa berriz erran ezaguzu, Maria!

* * *

Bi eskuak bere makilaren gainean finkaturik, hasi zuen Mariak ixtorio lazgarria:

«Beraz, jende maiteak, orai berrogoita hamar bat urthe, Saran, bere sehiekin bera bakarrik bizi zen Ithurbide jaun zaharra.

Arrats batez, aro bat izigarria zen, ihurtzuri eta ximixtak alde guzietarik, mendi guziak orroaz, erraietaraino inharrosiak. Oherakoan, aingeruaren mezuz edo bertzela, sehiak erran zioten etxeko bi muthileri (muthiko gaztea batto, haur bat oraino bertzea): «Zer gaua gaixtaginentzat!». Eta, beldurrarekin, ongi jakin ere gabe zertako, haixturak eman zituen trebesna bere gelako sarrailan. Muthilek aldiz deusik ez.

Gau erditsutan, sullardako leihotik sartu ziren Xirripa eta Murillo. Ezpartinak beherean utzirik, sehiaren atheari lothu ziren lehenik; bainan debaldetan, haixturrek finki barnetik gogor eginik.

Muthilen ganbaralat jo zuten orduan, eta harat orduko, kanit-puñal handi bat tripan sartu muthil zaharrenari. Muthil ttikia, harriturik, jauzian, ixil ixila, gorde zen aldiz ganbarako harmairu batean...

Tripak idekirik, bizkitartean, Murillori saltoan lothu zitzaion muthil gazte dohakabea. Hainitz odol jada galdua izanagatik, nola baitzen izigarri hazkarra, kartzaren pare ari zen Murillorekin borrokan, besoez, aztaparrez eta haginez. Hainbertzetaraino ziren biak elgarri josiak, non ez baitzen Xirripa menturatu heien artean sartzerat. Harritua ere ziteken behar bada...

Muthil gazteak azkenean, errabian, zangoko erhi handia asikian hartu zion Murillori. Murillo orduan erdi flakaturik, saratar muthikoak bi besoetan hartu zuen gaixtagina eta leihotik botatu. Harramantzetat atzarririk, tiroka bere leihotik hasi zen Ithurbide nausia; muthilarenganat hastetik laster egin balu, behar bada, muthiko gaizoa odol-hustu gabe geldituren baitzen eta salbatuko!...

Oihu hek, tiro hek, odol haren ikusteak, edo nik dakita zerk iziturik, leihotik salto egin zuen Xirripak; eta, bertzeak dilindan, herrestan, ahal zuen bezala, nausiaren atheraino joan zen muthiko gaixoa.

Bainan, ez zen nausia idekitzerat atrebitu, eta han berean hil zen muthila; behar bada, artha-eskasean.

Bere gordagiatik orduan athera zen muthil ttikia.

Bainan berantegi, zorigaitzez! Harenganik jakin ziren halere gizon-hiltze hartako xehetasunak.

Biharamunean, Senpere Molereseneko bordariaren andreak (Gixonkieneko Leonen amak), bere aldateirat jautsi zenean, aldatei hartan etzanik ikusi zuen gizon bat, leher egina, eta gordeka bezala herrestan zabilana. Zangoko asikiari ohartu othe zitzaion? Ez naki ke erraiteko, Bainan, nola, bezperaz geroz, Sarako izigarrikeriaz baizik ez baitzen nehon solasik, gogorat jin zitzaion: Murillo zuela han, bere aintzinean. Galde eta galdeka eman zitzaion, eta eskuetarik arras joana zela gizonak erraitearekin, urrikari ukan balu bezala, goiti sukalderrat lagundu zuen. Eta gero, alegia eta su handi baten moldatzen ari, Leon, zortzi urtheiko bere muttikoari ahapetik manatu zioen: zohala laster jandarmetarat, eta erran zezoten: Murillo, kolpaturik, Moleresenean zutela; laster ethor zitezen beraz!!

Joan zen haurra, eta, hura berriz ethorri artean, bere lau urtheiko bertze haur bat lagun, gizon hiltzalearekin bakar bakarrik egon zen bihotz handiko emaztekoa! Atsegin hartu baitzuen, hatik, orenerdi luze baten buruan ethorri zirenean jandarmek, eta ongi mañotaturik Murillo ereman zutenean! Orduan aldixartu omen zen ama gaixoa.

Biharamunean, Saralat ereman zuten gizon hiltzaile biguina. Sekulako jendea bildu zen alde orotarik, eta mehatxu, xixtu eta orroen artean interroatu zuten. Muthil ttikia, ikare daldaretan oraino, ororen kondatzerat agertu zen, eta ezin deus ukatu zuen Murillok; han berean xirxikatu nahi izan baitzuen jendetze harek guziak.

Baionarat, bide-zaharrez ereman zuten gero, segidan, eta bide guzian, karrosa-barnean, españolez bere buruarekin ari aditu zuten jandarmek. Errabia gorrian zen, zeren ez zuten Donianeko bidetik ereman Baionarat! «Han izanen bainuen behar den laguntza guzia!».

Espantuka ari othe zen Murillo, ala egiazki lagunak igurikatzen othe zituen

Donianeko bidean? Nik ez dakit... Handik laster, Baionako Glacisetan lephoa moztu zioten.

Xirriparen egiazko berririk ez da sekulan agertu. Diote batzuek Ameriketarat ihes egin zuela. Bainan, luzaz eta luzaz, Xirripaz baizik ez zen nehor mintzo. Batek hemen ikusi, bertzeak han. Zinez ikaretan zauden bazter guziak, eta Menta zenak, berriki orduan ethorri jaun erretorak, orai oraino han den alimaleko burdinmarra bat emanarazi zuen bere athe handiaren giblean. Ilhunaz geroz, ez zen gathurik ere ageri Senpereko karrikan, eta, igande arratsetan, ez zen segurki erretira jotze beharrik, jendearen etxerat igortzeko.

Egia edo gezurra, diote oraino, handik laster. Dihurzibehere mirikua, bidezaharrez, Zirikolatzeko parrean, gau batez karrosan heldu zelarik, serora bat kausitu zuela bidean. Karrosarat igaitea serorak galdeginik, baietz onhartu omen zion mirikuak. Bainan, bere puska batzu Serorak eman nahi izan zituelarik karrosan, Dihurzibehere jaunak gizon-esku batzu ikusi ziozkan delako serorari. Burdin-harrabots bat gero puska hek eginik karrosa zolan, izitu zen gure jaun mirikua, eta zaldia finki azotaturik, ez zen toki hetarik nahi baino lasterrago urrundu. Zapartaka Senpererat heldu zenean eta Seroraren puskak miatu zituenean, kanit, puñal eta pixtoletik baizik ez zuen kausitu oihalaren barnean... Egun hartarik harat, ez omen zitzaion karrosan tokirik galdatu behar Dihurzibehere mirikuari. Jaun aphezpikuari berari ezetz erranen zion eta!...».

* * *

Ixtorio izigarria Mariak bururatzean, han zirenak oro ixil ixila gelditu ziren, Maria bera ere ixilik zagon. Guzien gogoak han zabiltzan Saran, Molereseanean, zirikolatzan.

Hainbertzenarekin hamar orenak jo zuten sukalde xokoan, eta intzireka xutitu zen Maria:

—Atx! Atx!... Ez da oraiko errana, xahartuta Atx erraiten dela jartzean, Atx! Atx! aldiz, xutitzean!... Jainkoak dauzuela gau on, jende maiteak!...

—Berant ez othe da gaur goiti zuretzat, Maria?

—Zer munta du, eta noren beldur behar naiz? Sorginen?... Bakharrak baitut ikusirik nere bizian aireko horietarik, intha guzietan, eta bethi gauaz!... Ez dute nere gainean ahalik! Sorgina ez naiza nihaur?

—Oihanaldean ez, segurki, zure motto pullitaren barnean ileak hola bildurik. Bainan, han, zure etxeño hartan, ile hoik alde guzietara dilindan, zure laneko soinekoetan agertzen ziren aldietan!... Zu baino pullitagorik bada orduan non nahi, Maria!...

—Behozue, behozue, Piarres ozarrari! Hots, berriz ikus arte, haurrak.

Eta hirriz urrundu zitzaioten Maria. Bainan, hamar urhats gabe, maiz hola egiten ere zuen bezala, berriz han zuten, gibelerat itzulia:

—Errak, Piarres, jakintzak gero, girixtino on bat nahi dela bethi Maria. Ur benedikatuarekin ongi zeinaturik baizen ez nauk behin ere joan nere kamantzarat, eta supazter-xokoan han dituk ene bethiko liburuak: Testament Zaharra eta Sainduen Bizitzea... Gero arte, Piarres! Arrosarioak eskuan banioak etxera... Errak, eta, pipita beltz bat ikusi baitiot ostixoan zuen kandelari, noren letra behar duk, bihar, Piarres?...

Eta, xafla xafla bere makilaren gainean finkatuz, elhurraren gainean lerratuz, gau ilhunean suntsitu zen Maria. Eta, atxoak hola sistaturik, hirriz bere buruarekin gelditu zen Piarres. Letra bat? Norenganik?... Eta berak jakin ere gabe zertako, gorri gorria egin zen, Lizartzako Goañaz bet betan orhoiturik...

Arratseko othoitza errana zuten orai orok, etxe guzia gerizatu nahi zuen Familia Sainduaren iduri pullit baten aintzinean, eta Marie azken ahapaldian ari zen:

«Mahuma, mahuma, ez nuk hire beldur;
Jainkoarekin etzaten nuk,
Ama Birjinarekin jaikitzen nuk,
Bi angeru ditiat ene sahetsean;
Ez hakitala atrebi othoitzean,
Ez loan, ez ametsean;
Jesus diat ene bihotzean!».

«Banoa loaren hartzera;
Jesus zure izenean, gau eta egun!
Jauna, zure odol dibinoaz erosi nauzunaz munduan,
Arren, errezebi nezazu hil et'ondoan zeruan!
Jainko ona, othoi eman ezadazu
Zure benedizione saindua,
Zutaz entzuna izaiteko grazia! Hala biz».

Oheratekoan, bertze ordur ere baino maitekiago hartu zuten orok ur benedikatua, Bithotz-Sakratuaren azpian, sukaldeko athearen ondoan dilindan bethitik zagon untzi xuriurdin eta horian. Murilloz orhoit ziren alabainan!

Kanpoan —Mariaren sorginkeriak harek ere ongi aditu balitu bezala— Xuriko ari zen sainga eta sainga ilhargiari, aztieri eta gizon-hiltzaileeri...

VIII

Artho-xuritzen

Urthe berri bezpera zen. Gau bat ederra. Ohidura xaharrak begiratu beharrez, turrutari bat lagun harturik, herriko-muthila, athez-athe zabilan, bas-herrietan. Heien atabala-turrutak adi zitezken urrunera, gain hetako xakurrak oro asalduetan emaiten zituztela.

Lerro, lerro, bat bertzearen ondotik, hauzoak heldu ziren Oihanaldera. Inthari gora, bixi bixia ernatzen ziren, ezen elhurra hormatua zen oraino gain hetan guzietan, eta eskalapoinen azpian kurrusk kurrusk kriskatzen zitzaieten. Beharrik ez zuten urrun joaiterik, Oihanaldeko Gaxuxak, egundainotik, lehen auzoak baizik ez zituelakotz nahi beren artho-xuritzetan. Sobera emazteki zuhurra zen gazte arin guzien etxerat ekarrarazteko.

Sukaldean bildurik, xutik gizonak, jarririk emaztekiak, kafe xorta baten edaten ari ziren, barnearen berotzeko, lanari lothu aintzinean.

Eta orai, selauruan zoin bere tokian moldaturik, bideak, hormak eta edari beroak gorri gorria eginak, trenpurik goxoenean hasiak ziren oro. Piarresak, hiru-hortzarekin artho andana bat jautsarazi zuen artho-xuritzale bakotxaren aintzineran. Eta hirriz, berehala, guziak eman zitzaizkon erasian, baizik eta bertzeeri baino gutiago lan hedatu ziotela Goaña Lizartzakoari eta haren amari. Alegia samur egin zuen orduan Piarresak, bainan, bere bihotzaren zolan sumatu zuen atsegin egiazki zuela, Lizartzako andreak Goaña Oihanalderat gau hartan berekin ekarririk.

Erreguko bi saski handi han zituzten aintzinean, artho buru ederrak, hori edo gorri gorria, hetarat arthikitzeke. Eta, zinezko eskualdunak eta beraz oro guti aski pilotariak izaki, buru bakhar batzu doi doa ziren erortzen saski handietarik kanpo; burla eta hirririk aski baitzuen orduan hola herrebes izatu zenak.

Bihi baino korbutxa gehiago zuten artho-buru txarrak arthikiak ziren aldiz bertze saski batetara, behiek gero, neguan, lorietan janen baitzituzten.

Emaztekiak, gehienak —beren behatzak ez ahitzeko— othe-adarrez eginikako xiriekin ari ziren; gizonak aldiz, sanoki, lan gogorrenetan sorhaiotu erhiekin. Eta, guziek, hostoak bururaino ideki ondoan, hosto hek sorbalda gainetik botatzen zituzten brixakoan, beren xangar ttikiekin. Meta handi egiten zen horrela artho xuritzaleen gibelean, behieri geroan janaraztekoak hek ere.

Hotzik ez zuen orai nehork barne hartan, eta hirria hirriaren ondotik zabilan, selauru handian. Jada, bere boz maitea, lepho luxe batean, mahasti-aihana bezala kurumilkatuz, Janpiarre hasia zen kantuz:

«Artho xuri xuri bi bahetan pasatu...».

Bainan, berehala, Gaxuxak, Oihanaldeko etxekandreak, ezti eztia erran zion bere xokotik:

«Bertze zerbeit emaguk, othoi, Janpiarre. Ez dakitalarik ongi, uste diat ez den pullitenetarik hik orai eman dukan hoi... eta hemen baituk, gaur, gazteak eta haurrak ere bai».

Eta, gehiagokorik gabe, gogorik hoberenean, hasi zen beraz Janpiarre:

«Aitak, eman daut dotea,
Neurea, neurea!
Urdeño bat bere umekin,
Oilo koloka bere xitoekin,
Tipula korda heiekin.
Tipula korda heiekin!

Otsoak jan daut urdea,
Neurea, neurea!
Axerriak oilo koloka,
Garratoinak tipula korda;
Adios neure dotea!
Adios neure dotea!».

Eta guziek betan, Janpiarrerren ondotik eman zuten errepika pullita.

Hain xuxen, saskiak berriz ere mukurru bethak zirelaketz, bizkarrean biek betan hartu zituzten Bixentek eta Piarresek. Eta, bertze selaururat, idortzerat, saski hetako arthoak eremaiterekin, Bixentek hirri zafla batean erran zion Piarresi:

«Urdeño, oilo-kolokaz eta tipula-sokaz bertzerik badukek egun batez, nik dakidan etxeko-alaba on bati, eskaintzeko!...».

Eta guziek maiteki hirri egin zuten selauruan.

* * *

Bizkitartean, Marie oihuz eman zen bet-betan:

—Ikuxi mikuxi!

—Zer ikuxi?

—Bi edari untzi batean?

—Gorringoa eta xuringoa arroltze-kuskuan.

—Epez dupuzupuepelapa apasmapatzepen zeper depen?

—Epez!

—Bethi bustia, bethi atherbean? Zer da?...

—Mihia aho-barnean.

-Ba! oro badakizkatzue eta. Hean hean, Bixente, artho-xuritzeetako ixtorio bat pullita?...

—Berehala, Marie, nere pipattoa belhar-hostoz koka-ahala betheta.

Eta Bixente, bere su-koparen drundari pipa pizturik, pafa pafa ari zen, Janpiarrerri beha eta beha, halako hirri maltzur batean.

—Zer duzu bada niri hola hirriz artzeko, Bixente?

—To, hire eskuineko galtzari beihaunera behatu eta, gogorat heldu baitzaut Mariek galdatu ixtorioa...

Beraz, bertzorduz, hantxet, Xuberoan, Mauleko jaunxkila batzuk menditik heldu ikusi zuten Piarreñi deitzen zuten gizon bat. Eta, salbu zuek eta, Piarreñi heldu zitzaieten bere galtza bat belhaunetik xilo; eta belhaun-xilo hartarik, leiho batetarik bezala, belhaun-kosko bat ageri zen laatzaz bezen beltz. Alabainan, ithurri gutti kausitu zuen Piarreñik mendian, eta orduan, bere belhauna batere garbitu gabe atxikia zuen zenbeit hilabete

hetan guzietan.

Hirriz eman zitzaizkon beraz jaunxkila aizinatuak; hirriz eta oihuka:

—Errak to, Piarreñi, ahalke ere behar huke, hire belhaunarekin hola karrikarat agertzeko... Fu, zikin!.

Piarreñi kexatu eta oihuka hasi hura ere:

—Zer, zikin eta mikin? Moko xuriak zuek!... Bi bost liberako jokatzan ditut eta, belhaun zikinagorik badaitela gure konpainian...

—Ez alafede, Piarreñi.

—Bi bost liberako, hots?

—Eiñak dituk...

Eta, jaun hek guziak, kurturik, beren galtzen altxatzen eman ziren berehala; eta xuri xuria agertu ziren hango belhaunak oro, belhaun batzu arras muñuñak; hots, Senpereko belhaun zonbeit baino pullitagoak.

Piarreñik, orduan, zilorik gabeko bere bigarren galtza goititu zuen pulliki; pulliki, eta belhaun bat agertu zuen, pandero-gibelik beltzena baino beltzagokoa, han zirenak oro oihuka eman baitziren berehala. Hirri maltzur batean ari zitzaioten orai Piarreñi, guzieri galdeka:

—Eta hau ez zena hemen, ez zena konpainian? Hunen gainean ez othe da Piarreñi finkatzen, ongarriaren erdian behiak deitzen dituelarik? Bi bost liberakoak galduak ditzue jaunak; hean hunat nork emanen dazkidatan?...

Hirriz usteldurik, eman ziozkaten beraz Piarreñiri hain ongi beretuak zituen duroak; eta handik harat, ez omen zion nehork ulitxarik Piarreñiri khendu nahi Mauleko karriketan.

—Horra, Janpiarre, zer heldu zitzautan gogora, hire belhaunari behatu eta. Hik ere, eskuineko belhaunaren gainean bat zikindua izanagatik, ez duk xilorik galtzetan, eta segur nauk hire belhaunak ere ongixko garbitzen ditukala.

—Arrats gehienetan, Bixente, af ldu eta oheratekoan; ongi unhatu eta, oraino ere bainago deus hobeagorik othe den langilearentzat?"

Artho-xuritzaleak beren hirri-karkaratik geldituxe zirenean, Gaxuxak, ezpainak zimurturik, jostetan erran zion Bixenteri:

—Ah! Bixente, badela hatik gizon zikinik bazterretan!

—Bai eta andre alferrik ere bai, Gaxuxa...

—Emaztekien aldi duguia beraz orai? Hean, hean?

—Bai emaztekien aldi, eta uste ez baduzue ere, nik erranen zueri noizez geroz dugun kukusoa lurgainean...

Orai duela aspaldi, Hergaraiko gain horietan, omen zen beraz ithurri bat hauta, Ur-onlloa deitzen zutena. Ur-onttoari hurbil, eta kasik Ur-onttoan bizi ohi zen emazteki bat alferra... bainan alferra! Zotza, hots! Deus fitsik ez omen zuen egiten sekulan, Ur-onttotik hurrup eta klik bizi izan balitz bezala.

Hura alfer-zotz hola ikusteaz okaztatu zen azkenean Jainko maitea, eta andre higuina zerbeitetan bermarazi beharrez, egin zituen beraz... lehenbiziko bi kukusoak. Eta ixtanteko sortu ziren bertze sekulakoak. Handik harat, lan izan zuen emaztekiak, bederen kukuso miatzen. Zorigaitzez, ez zituen oro hil —hain zen alferra!— eta Ur-onttoaren aldean iragan gizon eta emazteki guzien gainera jauzi egin zuten kukusoen, eta orai, badira bazter guzietan ilumina.

Gaxuxa eta haren lagunak hirriz ari ziren maiteki; batere hasarretu gabe. Iduri ere

zitzaioten —zer diren hatik ametsak!— Ur-onttoko kukusoak, artho-xurikinetarik, purru purtu jin behar zitzaizkotela guzieri gainera.

* * *

Lana bururatua zuten bizkitartean. Bulta hartan jada, etxekandrea itzulia zen bere Marierekin batean. Eta orai, artho-xuritzaleak oro sukaldean ari ziren, deskantsorik maiteenean, ogi eta gasna ahamen baten jaten. Gaxuxak ez zuen xinkorkeriarik nahi Oihanaldean, guziz langileentzat. Eta sagar-arno hoberenetik ari ziren oro, gaztena gozo gozo batzu zintzurrari behera igorri beharrez. Gosetuak ere ziren, hotzak eta lanak hortzak xorroxturik. Esne xorta bat hartu zuten oraino lorietan, eta gero xutitu guziak, zoin beren etxeetararat joan beharrez.

Athe handia zabaldu zeneko, haize mehe bat firurikan sartu zen Oihanaldean, etxekandrearen baimenikan batere gabe, eta, gau on halako hotz-ikare batean erranik, joan ziren oro kanporat.

Heien eskalapoin-azantzeri bulla bat beha egon zen Piarres, bizkarrez atheari. Landa, sorho, ibarrak elhurrez xurituak, argi, argia, han zituen aintzinean, ilhargi-bethearen azpian. Oihanak, xarak, berro-sasiak aldiz, egunaz ere baino beltzago ageri ziren orai. Ur-handia, suge ilhun alimale bat bezala, bazoan, bere bethiko bidean, orroaz urrunerat suma zitaken itsasoari buruz, aphal aphala, herrestan. Olhasoko, Hergaraiko, Amotzko, Helbarrungo mendiskak, hauts kolore, eder ziren alderdi guzietan; eta han, uhartzean, Santa Barbarak iduri zuen Larune handiaren mendi-kume bat.

Izar arte xoragarrienaren erdian, Jon Doni Jakoberen bidetik ezker, Errege-Magoer eta Oilo-kolokari aski hurbil, ilhargia, hotz hotza, bainan izigarri eder, beha zagon berak haie ongi aphaintzen zuen kanpo hari guziari. Piarresi ere ez othe zion gain hartarik behatzen?... Oihanaldearen gainerat heldu zen orai, ixil ixila lerratuz, zeru urdinean igerika bezala. Eta, muthil gazteak ikusten zuen, han, ilhargi hartan, duela bi mila urthe edo hurbil, igandekari lanean arizanik, airean hartua eta eremana izan zen gizon dohakabea, bere egurzama zorigaitzekoa bizkarrean.

Errege Zalomonen xakur-ihiztariak ere, sainga eta sainga iragaiten, sumatu zituen zeru goren-gorenean.

Horma ikaragarria ari zuen airean, lurrean, orotan.

Bainan horma eta hotzari ohartu ere ez zen Piarres; eta, Oihanaldean sartu zen, ikare goxo eta garbi batekin, Lizartzako alderat azken behako maite bat luze luzea igorririk.

IX

Udaberria

Egun hartarik, bihotza kantari bazabilan beraz Piarres Oihanaldekoa. Mundua mundu egin den tenore hartaz geroztik, Jainkoak berak gehieneri erakatsi kantu garbia jali zitzaion, bihotz xoko xokoan...

Eta hala hala, handik laster, bazterrak oro kantuz hasi ziren hek ere, dudarik gabe Piarresen bihotzak bezala egiteko.

Udaberria heldu zen, dena musker, ferde ferdea, dena maitetasun. Iduri zuen, han, bere barne hartan, zainak oro hantzen ari zitzaizkola Eskual-Herriko lurrari, eta lur harek, ama on baten pare, bere ditia emaiten ziotela gauza guziera, guziera betan. Mila harrabots suma zitezken jada, landa, sorho, larretan, axaetik hurbil, xinhaurri mixteriozko batzu, aztaparka, kanporat beharrez ari balire bezala. Sahatsak, zur-xuriak muskiltzen jada hasiak ziren, urbazterretan.

Haize-hegoa firurikan heldu zen Nafarroako mendi handier beheara, iguzkiaren musu bero bero bat berekin zakarkela, eta musu harekin mendiak maiteki mastakaturik, mendi heieri beren soin xuri pullita urtarazten ziotela. Nork erran du bada, Eskual-Herriko sorgin bat dela haize hegoa? Bai, sorgina; bainan sorginetan maiteena, uda-berrian, uda-azkenean bezala, oro maiteak egiten dituen sorgina.

Hegoa firurikan mendi bazterretan;
Odola harrotzen du orori zainetan:
Dantza piko bat niro eman, lorietan!
(J. B.)

* * *

Bainan, sorginkeria guziak pekatu behar mundu huntan! Mendietako elhurak oro huna orai, harrokeri beheiti burrunbaka, jauzteka. Eta beheko haran, ibar eta zelaiak hunkitu orduko, berehala, eta gaitzituak izan balire bezala, beltz beltza egiten ziren, eta hasarre gaitzean emaiten. Gaixtatuak zinez, oro bazeramazkaten berekin itsaso samurrari buruz, lurak larrutuz asikian, arbolak errotik eremanez, errabia gorrian. Phago handi batzu, luze luzea heldu ziren, erroak aintzin, hainbertze urthez aztaparkatu zuten lur maitea berekin oraino garreiatuz.

Osin-zilo handietarat heltzen zirenean, sahaska kurumilkatzen ziren, beren adar eta aldaskak ile handi batzu bezala luzatuz, ile hek elgarrekin nahasiz. Bet betan, xut xuta emaiten ziren, Basajauna iduri, leihorretarat berriz igan nahi balute bezala. Eta gero, ur handiak berriz hartuak eta iretsiak, zehatuak bazoazin, errobiak norat ere nahi baitzuen eta harat.

Eta Piarresen, ur-bazterrean phago handieri begira bulta bat egonik, bere buruarekin egin zuen, zuhaitz handienak errobiak bezala, gizonik hazkarrenak —gogo-kontra balinbada ere— deramazkala biziak, edo hobeki Jainkoak. Eta ilhundura zerbeit sartu zitzaion bihotzean; bainan, gizonago sumatu zuen bere burua, girixtinoago bere arima. Jainkoak lur hunen gainean zabaltzen duen liburuan irakurtzen holaxet ikasten ari zen, egun guziez pitta bat gehiago.

Urak sartu ziren gero, handik aski laster. Otsailean jada, usainik gabeko lore urdin brioletak heldu ziren non nahi, eskualdun lurra ikusi nahiz, zango mehar batzuen gainean luxatuz. Martxoan, Andredena-Mari lili ttikiak, xuri, hori eta gorri; hala hala, begi-handiak idi-mihiak, eta suge-belharrak. Neguan baino pullitago eta muskerrago beren buruak eginez, arbola ondoetan, intha bazterretan agerian emaiten ziren orai xirak eta gooldiak. Xira hoik partida zituen Piarressek, arbolaren odol-jale batzuentzat zauzkalakotz, eta puda ukaldi bat baino gehiago emaiten zioten, ahal zuen aldi guzietan. Zonbat jende, lur gainean, xira bezala bertzeen gostuz bizi direnak, bertze hoier odola jaten diotela egun oroz!...

Paparo-gorriez bertze xoririk ageri zen orai bazterretan. Tiu, tiu, tiu, okila, sistakoan, bazabilan arbola batetarik bertzera, ametz-ondoeri mokoaz kaskaka, larru-axalaren azpian mamutxa zerbeit atxeman beharrez, edo orobat —behar bada— arbola baten barnean mila urthe huntan preso gathibu omen dagon basa-anderea handik athera beharrez...

Xuri eta beltx, fika batzu, beren buztan luzearekin bethi leiretan ari, hasiak ziren zur-xuri baten kasko kaskoan beren ohantze handia egin beharrez. Alderdi guzietara beha lehenik egon eta, heldu ziren biak ondo hetara, eta gero hetarik batto, jauzi eta jauzi, adarrez adar bazoan, aldaska ttiki batez, mokotara bat belharrez edo lasto horiz kafe-ohantzea moldatzen zuela eta hedatzen. Eta bere laguna, bertze zuhaitz baten gainean finkaturik, karrankaz emaiten zitzaion, deskantsuz ar zitekela lanean, eskolako muthiko tzarrik ez zela han gaindi ezagun... Ez zituen Gantxumek ikusten!...

Iñhara bat firurikan iragan zitzaion aintzinetik Piarresi, eta orhoitu zen muthil gaztea ez duela ñnhara batek egiten udaberria!...

Eta, hala hala, gibelerat egin bezala zuen udaberriak. Kanderailu bero, negua... gero, maiz gerthatzen ohi den bezala. Mendeala heldu zen abre, itsusi, izigarri. Hosto handirik gabeko arbolak, lurreraino kurturik, intzireka ari ziren ibar-kaskoetan; eta, burrunbaka, heien adar beltzen artean zirurikatuz heldu zen haizeak bazuen orro eta ziztu, Jainko handiaren organoak oro betan ari zirela erranen baitzinuten. Urite itsusiak egin zituen: uharrak uharren gainera, baazuza xeheak, harri larriak ere ba. Urthe hartan, Ihauteriz, nekaitz itsusienaren erdian ibili zen Gaxien putzu egilea, bere gerren luzean puskaz zer nahi gain gaineraino sistaturik: Xingar eta arroltze, bat edo bertze...

Eta, gero, bet-betan, goiz batez zirimola hura guzia tanpez huna gelditu zitzaioleta. Ixiltasun handi bat erori zen kanpo heien gainera, eta primadera-xori ttiki ttikien kantu arinak berriz aditu ziren. Uli-xori eta xirrixkilak, errege-pittittak, sasiz sasi abiatu ziren, eta berriz phiztu ziren bazterrak, erhotuak, galdu egunak oro gibeletik atxeman nahi ukan baluzte bezala.

Andredena Maria Martxoko...
Behiak larrean aseko,
Kaikua esnez betheko.

Horra zer zion Piarressek, bere behiak larrerat Andredena Maria goizean ereman zituelarik; eta Katzok ez zion batere ihardetsi:

«Muuu! Muuu!
Kontu Erramu!...».

Erramu iragan zen, eta Gorriak, Katzok eta bertzeek, xahako xuri eder eta handi batzuen iduriko errapeak ekartzen zituzten, arrats guzietz, Oihanaldeko larre gizenetarik.

* * *

Egun batez, zortzi orenak irian, sekulako birrinbili barranbala eraiki zen bet-betan. Santiago, herriko muthila, bere atabalarekin, harat-hunat bazabilan karrika buru batetik, bertzera: plan ran plan, plan ran plan!... Piarrex, bixi bixia, samin samina, eliza-dorreen ari zen bere ezkilari joka: dan dan dan, dan dan dan... Eta alderdi guzietarik heldu ziren orai gizonak, zoin bere sardiarekin edo palarekin.

—Non da su?

—Hantxet, Erreka-Luzen!

Jotzen ezkila, dardaratzen atabala entzunik, egun hartan aski bederen bazutela eginik, bordalderik ez zutela berdin Erreka-Luzen, plazatarrak gozo gozoa gelditu ziren karrikan, athe aintzinean kalaka gorrian bulta bat goxaturik. Guarda zonbeit bazoazin bizkitartean eta jandarma zonbeit ere bai, Olhaso-kaskoari buruz.

Heiekilan batean kasik, beren makilak eskuan, bazoazin ere jaun erretora eta jaun bikarioa. Berriki orduan ethorria ere zelakotz, erretor gaizoari, hirri-egiteko bezala, ez ziona jaun bikario maltzurak sinhetsarazi edo bederen sinhesterat utzi, baizik eta Erreka-Luzea bordari on batzuen bizitegia zitekela? Ez zion hola erran, nahi baduzue, bainan, ondo ondoraino enganatzerat utzi zuen, eta lorietan!

Su-tokirat zonbeit gizonekin jada helduak, haizkorak eskuan, zapartaka lanean ari ziren oihan-zainak. Suari berea eman behar zitzaion, tokiaren gainean suntsi zadien; eta gero, su hori behar zen geldiarazi, inguruan lasterrez eginen zioten muga batean. Jainkoak itsaso handiari bezala, behar zitzaion erran: «Horradino ethorriren haiz; ez ordean urrunago!».

Zorionez, ur-erreka ttiki bat erasian heldu zen oihanbizkarrari behera, suari harek eginen baitzion ezin iraganen zuen muga hezea. Erreka haren hunaindian, oihan-zainek hola manaturik, eman ziren gizonak oro, beren sardi, pala eta ostaila bustiak eskuan. Bere sotana gerriraino altxaturik, bikario gaztea aldean eman zitzaioten.

Jaun erretora ere nahi izan zen moldatu heien erdian. Erremu-igandekoa ez bezalako ostaila handi bat eskuan, han zagon, tente potente, bertzeek eginen zutena berak eginen zuelako ustekerian. Bainan, Piarresen, frango maiteki kendu zion ostaila izigarria, eta bertzeak oro, hirriz, oihuka eman zitzaizkon: «Ez, jaun erretora, ez! Ez zinakike! Bego lana guretzat. Nehork min har baleza halere, atsegin dugu gurekin hor baitzitezke. Herriko erretorik egundaino ez ahal da ikusi Erreka-Luzen edo Zirikolatzen, su hiltzerat hola ethorri erretorik bederen...».

Haize-hego burrunba izigarri batean heldu zen bizkitartean sua, su bat zinez lazgarria. Oihanak, han, imitua bezalako zilo handi bat egiten ere zuelakotz, itsaso bat erranen zinuten. Dena su, dena gar, dena khe! Haizeak bultaka kurtzen zituen su-lama ikaragarriak, eta gero, berriz, ametz handienak baino gorago altxatzen ziren, erhotuak, ziztuka, ortzi ilhun ilhun baten karraska berarekin. Berhoak, sasiak, ametz gazteak, haitz-zaharrenak berak, errabian inguratuak ziren, setiatuak alde orotarik eta gero xirtxikatuak, irtsia, burdinolhetan lur ilhunak erakitzen ohi diren bezala. Ifernua ez othe zen, han, zilo handi hartan?

Eta orai, suzko itsasoa han zuten, hogoi urhatsetan, pareta gorri gorri bat bezala

heldu, zinez izigarria. Bero bat eraikia zen ezin jasanezkoa, bafadaka heldu zen beroa. Gizonetarik bat gibeletik su-lamek inguraturik, doi doiak egin zuen ez baitzen hantxet gelditu, begien hesteko artean. Beharrik aski tenorez oihu egin zioten lagunak eta esku eman ere zalukara. Eta jaun erretorak orduan ikusi zuen, jostetarik etzela suarekin, eta zuhur eta erdi izan zirela haren jendeak, gibelerat maiteki igorri hala zutelarik. Doi doiak ere egin zuen bertzalde, ez baitzen Leon gaizoa othoitz zerbeiten beharretan hantxet aurkitu, hain hurbil danik suak inguratu zuelarik...

Bizkitartean, haizkoraz arthiki arbolen aintzinean, hautsi, kraskatu bezala zen su izigarria. Bere buruaren jaten ari zen orai tokiaren gainean, ur-errekak han geldiarazia, ostaila, sardi eta pala ukaldika gizonak zapatua, lehertua. Han, bere giblean, azken arbolak —handienak— karraskan ari ziren ondarreraino suntsitzen. Ortzi-azantza ematua zen. Hazkurrik gehiago aintzinean ez kausitzen, eta azken hexurren murxatzen ari zen orai su ikaragarria, ñastaka, intzireka; milaka phindarrak igortzen zituen halere, noizetik eta noizera, bere parra osoki iragana ez balu bezala.

Phindar heien hiltzen, oren batez oraino egon ziren gizonak; eta gero, izerditan, joan ziren zoin beren etxeetara, pala eta sardi berotuak bizkarrean. Heien giblean, eta bizpahiru oren lehenago oihan heze ederra zen tokian, ez zen gehiago hauts zuri eta beltz alimale bat baizik ageri, eskuetan zinez erre nahi zuen hauts itsusi bat. Tiut eta tiut, intzireka, alderdi guzietarat hegaldaka zoazila, ikus zitezken oihaneko xori maiteak, beren ohantze tokiak galdurik, osoki ohilduak. Jandarmak, oihan-zainak han zauden, ur-errekari hurbil xut xuta, zer nahi gertha ere geldituak. Jaun erretora jautsi zen herrirat, bere bikario maltzurarekin eta ongi nekatuak ziren guarda zonbeitekin. Bere gostuz ikasia zuen gaur goiti, etxe gutixko zela Erreka-Luzen. Burla zerbeit egin ere zioten maiteki bidean. Bainan, gero, orok elgarrekin, arno-xuri on xorta bat lorietan edan zuten aphez-etxean, eta bakeak frango errexxi egin ziren.

Piarresen, Oihanaldeko muthurretik, behatu zion berriz oraino Erreka-Luzetik heldu zen khe beltz itsusiari; eta, egun hartan, ongi buruan hartu zuen, zer kalteak ekar dezazken batzuetan, bazka berriaren jinarazteko phiztu den su ttiki ttiki batek. Non phiztu den jakiten ohi da; ez ordean non den geldituko, edo zer desmasiak eginik bazterretan!...

* * *

Aphirila jina zen, eta ez (urthe hartan) hain biribila. Nehor guti zagon etxean... hila. Gerezi ondoen gainean, pinpirinak idekitzera zoazin. Elhorri beltza, elhorri xuria geroxago, lore pullit pullit batzuz estali ziren; merxikak gorri gorria egin bazterretan. Kukua kantuz ari zen oihanetik; Piarresen zalu zalua miatu zuen bere moltsa... Eta diru zerbeit han kausiturik, hirri bat jin zitzaion ezpainetara: urtheko diru bazukeela beraz etxean, erran zahar maitearen arabera. Eta hala hala, pottokaz leherra ez zena bethi heldu Zugaramurdiko gain hetara? Pottoka hetarik zonbeit ez zituena, berriki oraino, lephorainoko uretik hantxet iraganarazi, zubiaren zain guardak zaudelarik!... Bazterrak ere ez zirena oro xoragarri heldu, Oihanaldearen inguruan?... Bai, kantazak, kanta, kukua: kuku, kuku!

Ithurriak, ur-errekak, erasiaka heldu ziren mendiari beheiti, mixteriozko gauza maite maite batzu, negu luze hartako gauza maite batzu, mur, mur, mur elgarri salatuz.

Mahasti haintzurrean ari ziren orotan, Ibarrarteko paretan, Xerrendan, Amotzen, Helbarronen, Ibarronen; eta gorri gorria egin ziren herriko mendi-paretak. Thomas,

Piarres, Ganix karraskan hasi ziren hek ere Oihanaldeko kaskoan, bertzeak bezenbat izan beharrez.

Berho-sasietan, arbola guzietan, xoriak ari ziren hek ere, sukar batean, beren ohantze ttikien moldatzen. Maiatza heldu zen; beraz ernatu behar! Kardinale pullit pullit batzu, xuri eta gorri beren moko ondoak, hori eta beltz beren hegalak, multxoka bazoazin merxika ondo batetara lehenik, bertze batetara gero, elgar atxemanka, sekulako erasietan: petti, petti, petti.

Mahasti-lerro batean, xoxo eder batek, bere moko horia doi doi idekitzen zuela, Ganixi ikasi Phesta-Berrietako turruta aireak xixtu eta xixtu xoxo lagun maite bati emaiten ziozkan.

Liztor itsusi batzu, maltzur-maltzurra heldu ziren, etxe-mahatsari hurbil, hegazpe zoko batean beren kafe-ohantzeak egin beharrez: urrian gero, mahatsez zer aseak, zer horditzeak ez zituzten bada eginen!

Zer iguzki-sartzeak, arrats guziez! Dena urhe; gorri gorria; urdin urdina gero, lilluraturik behar baitzen egon, heieri beha eta beha! Eta —baitiote, gure laborariek behako bat ere sekulan emaiten ez diotela holako ikusgarrieri— Piarres ikus ziteken han, mixteriozko gauza heieri beha, luzaz egoki... Gogoetan gelditurik, bazagon hantxet, heien egileaz, Jainko handiaz orhoitua; orhoitua ere, bera munduratu gabe, gauza hek, toki berean, harek bezala ikusi zituzten eskualdunez... Itsasoan uhainen ondotik uhainak bezala, hilen ondotik bethi heldu biziak; eta oro, Jainko beraren oinetarat, lerro lerro gaki, gauza eder heien guzien egilearenganat!...

* * *

Urtheko lan handiak hasiera zoazin, eta laster. Etxean, gauzak oro moldatzen ari ziren lan heieri buruz. Tresneri, giderreri, uhaleri azken begi-ukaldi bat emana zioten Thomasek, Piarresek; eta orai, arthoen egiten ari ziren.

Egin zezala gero.

Maiatza urite,
Errearoa erhauste,
Urthea izaiteko ogite,

Anhartean, maiatzeko uri uharrak jautsi baino lehen, arthoak xitamiru egiten ziren. San Mark egunean, nihon bilha ibili gabe, aziak han zituzten emanak, erran xaharrak nahi duen bezala. Thomas, Marres, Ganix, trenpurik hoberenean, zoin gehiagoka lothuak ziren lanari, eta Marie, Oihanaldeko alaba maitea, bederazka bederazka artho-bihiak erainez ari zen, mixteriozko arrosario bat erraiten balu bezala beren alhor gizenaren gainera. Udaberriko loria guzia han zuten gainean. Eta sarri, udazkenean, zer arthoak selauruetan!

Senpereko uztarik ederrena arthoa izanagatik, bizkitartean, ez ziozkaten arthoak beren ogiak ahantzarazten; eta Oihanaldean, ez bazen bethi martxoko urguilu-jorrrarik edo maiatzeko lasto-jorrrarik egiten, sekulan ez zuten hala hala apherileko behar-jorrrarik huts egiten.

Bainan, zer loria ere, lanetik oro leherturik Oihanalderat itzuli ondoan, amak amodioz moldatu eltzekari onaren gostuz jatea, biitxi maiteen eta Gantxumeren hirri karkara pulliten erdian! Zer loria, bereziki, Gaxuxak laboria edo errealdia egin zuen

egunetan! Xuxen, han ziren olhata ttikiak haurrendako, handiagoak gizonentzat, barne guzia orori kilikatzen zioten usain goxo bat zariotela. Amak kandatzen ere zuen, orduan, Ahur-hutsean gerthatu mixterioa, begiak xuri xuria, beha paratzen baitzitzazkon, aldi bakotx, Oihanaldeko haur maiteak oro.

«Beraz, basherri batean, bertzorduz, larunbat egun batez, etxekandre bat ari zen laboriaren egiten. Hor heldu zaio atxo xahar xahar bat. Eta atxo xahar harek galdatzen dio hean zerbeit emanen dion, Jainkoaren izenean? Etxekandreak, orhe pitta bat harturik, emaiten du bere palaren buru buruan, eta, labean orhe hura sartu orduko ogi eder bat egiten zaio labe haren barnean. Harriturik, eta ogi hura eskalearentzat ederregi kausiturik, bertze orhe miko miko bat, puskaz ttikiagoa, emaiten du suan; eta orhe mikoa egiten da berehala... ogi bat, aintzinekoa baino ere edarragoa; doi doia labetik atheratu ahal izan baitzuen, eta ere gutiago eman baitzion hura eskaleari. Hirugarren aldikotz, bi erhien artean, doi doia, hartu zuen beraz arhe pitta pitta bat; eta orhe hura labean hantu zen, hantu, hainbertzetaraino non labea bethe baitzuen eta hantxet tapatu; eta etxekandreak —ongi nahiko zuelarik— ezin eskuratu zuen gibelerat.

»Atxo xaharra egin zen orduan andre bat xoragarri-ederra, eta etxekandreari mintzatu zitzaion, erranez: "Ni naiz Ama-Birjina, eta larunbata nere eguna da. Zeren handiegi neretzat kausitu ditutzun olhata hoik, ez da ogirik eginen gehiago etxe huntan...". Eta hitz horiek erraitearekin, suntsitu zen Ama-Birjina. Eta, geroztik harat, Ahur-huts erraiten diote jendeek etxe dohakabeari. Eta, ez da ogirik gehiago egin Ahur-hutsean... Haurrak, Oihanaldean, bazterrerrak eman dadila, bethi, Ama-Birjinaren eta eskale gaixoen ogia!...».

X

Dabit ihiztaria

Goiz batez, Oihanaldetik athera zen Piarres, etxeko zonbeit pottoka larrean ikusi beharrez.

Haize hegoak hazkarki emaiten zuen, gain hek guziak harrotzen zituela eta arintzen. Gibelerat ari, uso multzo batzu firurikan heldu ziren, haizeak alderdi guzietarat erainak.

Ixtilkan barna, haitz eder batzuen aldetik bazoan beraz Piarres, ezker eskuin ongi behatuz non bere pottokak ikusiko zituen, noiz eta ere, lizardi-kaskorat heltzean, berak batere uste gabe, aurkitzen baita uso-xola bat buru buruan zakarken arbola luze baten aintzinean. Haitzari gora, zurubi mehar mehar luzatuz bazoazin, eta han, arrano ohantze handi bat iduri, uso-xola gorri bat, Dabit ihiztariaren uso xola. Ohantzetik kanpo bide zen xoria; xixturik ez zen bethi jautsi gain hartarik.

Haitzari hurbil, bixkar-paretari hiru aldetarik josia, errekatik besoz garreiatu barri handi batzuz aintzinetik hetsia, han zuen Piarresek Dabiten jauregia. Oihan-etxe hartan, bi hilabethe luzez, Jainkoak egiten zituen urthe guziez, eta handik kasik mogitu ere gabe, bizi zen ihiztari zaharra, bakar bakarrik. Hiru lau egunetarik doi doia, gau-bethean, jausten zen herrirat, ogi zerbeit erosi beharrez; eta gero, ilhunbean, berriz oihanerat.

Horrela egunak oso osoa zituen ihiziarentzat; aski oraino errenkura baitzen, ilhargitara, gau argietan, ihizi hura, ixil ixila gain hartan, aintzina bazoala! Zer tiroen bazkak ez zitzaizkon suntsitzen, han, izar-arte ederrean!

Erregeak ez ahal ziren hala dohatsu beren jauregietan, nola Dabit bere oihan-etxean! Besotara bat hosto gozo ohetzat, bere philda zerbeit estalkitzat... Zer loria! Eta zer ametsak estalki heien azpian! Munduko uso guziak garbitzen zituen lotarik; eta gero goxoki lo eginik, zankez atzarriko zen, lehenbiziko paparo-gorria ttiutaka berroan hasi zitzaioneko.

Othoitz labur bat, eta, lasterrez, bere egun guziko jatekoa hantxet moldatzen zuen: baratxuri salda mehetto bat, lur-sagar zonbeit, ogi eta gasna puska on bat. Urrian, ahutaraka eta non nahi bildurik, bazuen onjoez tira, bekatu izanen zitzaion holakorik egitea sekula: «Usoak... moko-xuriendako; heien dirua Dabitendako...».

Ur-onttoari arras hurbil bizi zelarik, min guti egiten zion Dabitek, eta, haur haurretik, arras uste guttia zuen urean, hainitz gehiago arnoan. Hirririk batere gabe, eta burua daldaratuz erraiten zuen hau, bere aitari bertzorduz ikasia:

«Ur guti... indar guti!

Ur hainitz... indarrik batere ez!».

Argi hasteko igana zen bere lastoz eginikako dorrera, zeruaren eta lurraren artean egun guzia han egoiteko gero, iguzki-aldeetik edo —udaberrian— hego-aldeetik jinen ziren usoen beha. Trappeurs deithu Ameriketako ihiztari hetarik bat, hots, hori, ferde, dena hosta kolore egina...

—To, Piarres, hemengo aldi duk beraz? Sar hadi, sar; kolpe bat edanen duk, eta ez gero Ur-onttoko arnotik. Haugi barnera!... —Barnera! Hirri egiteko ere bazen...

Eta muthil gazteak han zuen beraz, aintzinean, herrian orok maite zuten ihiztari

xaharra, oihanez oihan, erreka erreka, bere buruaren jabe bethi bizi nahi zen Dabit ihiztaria. Gizon pullita, bere begi erneekin. Hilabetheko bizarrarekin bethi, balentria ere baitzitzaien bere bizar luzea.

Barnera sartu zen beraz Piarres, eta han zagon orai, orori beha etxola garbian, hostozko kamantzari, bi harri handiekin egin su-phizkiari, arbola ondo dilindan argi argia emanak ziren jateko herrementa guzieri.

—To, edan zak xahakotik, eta zalukara. Zerbeit beherean ahantzirik jautsia ninduan, doi doia, eta orai, gain hartarat berriz hupatu beharra nauk. Ihizia bazabilak egun, eta bertzalde, xeflatxa nere apeoen koskatzera jin beldurrez, ernatu behar diat. Heldu haiza? Xaakoa nerekin eremanen diat...».

Eta, zurubi luzeeri gora bazoan Dabit, gata bezen zalu, haitzondoa inharrosten ere ez zuela. Haren ondotik igan zen gero Piarres, bainan puskaz pisuago, gain hartara jadanik heldua, hirriz eman zitzaion Dabit:

—Errak to, Piarres, arinago ez othe haiz ibiltzen, Ortzango erreka horietan, edo bardin errabotean? Zer dituk ala senpertar belhaunburu handiak hik ere?...

* * *

Eta, biak han ziren orai, haitzaren kaskoan, xolaren barrean. Dabit jada hupatua zen bere ikustokira. Zugaramurdi aidera begira, Etxalar eta Sara alderat hala hala, uso urdinak nondik atherako zitzaizkon.

Piarres, hura, ostixoan behereko jauregiari bezala, xolari beha eta beha zagon orai, eta xola hartan gauza guzieri: iratze gorriari, iratzean xixparentzat eginikako ziloeri, ihiztari xaharra hupatua zagon ikustokira joateko mail handieri, bi plegu eginik baizen sar ez ziteken xola hartako atheari. Xola bera, gehiengan, arbola azalez estalia zuen Dabitek, usoaren hobeki oraino enganatzeko. Alabainan, xoriekin oihanean egonaren egonaz, ihiztari zaharrak ikasi ez zuen matrikularik ez zen.

Athea xutik zaukaten bi pazoteak, behe-retik eta gaineraino oxke zuri batzuz oxkatuak ziren, bolanjerietako obi xotx batzu bezala. Dabitek zonbat uso garbitu baitzituen Lizardi-kaskoko xolan eta hainbertza oxke bazen han, bat ez gehiago edo gutiago.

Xola baino puskaz gorago, haitzaren kaskoan, beren paleteri estekatuak, lau apeo, begiak josirik han zauden, Dabitek bere erhiekin noiz dantzan hasaraziko zituen beha egoki. Inguru hetako arbola gehienek adar bat edo bertze bazuten eskas, noiz nahi tirokatuak zirelaketz, gorri gorria ere eginak tokika.

Eta Espainiara buruz itzulua, kapelua begien gainera sartua, begi hek, berak aipatu xeflatxarenak baino erneagoak, ezker, eskuin, aintzin biratzen dituela, han zagon gure ihiztaria, orori beha eta beha. Ulitxa bat ez zen han iraganen, harek berehala ikusi gabe.

«Eskuin aire, itsaso hegaletik badioatzik egun usoak, Piarres. Hala ere duk aspalditto huntan. Banaka batzu dituk guregana hunat hurbiltzen. Helbarrongo edo Fausuko oihanean hobeki nindukek, udaberriko ihiziari buruz. Bainan, to, uso gutiagorekin, bakarrik nahiago nik hemen!...

Bainan, bertze xixturik duk ba, udazkenean, Lizardi-kasko huntan, usoa usoaren gainean trumilka heldu delarik, eta zoko guzietarik. Beha zak, to, Piarres, badenez non josta! Baiona, Bokale, Bidarte, Getaria, itsasoa; bixtak ereman ahala ikusten dela ihizia! Goixbiden hor izaiten dituk ba Gantxume, Ganix, Koxe, Battitta eta bertzeak; bainan baduk orduan ororentzat, aintzin hortarat jiten diren uztariztar onentzat ere ba.

—Zein atxikia ziren zure oihanari, Dabit! Ez ahal zaituzte hemen atxemanen, egun batez, Teilari zaharra lehen bezala?

—Ez balin ba, Piarres!... Eta ez zuan Lizardi-kaskoan erori Teilari gaizoa; hor, gibleko oihanetan zuan. Eta, nere zurubiak bertzelako zurubiak dituk, gero!

Gizagaixo Teilari! Hilabethe bat lehenago, Koxe Tuturruk galdegina zioan, hean haren zurubiak ez zirenez zahartuxkoak? Eta Teilarik ihardetsi zioian: bere eskalapoinekin iragana zela gainetik, atxiki ere zutela, eta urthe hartakoa bederen egingen ahal zutela engoitik!

Hilabethe baten buruko, fin-gaixto eginga zian...

Haren andreak, arrats guziez, hartzen ziazkoian egun hartako usoak, eta joaiten zain, ahaide baten etxean, Maignon aldean, lo egitera, Baionan gero biharamunean usoen saltzeko.

Arrats batez beraz, xolara bethi bezala joan ondoan, haitzaren azpian hila, eta jadanik holtua atxeman zian bere andreak. Goizaz geroz han zuan, eroria, zurubiko azken bi makilak zangoen azpian kraskaturik. Hamabi metra goratik eroria zuan beraz, berehala han berean hil bide baitzen...

Karrasiaka andrea hasirik, auzoko ihiztariak lasterka ethorri zituan, Koxe eta bertzeak oro. Makila handi batzuen gainean ereman ziteian, eta ihiztariak egin ziteian, arrats hartan, beren ihiztari-laguneren gau-beila.

Eta, zer den, hatik, Piarres! Bere lau haurrak zenbeit denbora lehenago kanporat ezkontarazirik, bera berriz ezkondua zuan, adin batean jada zelarik. Errege baino dohatsuago zuan; bainan —zinezko aingeruen mezua— maiz erraiten omen zian halere: «Holakoa ere hola deskantsuan eman ondoan, zalu hil izan zuan. Zerbeit holako gerthatuko zaitak niri ere».

Eta ez zuan faltatu... Kurutze bat egin zioteian haitz bati kontra kontra; eta, haitza geroztik handiturik, haragi bizian bezala haitz hartan sartua duk Teilari zaharraren kurutzea. Jainkoak bere lorian duela gizon gaixoa!...

Bainan, zertako aiphatu dautak holakorik, Piarres? Ilhundura bat eman daitak eta! Aithortuko ere daiat, zahartzeari buruz, oihanak pitta bat izitzen nauela orai. Eta Donianeko ihiztari debru batzu ari zaiztak, berekin ni harat eraman beharrez, hau eta hura, baizik eta biziki hobeko dutala heiekin. Ez zakiat, to, zer egin... Eta han harat joaiten balin banauk ere, ez zakiat Senpereko minak Senpererat berriz ekarriko ez othe nauenez? Jende onak baitiat, karrika, hortan...

Horiek guziak hola, usorik bat ere ez ziaukuk hurbiltzen, Piarres. Ez ahal dazkidatak konjuratu?

—Bai, zera! Zure bizar alimaleak izitzen ditu eta!

—Bizarrak izitzen, usoak? Emak bakea, to!... Jaun bikarioa ba izitu diat, jaz, ene bizartto hunekin.

—Jaun bikarioa?

—Ba, jaun bikarioa. Bazko biharamunean, joana ninduan beraz nere bazkoen egitera, eta ez batere bezperako athorra-xuriaren baliatzeko. Berant arte, bezperan, ihizi ederra eginik, ene hilabetheko bizarra nerekin nian beraz, eta han nindioian, bi aingeru bezen prestu eta xitun.

Hor, jaun bikarioa ethortzen zaitak, kexu kexua, gaizoa, eta goratik erraiten dautala:

—Orai duzia zuk ere tenorea? Eta holako bizarrarekin oraino?...

Tik eta tak orduan, eta ahal bezen pulliki ihardesten dioiat:

—Jaun bikarioa, ez diozu behin ere, aldarearen gaineko Jon Doni Petriri behatu? Eian ez duenez harek ere bere bizar guzia?.

Hirria jali zitzakoian berehala jaun bikarioari. Kur kur kur sartu zuan bere xiloan, eta badiat uste halako kofesio goxorik ez dutan egin nere bizi guzian...»

Hirriz, Piarres zen ari orai, haitz kasko guzia inharrosirik zaukala; bainan, bet betan, apeoeri tira eta tira arizantik, bere bi eskuak hedatuz, pitta bat gibelatzen ere dela bera, ahapetik hasten zaio ihiztari zaharra:

—Xo! Xo!... Heldu, heldu! ez hadila mogi, Piarres! hegalak eman ditie...

Eta, apeoetarik bieri, ezker eta eskuin, hegal-xafla bat doi doia emanarazirik, bere ezpain meheak asikian harturik, ikustokitik xolara, pulliki pulliki bi plegutan jausten ari zen Dabit. Goiti behatzen zuen orai, den mendren harrabotsik egin gabe, esku bat bere xixpari buruz jada hedatua. Piarres ere ziloetarik beha emana zen, eta bi gizonen bihotzak tapa tapa entzunen ziren barne hartan.

Eta, jadanik, inguru eta inguru, firurikan jinak, hogoi bat uso eder ari ziren, arbola handietan finkatu beharrez.

Eta bet betan, hegal xafla pullit batean, huna non ziren geldituak, xolaren gaineko aldean, eta ondo hartako haitz handien gainean hala hala.

Burua xut xuta, mogitu gabe, han zauden xolari beha, beha ere heien enganatzeko baizik ez ziren apeo itsutueri, zerbeitez bekaiztuak balire bezala. Piarres pitta bat bere xokoan higiturik, airatzerat egin zuten. Berantegi! Gehiagoko gogoetarik egiteko astirik uso gaixoeri eman gabe, Dabitek, xixpa muturra zilo batean doi doia finkaturik, igorria zioten jada bere tiroa: Pan!... Eta hiru uso, hegalak bildurik, hiru harri bezen pisu erori ziren arbola azpira: pun, pun, pun.

Gaineratekoak, sekulako hegal-burrunban bazoazin. Ihurzuri harrabots batean; inguruka lehenik eta ohilduak bezala, eta gero, demuntreak hausteko, iguzki-alderat buruz ezin aski zalu joanez...

Hirriz ari zen orai Dabit. Bainan Piarres bere buruari aihherrez zagon; eta xutiturik, gehiagokorik gabe, abiatu zen kanporat:

«Banoa, Dabit. Zure makurtzeko baizik ez naiz hemen. Ez baitauzkitzut hortxet guziak airez aire igorri! —Ez duk fitsik, Piarres. Sankako bat lehenik xahakoari. Usoak arthiki ditiat; hola duk ihiztari-legea. Hire ondotik, Piarres!... Eta hoa othoi bakean. Ikusten diat orai ez huela usorik konjuratu. Behererat bahoanaz geroz, nere jauregian ematzik hiru hoik, zakurrek edo xinhaurriek hunki ez ditzaten. Ikus arte, Piarres»...

Piarres zurubieri beheiti bazoan, eta hiru usoak beherean gerizan emaiten ari zelarik, bere iratze-dorretik oiho egin zion oraino Dabitek:

Errak, to, Piarres! Ihizi sasoinean ezkontzen balin bahaiz sekulan, dotzena bat use badizkeiat hiretako. Eta gero, bizarra ere karrakatuko diat, goiz hartan berean, Oihanalderat gomit nahi balin banauk segurik... Jainkoak nahi duen arte, Piarres... Hire pottokak, hantxet ikusten ditiat, nere ustez, Haitz-Handiko bixkarrean...».

Bere kexua iraganik, gizon debruaren atheraldiari hirri egin zuen Piarresek; eta, hirriz bethi, Haitz-Handirat buruz joan zen beraz, bere pottoken ondotik.

XI

Larreko-gurutzero

Maiatza ethorria zen bizkitartean. Baxe-Nabarren eta Xuberon, mendi guziak, Iropilen, Hartxilondon, Iratin edo Aphanizen, arthaldez estaltzen ziren tenorean, ardi-saldo banaka batzu bazoazin Lapurdin ere larre-bixkarretara. Pottokak irrintzireka entzuten ziren Senpereko oihanetan. Beltxak, gorrastak, oro nahasteka zabiltzan, jo harat, jo hunarat, beren ile harroekin eta buztan luzeekin. Ttikiak, aphalak, gehientsuak; bainan zaluak, nola! Lanik aski emaiten baitzioten jabeeri, hek eskuratu nahiz, ondotik jabe horiek zituztelarik.

Bere ardi zonbeit bildu beharrez, nekaturik heldu zen Piarres. Ilhun-nabarra zen. Herria han zuen bere oinetan, oilo-amaren ondoan xitoak bezala, elizaren ondoan bildurik zaudela zonbeit etxe xuri xuri. Afal-tenorea hurbildua ere zelakotz, su-phizkia bakotxetik, xuxen xuxena zerura bazoazin khe arin eta garbi batzu, haizeak doi doia pitta bat makurtuak. Aberats ala behar, etxeko jaun ala bordari, su-phizkia bat ez duenik ez da Eskual-Herrian. Eta Piarres, arrats hartan, lehen baino ere hobeki sumatu zuen, surik gabeko etxea arima gabeko gorphutzarekin emaitako on dela doia. Khe gaixo hek maiteagoak iduritzen zitzaizkon gaur; bereziki Oihanaldekoa, bertzeek ez zuten zerbeit kausitzen ziolakotz.

Etxe-ondoan, mindei batean errexiñola bat ilhargiari ari zen, kantuan osoki galdua, bere zintzur ttiki ttiki hartarik urhea bezalako zerbeit lehen izarrerri igor eta igor. Ilhun-nabar guziez hola zen, zonbeit egun hartan jada; gau-erdi guziez hala hala, eta argi-haste guziez ere ba. Brixtakoan doi doia, eta behin, ikusia zuen Piarres, pareta-zoriaren iduriko xori gorrostaño bat, harro harroa lumak, aztaparren gainean luzaturik, hosto batzuen gibelean kukutua. Eta kantuz eman zitzaion muthil gaztea:

Xori errexiñola ororen gehien,
Bestek baino hobeki hark baitu kantatzen;
Harek du enganatzen, mundua bai tronpatzen!
Ber' ez dut ikusten,
Bai boza entzuten!...

* * *

Jainkoak munduaren lehen egunean hola manaturik, ari zen beraz xori-errexiñola, munduren mundu hola bethi ariko baitziren errexiñolak...

Jainkoa! Bethi Jainkoa! Orotan ere den bezala, orotan ikusten zuen eta maitatzen gure Piarres: Udaberriko uholde izigarrian, arrats gehienetako iguzki-sartze xoragarrietan, xori maite baten kantu urhezkoan. Eskualdunak odolean du hoi, eta Piarres zinez eskualduna zen.

Urthe guziez bezala eta lan handiak hasi baino lehen, senpertarrak jainko handi horri buruz itzultzero zoazin, laguntza hoberenak harenganik beharrez. San Blas egunean jada, herriko konfardia guziak haren gerizan emanak zituzten.

Ama on batek bezala, Elizak bazakien bere haurren gogoaren berri; eta, orai, udaberri-hastean, haur heieri galdatzen zioten ethor zitezen oro, zeruko saindu guziari oihu egitera. Eta Piarres, maite zituen herriko proesione ederrak, bi hiru oren luze irauten

zuten proesioneak.

Maiatzaren lehenean, jada, lerro lerro izanak ziren Amotzko kapera zaharrear, meza balios bat han entzuten. Zonbeit aste goiti beheiti gero Errogazioneen aldi ziteken.

Egun, Larreko Gurutzeari buruz joaitea zuten. Fede handiko gizonak lehenagoko senpertarrak! Herriaren lau bazterretan, herri haren guziaren alderdi orotarik gerizatzeko bezala, kurutzeak emanak zituzten gora landaturik: Urguriko larre muthurrean, Santa Barbara goren gorenean; Nañoarenborda aldean, Aantzen-bordako kaskoan. Hegoaldek, Mendeaetik, Ipharretik ala Iguzki-aldek ethor zitezen ximixta-ortziak, kurutze bat han zuten, trebes emana, herriaren gainean lehertu baino lehen; kurutze hura, maiz, aski baitzuten, jin bidez gibeletat egiteko.

Goiz hartan beraz, iguzkia agertu baino ere lehen jaikia zen Piarres. Athe handia ideki zueneko, gauza maite maite baten aintzinean aurkitu zen. Etxearen aldeko eltzaur-ondoaren gainean, xuri eta beltz, lerro lerro emanak, hamar bat iñhara ttuttuttaka hasi zitzaizkon; bainan hain pulliki! Eta berehal-berehala gogoratu zitzaion Piarresi, aintzineko urthean Oihanaldean laketu iñharak zitezkeela, han, arbola gainean, beren atherbeen galdez erasiaka. Heiako athea zabaldu zioten beraz; eta xori maiteak, orduan berean, karrasiaka eman ziren, eta gero, oihuka, haur batzu bezala, heia beroan trumilka sartu; handik berehala, loriatuak, kurumilkatu baitziren beren lehenagoko ohantze pullitetan... Eta Piarresek loria bat bazuen bihotzean, ikusirik Oihanaldea jendeeri bezenbat goxo zitzaiotela alimale eta hegaztineri. Bai zinez Jainkoaren etxea zen heien etxea, Maria zaharrak erran ere zioten bezala!

* * *

Eta orai, herriko gizonekin bazoan Piarres, Urguriko landa sorhoen erditik, aldapa xutari gora, Larreko Gurutzeari buruz.

Goiz goizetik, Urguriko neskaxa zonbeit Larre kaskorat iganak ziren, mahain, lore eta hostoila asko berekin zeramazkitelarik, kurutzearen aphaintzeko. Eta aphaindua ere zuten jada ederkixko, Utsaleko zubian kurutzea agertu zelarik. Kurutze hoi, hogoita hamar urthe hartan bederen, Pettanek zeraman, bethi bardin hazkar, bethi bardin kartsu, beattar handienari zonbeit aldiz doi doiako bat uzten ziola, besoak pitta bat deskantsa zitzaizkon.

Ezkila-dorrean, bethiko Piarres, herriaren zaintzale xaharra, unhadurarik batere sekulan ezpalu bezala, binbili eta banbala ari zen, proesionearen akulatzen.

Eta Pettanen ondolik bazoazin haurrak, bazoazin emaztekiak, gizonak, aphezak, neskaxa kantariak:

Sancte Petre, ora pro nobis,
Sancte Petre, ora pro nobis!...

Nehor guti atzarrarazten zuten Urgurin, urguritarrak oro proesionean baitziren. Eta bazoazin, Kanderatzean harat, Kandelarraldean harat. Suge handi bat bezala luzatuak ageri ziren, mendiari jada lothuak. Eguzkia gainean zuten; kanturik ere ez baitzioten egiten, halako baten berri bazakitelakotz aspaldi.

Arrosarioan ari ziren orai goratik; eta gero, tartean, zeru gain hartarik heieri beha zauden saindueri oihuz emaiten ziren Paxkal auzapheza, Josep eta bertzeak oro:

Sancte Dominice, ora pro nobis.

Ardi multxo bat alhan ari zen, mendi mazelan, belhar bat ahoan proesioneko jendeari beha emaiten baitziren, begi handi zuri batzuekin. Pottoka batzu ere harat hunat bazabiltzan; burua gora gora altxaturik bulta bat egon ondoan, tira-ahala lasterrez, alderdi guzietarat ohildu ziren, erhotu bet-betan balire bezala.

Bordalde baten ondoan, elhorri-xuri aldaska baten gainean, xori pullit bat, buztan muturretik eta mokoraino harrotua, kantuz eman zen, bere goizeko othoitza senpertar fededunekin egin beharrez.

Bidexka mehar mehar bati gora, othaska horitu batzuen artetik, kaskorat heltzen ari zen orai Pettan, xuri eta gorri aldean zituen bi beattarrekin. Eta, beren arrosarioak bethi eskuan, buru-has bethi iguzki minaren azpian urhats ezti gozo batean, kantuz heldu ziren gizonak, den mendrenik hatsantuak ere ez baitziren: Onmnes Sancti et Sanctae Dei, intercedite pro nobis!

Huna orai Larreko Gurutze ederra, mahain ttiki bat aldare bat bezala aintzinean emana, dena lore, dena hostaila ferde, bi besoak zabal zabala, proesioneko jendea eta heien gibelean hedatzen den herri guzia maiteki besarkatu nahi balu bezala. Kurutzearen erdi erdian, Jesusen orde, kurutzefika bat emana da, mahainaren gainean, xirio benedikatu batzuen artean, Ama-Birjina xuri xuri bat, lore-untzi pullitenak. Alde aldean kadira bat, marra urdin batzuekilako lonjera xuri bat, bere litsak dilindan; oihalaren gainean, molde ederreko untzi hori handi bat, guziek, harat heltzean, ur benedikatu xorta bat han hartzen baitute arhi-muthurretan, kurutzearen seinale nasai baten egiteko.

Eta horra non diren oro mendi-kaskoaren gainean bilduak, kurutzeko hurbil hurbila, eskuinetik gizonak, ezkerretik emaztekiak, aphezak kurutze haren aintzinean; herritik proesioneari beha zaudenek erranen baitzuten kurutze handi hura jende heien guzien gainean landatua zela:

Oi kurutzea, oi kurutzea,
Kurutze saindu maitea!...

Eta eskualdun kantu zaharra, hantuz eta zabalduz ere hedatu zen bortu heien gainera, herri guziaren, Eskual-herri guziaren amodioa eskaintzen ziola, bertze mendi-kasko baten gainean, besoak zabalik, guretzat hil izan zen Jainko-Gizonari. Mendirik ez zen egun karraskatzen; kalbarioko ilhunbe izigarririk ez zen jautsi Larreko Gurutzearen gainerat. Larruneko harri ilhunetarik altxatu ziren bakarrik lau edo bost arrano handi, inguru eta inguru zero gorenean eman zirenak, herri bat othoitzean ari ikusteko bezala...

A fulgure et tenpestate!

Erremu hostoa eskuan, herriaren lau alderdietarat ur benedikatuaren hedatzen ari da apheza; eta hango jende guziak, belhauniko emanik, boz batean, boz ilhun eta hazkar batean ihardesten dio:

Libera nos Domine!

Kurutzea eskuraturik, kurutze harekin Senpere guzia inguratu eta besarkatu nahi

balu bezala, aphezak egin ditu lau kurutze handi uhartzearen gainerat:

Ut fructus terrae dare et conservare digneris...

Te rogamus, audi nos...

* * *

Oro xutitu ziren orduan, eta, bazoazin jada, zoin bere alde. Emaztekiak jarri ziren sorro motzaren gainean, beren xokolat mutturraren jateko; bonbona eta oñ-oña bixiño hetarik ere baitzituzten ekarririk, hirriz elgarri eskainka ari ziren. Haurrak, jauzteka othe lilituen gainetik, nihon ez zagozken. Gizonak, xutik, multzoka emanak, beren zigarrottoen erretzen ari ziren, sasoinaz errenkuratuak, arratsaldean berean eginen zuten lanaz mintzo. Piarresi oihu egin zioten hetatik zonbeitek: kitzikatu ere zuten maiteki aintzineko igandean galdu pilota partida batez.

Kurutzearen aldean —eskualdun etxekandre hoberenen bethiko moldean xutik egoki hek ere— kurutze haren aphaintzaleak, beren mantelinak buruan, eskuak muntto munttoa bilduak, Kalbarioko emazteki sainduak iduri, aldarearen zain hantxet zauden, hirri maite bat ezpainetan.

Urguritar zonbeit gizon, ohidura zaharrenak hala nahi ere zuen bezala, herabe herabeak hurbildu zitzaizkoten, erretor, bikarioekin; Pettan, Paxkal gaizoa, Josep eta beattarrak ondotik. Edari ontto bat agertu zen orduan, kurutzearen aphaintzaleek mendi-kasko hartarat bethi bezala ekarririk; bixkotxa idor zonbeit ere hala hala, untzi xuri batean lerroka emanak. Eskual-Herriko asko tokietan liranja, katalinbrox eta bildotxak bezala, pokadu ttiki hoi eskaintzen ohi zen bethitik Senperen, proesionetako kurutzeen aldean.

Kurutze aphaintzaleak laudatu zituen jaun erretorak beren lana hain maiteki eginik, eta orai kanpo ederrari beha zauden guziak. Bixtak ereman ahala urrun, ageri ziren: itsasoa urdin urdina, zelaiak lanhoz hartuak, Baiona-aldeko bixkar-muthurrak, Bokaleko suak, Katedraleko orratz xuriak, Miarritzeko argi-dorrea, Gethari, Bidarte, Donianeko ondarroa, Santa Barbara, Arta, Ziburuko etxeak gero, Bordagain, Sokorri eta Urruña eta Zuberuako etxe xuriak. Baigura menditik eta Larrunerat, mendiak heldu ziren, bortuko alimale handi batzu bezala elgarri gainka. Atsulai hegalean, xuri xuria ezagun zen Arrantzeetako kapera, Lapurdi guziari begiratzen ziola. Hurbilago eta mendiaren oinetan, Ostolapetik eta Laputsagaraia artean, bertze Santa Barbaratik eta Espainiako mugaraino, Senpere guzia hantxet bazoan alderdi guzietarat, bere landa, sorho eta oihauekin, kantonamendu bat bezen handi zabaldu. Eta aphezak, gizonak, orori beha zauden, urrunean ikusten ziren etxeeri zoin beren izenak emanek. Ibarronen harat, uli beltx bat baino gehiago ez ageri, otomobil bat bazoan, ixil ixila lerratuz. Eta jaun erretorari jin zitzaion gogorat, mendi gain hetarat, bortu hetarat iganen zen eskualdunari gauza guttiño batzu idurituko zitzaizkola bathi otomobilak eta gainerateko gizonen tresna berrienak: itzaltto batzu doi doia. Puskaz handiagoa zen Jainkoa bortu hetan, eta bertze itzalik zuten harek egin mendi ederrek!...

* * *

Bizkitartean, iguzkia bazoan bethi eta gorago zeruan, eta herrirat itzultzeko, Amotzen gaindi inguru handia egin behar zen oraino.

Jaun erretorak esku-zarta bat eginik, oro berriz bildu ziren Kurutzearen ondorat. Agur bat egin zioten oraino bihotzetik: O Crux, ave, spes unica, eta bazoazin orai, lerroan berriz emanak, Amotzerat buruz, haitztegi bati behera, ezker, eskuin utziz borda xahar xahar batzu:

A fulgure et tempestate, libera nos Domine.

Xoilotegitik laster, huna Xirripitako erreka pullita, bere haitzekin, bere ithorrotx maitearekin, haurrek hurrupa bat hartu baitzioten, han iragaitearekin.

Martieneko errekarari gora huna orai non direr abiatuak, Tontoloari, Martiene-Xikiari hurbil, Elixamendiri lothuak. Amotzko zeinu arina bulta hartan jada ari zen. Piarres Blankart ez zagon lo goiz hartan!

Buxtingorriko bixkarrerat heltzean, Pettanek eztitu zuen bere urhatsa, eta proesioneke jendeak gauzetan maiteena ikusi zuen aldi bat oraino, toki berean, bethitik ikusten ohi zen gauzetan maiteena.

Amotzko kaperatik doi doia atheratua, Manex zaharra —urthe hartako klabera— bere kurutze zilarreztatua eskuetan, buru-has heldu zen, Buxtingorriko intha hertsian hunat. Bethiko keeta beraren aldean gelditua zen orai Pettan, geldituak ere oro haren gibelean. Eta Manex heldu zen, bere urhatsean bethi. Eta huna (elgarretaratu direlarik), Amotzko kurutzeak, pitta bat trebes airean bera emanik, musu batean besarkatzen duela Senpereko kurutzea, haurrak bere ama besarkatzen duen maitetasun berarekin... Hainbertzenarekin, gizonak kantuz ari ziren berriz ere:

Oi Kurutzea, oi Kurutzea,
Kurutze saindu maitea...

Eta, orduan berean, bi kurutzeak aintzin, inthari behera joan ziren oro, Santa Madalenaren kaperaz zaharrean airearen benedikatzeko, sar-athera bat laburra egin beharrez... Kanpotik landa goxo zen, han, barne hartan! Amotztarrek beren eliza maitea aphaindurik emana ere zuten, garbi garbia, aphezeri, herritarreri ongi-ethorriaren egiteko. Piarres zaharra eta bethiko Mattin ez ziren gutienik loriatuak goiz eder hartan! Santa Maria Madalena, norbeitek lehenago xuri, gorri eta urdin ezarririk, othoitzean bethi, han zagon, bere bortuan, bi makilekin eginikako kurutze baten aintzinean nigarrez belhaunkatua...

Bederatziak eta erdiak irian, beren dorrean ezkilak zapartaka ari zirela berriz ere, itzuliak ziren eliza-nausira, azken benedizione batean goiz hartako beilaren bururatzeko. Bi oren eta erdi, buru-has iguzki saminaren azpian egon ziren beraz Piarres eta haren lagunak; uri-uharren azpian bardin egonen baitziren, gain hartako Jaun Handiak erauntsiak hala igorri baliozkate...

XII

Uda-hastea

PHESTA-BERRIAK

Kallak kantuz ari ziren ogi-petik, non nahi, elgarri hepaka, elgarren ondotik jostetan; Eriaroa zen, erre-aroa egiazki.

Belharretan hasia zen jendea, eta nolako karraskan! bezala orotarat hegaldaka; ama gazteak hunkigarri, gizonak hazkar, lorios; neskatzak pinpirina batzu maiteak zinez beren harat-hunatetan; xahar zonbeit, pitta bat herrestaka gaixoak, bainan lan unhagarri harek gaztetuak, arratsean gero umatuak luzatuko baziren ere ohearen gainean.

Argi-hastean eta ilhun-nabarrean bezala, eguerdian, ezkila-dorretik heldu zitzaioten Anjelus-zeinua, aingeruaren agurra, xutik hantxet erraiten baitzuten orok, iguzki-minari biziki ohartu gabe.

Salbatzaile Jaunaren 33 urtheen ohoretan, hogoita hamahirugarren danda ezkila-joaleak ainerat igorri orduko, haurrek otharre batean ekarririk, han zuten bazkaria, berhosasi baten aldean, sagar-ondo aphal baten azpian.

Otharrean amak ezarri oihal xuria hedatu zuen beraz Mariek, orduantxet segatu sorroaren gainean. Hurbildu ziren beraz langileak oro, eta arraiki hantxet eman, lerro lerro itzalean jarririk.

—Atx hatik! Zein goxo den arbol azpi huntan!

Eta hats-hartze luze luze bat egin zuten guziek, eta kasik guziek betan; hirriz eman baitziren, gauza horri ohartu zirenean.

Eta gopor zabal batzuetan, gainerainoko eltzekari beroaren jaten hasi ziren ixil ixila, solasik orduan haizu ez balitz bezala.

Thomasek, azken hurrupa gopor gorritik beretik hartuta, hirriz erran zion gero Gantxumeri:

—Gauza ona ekarri daukuk hau, Gantxume!. —Bainan, Gantxumek, bertzerik baitzuen hatik gogoan, ez zion deusik ihardetsi; uli-xori bat sasian atxeman beharrez ari zen...

Eltzekaria husturik, etxe arno zoria bat khendu zioten gizonek xahako beltzari; pitarra nahiagoz pitxerretik ari ziren aldiz bertzeak.

Mihiak zalutu zitzaizkoten orduan orori, eta, xingar zafla bat kanitaren muthurrean, solas eta hirri maiterik bazuten gure langileek! Ilhar gizen gizen batzuen ondotik, etxean eginikako gasnaren jaten hasi ziren, ogi xuriaren eta erhi handiaren artean zerra eder eder bat luzaturik. Gantxumek berak, uli-xoria aspaldian utzirik, hortzik aski ez zuen jan behar zituen guzien jateko.

Su egin nahi zuen kanpoan; burrunbaka ari ziren uliak; ttirittak aldiz krizkolan, sasoinak erhotuak, ogi-arthoen erdian kixkailduak. Oilar kantu batzuetaz bertze harrabotsik ez zen batik nehon ezagun. Ederreneko oilar bat, mundu huntan egin ahala ari zen, han, ibar muthurrean: «Aberatsak, gu, u, u, u!»; Handienekoak ihardesten baitzion berehala: «Gu ere ba, a, a, a!» —Gaineneko-Etxekoaren aldi zen gero: «Gu, ontsa, a, a, a!». Eta Bazter-Zabalekoak errepikatzen zion kuxean: «Gu eza, a, a, a!».. «Marraka mehe bat azkenik, trenkatzerat doan zintzur baten marraka samina: Kak-Aphaleneko oilar hetikaren kantua: «Gu, probe, e, e, e!...».

Bainan, gero, oilarrak berak ixildu ziren, bero handiak joak hek ere. Khe arin arin bat eraikiz bazoan ikaran, alhor, mahasti eta sorroetarik, irakitzen ari den pandero batetarik atheratu khearen idurikoa.

Gantxume, Ganix, Marie, Xuriko luze luzea heien ondoan etzanik, xurrungan goxoki ari ziren, esku bat begien gainean.

Thomasek, Piarresen, pipa eta pipa kanpo ederrari beha luzaz egonik, lo aire bat ezin garraituz bazuten lanik aski. Halako gozo batek hartua zioten bihotza: urtheko lanak urhats onean bazoazin, Jainkoari eta aroari esker, Petrietako eginak zuzketen belharrak oso; artoak, behin jada jorraturik, bi, hiru aldiz behar bada jorraturen ahalko zituzten oraino...

Eta, arthoekin borrokan lokhartuak, hantxet zauden orai bi gizonak, beren lur maitearen gainean luze luzea etzanak biak, lur hura lotarik ere ezin utziz, hari josiak oraino eta gainean kurumilkatuak...

Pazko ondoko phesta handiak lerro lerro jin ziren eta hala hala iragan: Jon Doni Salvatore, Mendekoste, Trinitate. Eta Phesta-Berriak ziren orai, eskualdunek hain maite dituzten Phesta-Berriak.

Lehenbiziko igandean, proesione ederra egin zen, bethi bezala, Olhako kapera pullitera; mundua han aurkitu baitzen, Senpereko bazter zabaletarik amodioz bildua.

Handik ortziralean gero, Jesusen Bihotz Sakratuaren egunean, Paxkal zenak, auzaphezak, herria eskaini zion Erregeen Erregeari, han, elizaren erdian. Eta gauza hunkigarria zen egiazki, eskualdun auzaphezaren ikustea, aldareari hurbil, xaia eder baten gainean belhauniko, bere herri handiaren Jainko jaunari emaiten ari zitzaiola, herri haren guziaren aintzinean! Ikare batek inharrosi bezala zuen Piarres, auzapheza xutitzearekin, gizonak oro betan hasi zirelarik selauruetan:

Munduak bazaitu ukatzen,
Orotarikan urruntzen,
Eskualdunak zaitu bilatzen,
Bihotzetikan maitatzen.

O! bai, gu, Eskualdunak
Zuri gaude denak;
Zuri ukho daudenak!

Eta muthil gazteari iduritu zitzaion, argien erdian; bere eskualduneri amultsuki begira zagola Jesus...

* * *

Eta gero, beraz, Otabako igandea zen. Gazteria katolikoan buruzagietarik bat nola baitzen Piarres, bere lagunekin bazkaldu zen lehenik jaun erretoresaren etxean. Hamar bat gizon gazte aurkitu ziren han, herriaren lau hegaletarik ethorriak, oro etxeko-seme onak, bi-hiru urthe luzez soldado ibiliak. Hirri onik egin ere zuten, goxoki bazkaldurik, kafe bero bero baten aintzinean hiru soseko puroak piztu zituztelarik. Manex eta Mixel persuka hasi ziren, hein bat pulliki, errota-zainaren alde batto, lurgintzaren alde bertzea. Jaun bikarioetarik bat lothu nahi izan zen hura ere lan berari, bainan bide-erditan gelditu zen

gaizoa, hirugarren persua ezin bururatuz...

...Branda! Oren bat aintzinekoa!... Jada! Battitta, Paxkal!, Piarrex, ezkila-dorreen ari ziren ari! Ez ziren bethi bethi berdintzen, bainan eder zoan halere bi ezkila handien zeinua; ozena batto eta gozoa osoki, erlats maite batekin bertzea.

Persuak eta puroak utzirik, xutitu ziren gizon gazteak eta joan, beren aphaindura ederren emaitera. Karrika dena erasia ari zen egiten; haur andana bat oihuka, zapartaka; atabal eta turrutak alde orotarik musikan; athe aintzin guziak aphaintzen hasiak, pazotak mihiseentzat tanka tanka lurrean sartzen; emaztekiak mihise heien moldatzen, ixkilimak ahurrean, eskuan, ixkilimak oraino ahoan, eta —zinezko mirakuilua— mihiak halere aintzina kalakan!...

Herri guzia han zen orai, eliza ederrean. Mendian ur-errekak osinera bezala, baratzean erleak kofoinera bezala, hirian jendeak jostetara bezala, bethitik badoazi eskualdunak... herriko elizara. Eta eliza hura bethea zen, jendez kankarrikatua, beheretik eta gaineraino, harri-lauzetarik eta kasko kaskoraino. Zeruko Sainduak berak multzoka jautsiak ziren aldarearen ingurura, dena urhe eta zilar. Harri hek, selauru hek belhaunez higatu zituzten hilak, lehenagoko eskualdunak berak, ez othe ziren han, hek ere? Zerutik ethorriak —ezen, eskualdunik ez diteke zeruan baizik— musu batean elizaren aldeko hilerrietan beren hexurrak ferekaturik, ez othe dira lorietan biltzen lehenago berak eginikako eliza maiteetara? Heien, hatsa, heien othoitzak han geldituak dira, pareta lodi heien artean, bizien hazkurri hazkar zinez eta egiazki. Zonbat hunkigarri, itsentsuz, othoitzez, nigarrez eta bozkario goxoz emokatu toki sainduak! Bihotzean gizonaren odola bezala, elizan egiten ohi da zinezko eskualdunaren odol garbia. Eskual-Herriaren bihotza beraz... eliza.

Bainan gehiago bada oraino eliza hori eskualdunarentzat. Herriaren arima herritarren arimek egiten dutela baitiote, Eskual-Herriaren arima han dabil hegaldaka, gure eliza zaharretan, eskualdun egiazko guzien arimak harat bethi biltzen ohi direnaz geroz. Zerua eta lurra, Jainko handia eta gizon ez-deusa, aingeruak eta sainduak, hilak eta biziak, han elgarretaratzen dire, etxe batean etxe hartako burhasoak eta haurrak oro bezala.

Oihan bat oso osoa gusta den hegazpe haren azpian, xuri xuria kisuz estali harri heien artean, intzireka gizonek leherturik dauzkaten haitzez eginikako selauru hetan, jendearen belhaunek zilatu lauza zabalen gainean, bethi badabil eskualdun arima.

Eskualdun arima horren ondotik, arima hori jakin beharrez erhotuak ikusten ditugun arrotzak, maiz aski ibil ditezela lehenik eskualdun elizetan. Han ibiltzen diren eskualdunak bezenbat luze, dagotzila elizan. Eskualdunek harat eramaiten duten bihotz berarekin. Jar-alki beren gainean, etxe-harri beren gainean jar ditezela eta belhaunika. Eskualdunekin batean; eskualdun arima badakikete orduan, edo hurbil. Handik altxatzen den arima hura ongi adituko dute gero hala hala, etxean, oihanean, errepiran eta landan, merkatuan edo errebotean. Ordu arte... ez, sekulan elizetan hegaldaka dabilan arima gabe, arimarik gabeko gorphutz bat baizik ez delakotz Eskual-Herria...

Eskual-Herriko eliza zahar maiteak, zaudete xutik, zaudete gure eskualdunen arimez betheak, hantukak eta berotuak, edo Eskual-Herriaz eginen da sekulakotz!

* * *

Bezperak hasiak ziren beraz airoski, eta apuñatik ari ziren han zirenak oro. Bainan, sukar bat bazabilan airean, eta, noiz nahi, haurrek eta jendeek berek, atheari buruz makurtuak zituzten begiak.

Eta huna hor, bet-betan, guziek igurikatzen dutena. Atabal, tinbala, turrutak errepikan heldu dira, aldean dira, hor dira. Athe handiak karrankaz zabaldurik, huna sartzen ari Senpereko gazteria ederra.

Kantuak, organoak, oro ixildu dira; emaztekiak xutitu beren jartokietan, begiak ezin aski luze eginez; haurrak, neskatzak berak —eta ez bethi ttikienak— gibelesko alderat itzuliak. Gizonak, selauruetan bi plegu eginak, behiti beha eta beha daude. Beren ohorezko jar-alki ederrean, jaun mera, jaun axuanta xutitu dira, lephoak luzaturik, buru eder murriztu batzu lepho heien gainean. Beattarrak nehon ez dagozke; aphezak berak durduzatu dira, den mendren bat bederen.

Eta aintzin aintzinean, muthil gazte eder baten eskuetan, gora gora, xut xuta, «Borthitz eta on», haren pleguetan urhezko hitz batzuek dioten bezala, huna gazteriaren bandera sedazkoa.

Huna, banderaren aldean, haren goresleko eta gerizatzeko bezala, lau Zapur alimale, beren ardi-larru beltz handiak kaskoan, haizkora eder batzu sorbaldaren gainean, athorra eta galtza xurietan, sedazko gerrikoak gorri gorria athorra xuri haren gainean.

Huna sei atabala, tinbala handi ederra, hamalau turruta pullit, bost turruta lodi oraino, eliza guzia ikare-daldaretan emaiten baitute, jende guzia zangoetarik eta ile-kaskoetara hantxet inharrosten dutela.

Huna bederatzi aintzindari; kapitaina lehen, eskuinetarik; bere lagunak aldean edo oraino ondotik, kapelu eta jauntzi gorrietan, galtza xurietan, dena urhe gainetik eta beheeraino. Esku-larru xurien artean tinko daukaten ezpata argia bezen xut heldu dira, denak urhats berean, begiak xuxen, ederrak ezin gehiago.

Huna, azkenik, hiru-hogoi eta zonbeit muthiko gazte lerdan, galtza xurietan, kapelu eta jauntzi ederretan hek ere, beren eskualdun makila zaluak eskuineko sorbaldari josiak. Lerro luze luze hartan, lehenbizikoak eta hala hala azkenak, beren aintzindariak bezen xuxen heldu dira: hortako berexi diren gazte gotorrenak, oro urhatsean, soldado zahar batzueri dohakoten bezala. Erditsu hartan, gazteagoko batzu oker airetto batean doatza, eskuineko zangoa ezkerrekoarentzat hartuz zonbeit aldiz. Bainan, Jainkoaren eretzera, ontsa egin nahi duenak ez othe du bethi ontsa egiten?...

Jainko handi horren armada pullita lerroan emana da orai elizaren erdi erdian, musikariak aldarearen aintzinean, zapurrak eta banderaria aldare haren aldean: «Compagnie! Halte! À droite et à gauche, front!...

Repos!».

Piarres, bigarren aintzindari ere delakotz zonbeit urthe hartan jada, bristi brasta, harat hunat badoa soldadoen aintzinean, hetarik bat edo bertze hobeki oraino xuxendu beharrez. Elizan, jendea sosegatuxe da edo nonbeit han, eta, gazte hek oro kantuari lothurik, airozago oraino badoazi bezperak.

Bainan, Mañifikata ethorri denean, huna berriz beharrientzat, eta begientzat ere ba, phestetan maiteena. Musikari guziak han dira, aintzin aintzinean, eta tinbalak, atabatek, turruta hek orok xoratua daukate jendea. Noizez geroz maite hola othe du eskualdunak turruta soinu? Eta mendietako artzaineri xirula utzirik, ez othe du, maiteagoz, beretua turruta? Nik ez dakit. Bainan, zerbeit holako erran ziteken arratsalde hartan, Jan Battitt, Paul, Ganix, Pierre, Mattin eta bertzeeri jendeak hala beha eta beha ikusita. Piarresen anaia, Ganix, han zela hura ere, erran gabe doana; bainan matheletan ez zuen gehiago turruputunik, eta ezpain mehe mehe batzuekin ari zen, ari! Ez baitzukeen bere tokia bertzeeri uztekoa!

* * *

Zilarrezko kurutzearen ondotik, elizatik kanporat oro atheratu zirenean gero, zer ikusgarria iguzki ederraren azpian! Nexka muñuña batzu lehenik, beren bandera pullita aintzinean, bertze bandera ttiki batzu eskuetan, aingeruek bezala sorbaldetan hegalik bazutenez othe behaturen baitzinioten; andreen lerro bat gero, zinez sekulakoa, arrosarioak eskuan, beren mantelina ederretan kukutuak baino gehiago pullakixko aphainduak. Ondotik, mutiko andana bat gaitza, beren errient girixtinoekin; gazte koxkorra batzuetarik hainitz, gizon gothorrez oraino gehiago, San Blasen eta Jon Doni Petriren banderaren ondotik, oro arrosarioak eskuan. Beren bikario maiteak erdian, kantuz eta othoitzez bazoazin, urhats ederrean. Soldadoak heldu ziren gero, beren aintzindariekin, beren musika xoragarriarekin, Frantziako bandera lehen, makilek, ezpatek, urheriek dir dir egiten zutela iguzkira. Beattarrez sekulakoa bazen, zoin beren puskekin edo banderekin; isentsulariak biranazka. Lore botatzen, iguzki sainduaren aintzinean, baziren oraino dotzena bat muttiko ttiki, otharre pullit batzu eskuetan, xuri eta gorri beren ondotik bezala.

Eta gizon-gazte kantari multzo baten ondotik, huna, aphezaren eskuetan, Sakramendu-Saindua. Urhatsez-urhats heldu da, haren barnean kukutua dagon Jesus ona lehenago Jerusalemeko karriketan bezala. Ospe handiagorik egiten ahal othe diote bere eskualdunek? Lau gizonak, manteleta beltzetan, eskularru xuritan baderamate Jainko-Gizona gerizatzen duen pabillona. Pabillon horren aintzinean, aldean, beattarrak oraino eta oraino, beren esku-argiak eta xirioak eskuan; lau zapur handiak, beren haizkorak bethi bizkarrean.

Eta orai, ostia xuriaren segi, auzapheza, herriko gizonak, arrosarioak eskuan hek ere, Jesusi hurbil hurbila, ohorezko tokian.

Azkenik, Mariaren haurren lerro xuri ederra, bere bandera bereziarekin, Birjinen Erregeari gorthe egiteko bezala, Jesusen alde aldean emana. Lizartzako Goaña han da, neskaxa kantari heien erdian, bihotza lorietan, Jainko maiteari hain hurbil gaur hola delakotz. Othoitz karsuenak badoazko bihotzetik ezpainetarat, eta —enganatzen othe da? — iduri zaio: Jesusek, bere osti xuriaren barnetik, begi handi batekin bezala behatzen diola... haren geroari. Zer eta nor ikusten othe dio, gero hartan?... Eta, bet-betan, gorri gorria egiten da neskaxa gazte ona, han, iguzki sainduari hurbil, lerdan eta xuxen bazoan aintzindari gazte hetarik batez orhoitu eta. Ez ahal zitzaion Jesus amultsuari gaitzitzen, holako gogoeta bat ethortzen baitzitzaion, haren ondo ondoan!!! Bihotzak lasterrago jo zion beraz haur gaixoari; bainan, gero, kolpez sosegatu zitzaion bihotz hura, arima zola zolan iduriturik, begi on on batzuekin behatzen ziola Jesusek haren gogoeta garbiari...

Ezkila errepiketan, atabal eta turruta soinuetan, kantu ederrenetan, bazoazin beraz, karrika handian harat. Gorri gorria hemen, xuri xuria hantxet, paretak, athe-leihoak, etxe-aintzin guziak, oihalez, mihisez, hostailez eta lorez ederki aphainduak ziren oro. Non nahi, leihoetan, haizeak alde guzietara zerabilzkan xirioak; kurutze batzu, sainduen iduri pullit batzu xirio heien erdian, Jesus Jainko-Gizonaren ikustera etxeetarik jali nahi balute bezala hek ere.

Haurrak, emaztekiak, gizonak, neskaxa eta gizon gazteak, oro kantuz ari edo bederen othoitzean, ogi pitta baten idurian gorderik heldu zen Jainkoaren ohoretan! Orok sukar bera bihotzean, duda-muda ttikiena gabeko sukarra!

Sukar hori orok izaki eta, ez zuen beraz gutienik sumatu behar Oihanaldeko

Piarresek. Gazte zen; nornahiri bezenbat laket zitzaion ergelkeriarik gabe jostatzea, hirri-egitea. Bainan, muthiko tiesoa zen egiazki, eta zinez jainkotiarra. Eskualdun esnearekin batean, xurgatu zion amari bere eskualdun fede handia.

Thomas bere aitak bezala, odolean zuen fede hori, erraietarik, errotik sinhesten baitzioten Jainkoari eta harek, lurrean, bere orduan utzi Elizari. Haur-elhe guti behar zen harekin gauza sainduetz. Nehork sekulan, ostatuan edo merkatuan, solas lodi eta gizen zerbeit arthik zezala haren aintzinean..., bertze asko muthiko zozok bezala, mando-aho alimale bat hirriz kirrikan idekitzeko orde, Piarres jazartzen zitzaion berehala; ez oilar-xalaparta bat bezala, bainan mendi-pareta bat bezen hazkarreko hartza bezala. Phesta-Berri Otaba hartan berean, ikas-bide behar zen bere laguneri, berehala erraitera goazin bezala.

Ez zen, nahi baduzue, handi handi hetarik. Senpertarra zen Piarres, eta senpertar mota ez da baitezpada kalamanka. Izaitekotz ere —burlari xangarin batzuek nahi luketen bezala— belhaun-buruak omen lituzke handixkoak; behar bada, bere lur-gizenetarik atheratzeko frango aski bermatu behar delakotz eskalapoinen barnean. Egia denez hoi? Ez nakike erraiteko, behin ere ez baitiotet nik belhaunik neurtu; are gutiago aiphatu xangarinek...

Piarres ez zen beraz handia. Bainan arbola-ondo bat ez zen hobeki bere erroen gainean landatua, nola hura bere zango... zankarren gainean. Kaskoin ergel batzu, soldado hura Baionan zelarik, hiru baten kontra hari egun batez atrebiturik, hiruen artean inharrosi ere ez zuten senpertar haitz gaztea; hiruak lau hatzez gora bota baitzituen azkenean Piarresek. Zango eta ixtazain kazkarren gainean, gorphutz bat lerdena, belhar-zama handienek sorbaldetan doi doia plegatuko zioten gorphutza. Ile beltz eta eder batzuen zolan lepho bat zabaltzen zitzaion, Zantzon zenaren lephoaren idurikoa, nehor gutiren ahurrean ohatuko zena. Bere mustatxa pullita, eskualdun egiazko guziek bezala. Baionan, soldado ile-moxtaileari utzia zion, bere bi urtheak han eginik Oihanalderat itzuli zenean. Bizarrrik gabeko begitarte arrai batean, aho-ezpain maiteenak; bi begi beltx, jendeari begira zank landatzen zirenak; kopeta bat azkenik, sudur xuxen pullit baten gainean, eskualdun errabot bat bezala, kapeluaren azpian ederki neurrian zabaltzen zitzaiona. Horra, ia bezen xuxen, nolakoa heldu zen Piarres, Phesta-Berri egun hartan.

Karrika guzia iraganik, Moxkoeneko aldarean gelditua zen proesionea.

«Compagnie! Garde à vous! Présentez armes!»... «Tantum ergo» kantatzen zuten orai guziek, aldare pullitaren aintzinean.

Eta, karrosa batean Baionatik edo Miarrizetik ethorriarik, Laffiteneko ezkinean geldituak, huna sei zazpi gizon gazte, hasten direla kantuz hek ere, eskarnioka eta hirriz, elgarri keinuka. Jaun erretora, aldarearen aintzinean jada belhaunikatua, gorri gorria egia zen, Ostia Sainduari arthiki burla sumaturik. Bere gazteari behatu zioten, eta, Piarresek, ahapetik kapitainari zerbeit erranik, berekin hartu zituen Martxel, Pierre, Koxe eta Leon, lau zapurrak. Hitz bat erran gabe, keinu bat egin zioten doi doia; eta lauak eman ziren karrosaren bi aldetarik, haizkora handiak sorbaldan, zinez izigarri bere bizar beltzekin. Piarres bera, burua xut, ezpata xuxena ahurrean, begiak bipil bipila, hanxet zagon, zaldien aintzinean!...

Ba eta gure gizonxkilak zalukara ixildu, on bazitzaioten eta ez!... Hetarik batto flakatu ere zen hantxet. Herri guzia aintzinean iragan zitzaioten gero, halako hirri maltzur batean; eta orduan bakarrik, mainguka bezala urrundu zen karrosa herresta, Sarako alderdia...

Musika errepiketan sartu ziren aldiz senpertarrak beren eliza maitean; eta, orai,

ortzi-azantz batean, selauetarik beheiti heldu zen bethiko eskualdun aire zaharra:

«Bai bihotzaren erditik,
Dezagun kanta gogotik!...».

Bertzeak oro baino gogotikago kantuz ari zen Piarres, bere Jesus onari eman zion maitetasunaz loriatua.

* * *

Ilhuna jautsi zelarik herriaren gainera, Piarres aintzin, muthil gazte andana batek igurikatu zituen miarritzar kokillotak. Minik egin gabe batere, nahi zioten ikare-daldara pitta bat eman, jendetasun zerbeit hiritar kasko arin hetan sarrarazteko dina, doi doia.

...Bainan, usain txarra usnaturik, San Iñazion barna, Azkainen barna, xitun xitun, ixil ixila, bertze bide batetarik itzuli ziren gure kaskoinak. Eta, hola hobe izan zen behar bada guzientzat...

XIII

Piarres merkatuan

Merkatua zen Senperen, ortziraletan, hamabortzetik egiten den merkatu ttikia.

Ttikia erran dut; bereziki hamabortzetik egiten den merkatu batentzat.

Handiagorik egin ohi da lehenago Senperen, Ahetzeko bidea eta Arbonakoa bera, bat arras funditu eta bertzea ongi zilokatu aintzinean, edo Espainiako mugak hetsi baino lehen. Auzo herrietarik, Ahetzetik, Arbonatik, Uztaritzetik erre kardari zonbeit; Saratik, Ezpeletatik, Hazparnetik, Makeatik beribil banaka batzu. Xerri tratulant ahutart bat; doniandar eta bertze, molde ederreko buxer parrastaño bat; Senpereko gizon eta emazteki andana bat, kabala, puailleria eta errekeitu zonbeiten erdian. Utsaleko zubiraino Iehen balin bazoazin ere kabalak, Saatenetik urrunago joan gabe eremurik aski bazuten orai guziek... Horra Senpereko merkatua.

Gauza guzieri ohartzeko, maite zuen Piarresen merkatu zenbeitetan trikatzea, aroak jendea laguntzen ez zuelarik, edo lanak ttikituxe zirelarik. Ezpeletaraino joaiten ere bazakien, noizetik noizera, eta herri pullit hortako feria guti hutseginen zuen pottokez gogo maiz hartua zuelakotz. Bere harat-hunatak egin ondoan, gogo onez bazoan, trinketea Dongaitz, Leonis, Puxat eta bertzeak goretsi beharrez, loriatzen baitzen heien ukaldi ederrak ikusi eta. Gero, Xilarrenean gazte lagunekin mus partida bat edo bertze eginik, Ezpeletako haxoa etxe-arno hoherenez ithorik, ilhuntean heldu zen Senpererat, paparoa berorik, kantu errepiketan, hozkariarik maiteenean. Eta artats hartan, bazen harramantza karrikan: oinezko eta zaldiko, karro, beribil eta pirripita; jendeak oro oihuka, Senpereko ostatueta goxatu nahiak oraino, etxelakoan.

Harrabots gutiagorekilakoa izaiten bide zen Senpereko merkatua... Bi orenak arte, karrikako jendeek beren pusketeriak hola errex eros zetzazten, deus ez ziteken sal han gaindi, eta astiro heldu ziren beraz senpertarrak eta bertzeak.

Gero, hatik, karroak agertuko ziren, burdin harramantza izigarri batean, ixil ixila aldiz beribilak. Arbola azpietan, plazako etxeen aintzinean, saski eta otharreak zabaltzen ziren berehala; eta karrankaz oiloak eta oilarrak, karrasiaka oilaskoak, oihuka ahateak, jauzteka lapin beharri-luzeak, lerro emanak ziren lasto puska baten gainean, edo bardin lur eta harriaren gainean, aztaparrak bide luzean hanturik, minberaturik. Oihal xuri xuri batzuen gainean hedatzen ziren aldiz gasna, arroltze, baratzeakari eta fruitu edo igali mota guzietarik. Bazar bat edo bi ere ikus zitezken, bixkotxa saltzaile batzuen erdian. Etxe-ezkin batean, mendi bat zapata altxatuko zen, xuri eta gorri —beltxak ere zonbeitño— jendea ez baitzen gutienik harat bildu behar, arratsalde hartan guzian.

Eta hango kalaka orduan! Oro emaztekiak, alabainan! Auzo herrietako eta herriko berri guziak hegaldaka bazoazin ahotik ahora, ttiki ttikiak hementxet, handituak eta tarrotuak hortxet, alimale eginak haraxe orduka. Sasoin guzietako jende-jorrak... merkatuak.

Jandarmak, argi argia harmatuak, harat-hunat bazabiltzan, beren buruaz pitta bat hartuak, halako jendetzeak nahi ere zuen bezala.

Piarresen doi doia behatzen zion emazteki merkatuari; ez batere gehiago, pinpirinak iduri, orotaz ikusiak nahi ziren basandere batzueri, hirri eta hirri, beha eta beha, goiti eta beheiti, gelditu gabe, beren doterik hoberena bizkarrean, iragaiten hantxet ziren printzeseri.

Behi bat, xaal bat ere laster heiatik khentzekoak zituelakotz, xerri-merkatuan harat-hunat bat egin ondoan, hantxet zagon, herriko-etxearen aldean, gizon multzo batekin solas eta solas, behi ala miga, zokor ala ergi, deneri ohartua.

Buxer-nausiak, buxer-muthilak, merkatuko jaun handi, errege handi kasik; Senpereko xaal onaren ondotik urrundik ethorriak. Ezin-hurbilduak, —hala nahi balin bazuten— harat hunat bazabiltzan, beren artean hitz hartu eskaintzaren egiten ari. Karrikaren bi buruetan, plazaren erdian, berehal berehala egina zen batzuetan tratua. Bertze batzuetan aldiz, bere aintzinean ekarri xaal pullita eskaintzaz gorago baliatu nahiko zuen jabeak. Orduan, joanen ziren buxerak; bazkari bat ona eginen zuten ostatuan, eta... arratsaldean. etsiturik azkenean, bordaria eroriko Zen goizean baztertu eskaintza hartara berera. Diru joriaren egiteko, xuhur, biziki xuhur athera behar zen xaala egun hartako merkatura.

Eta orai, alimale gaixoak, —koka-ahala koka, karro handi batzuetara borthitz bothitza besotarako arthikiak, bi burdina lodiren artean iraganak— begi handi eta zozo batzuekin guzieri beha, meu eta meu bazoazin Donianerat edo Miarritzerat, harat norapeit.

Azienda maltso batzuen ondoan, xamar luze batzu soinean, makila laburra eskuan, tratulari zonbeit inguru inguru zabiltzan. Lephoan, bizkarrean, saietsean eskuzafila bat behiari igor, buztana altxa, makila laburraz kaska ttiki bat eman aziendari eta bardin behiaren jabeari, elhe maltzur batzu ezpain xokoan, liztafinak iduri zuten, dena keinu, dena oihi. Bi urhats egin orduko gibelerat, berriz harat bererat itzuliak, bertze tratulant bat, arranoa bezala beha egoki, hantxet ikusirik. Jean Kaskoin maiteak, bere xerrien inguruan, ez ahal zuen gehiagoko zinfoniarik, hek behi maltsoaren ondoan baino. Alimalearen jabea Larrungo pareta baino gehiago ez zen lehenik mogitzen. Esku bat behiaren gainean finkatua, zigor ttiki bat bertze eskuan, beha zagon liztafinari. Liztafinari, jabeari, behiari beha eta beha, ixil ixila han zauden ere Piarres eta haren lagunak, besoak kurutzaturik edo gerruntze giblean emanik.

—Nahi duk hunenbertze?...

Orduan bakarrik mogituko zen harri pareta. Begiak argi argia, burua xut emaiten zen gizona:

—Holako behia, horrenbertzetan!... Ez diok ongi behatu!...

—Nahi dituk bost duro gainerat?...

—Ez duk aski.

—Bego beraz!...».

Eta bertze tratularia han zen berehala, alegia eta deus ere ez aditu edo ikusi, hasten baitzen:

—Behi pullita duk hau, Mattin...

—En'ustez... Eta maltsoa, prestua! Pikokoa behar balin baduk, hartzak; laneko nahiagoz, ez duk hoberik atxemanen...

—Ba, mendiko behiarentzat ez duk gaizki. Nahi duk hunenbertze?

—Ez; berrogeita hamar libera ematzik gainera!

—Berrogoi... Alo, hots, emak esku, eta goazen oro Mattintegirat...

Buruaz keinu berriz eginik, eskua daldaran gora altxaturik, bere behiaz ongiz leherra oraino erranik, esku hura emaiten zion azkenean bordariak tratulariari, eta, saltzaile, erosle eta behatzaile, bazoazin oro ostatura...

Behi gaizoa, zonbeit aldiz, hantxet egonen zen, nausi xaharrak utzia, nausi berriak ez oraino hartua, mu eta mu, artutsean destenoreak arte, eta bardin biharamun goiz arte,

tokeroa karrika-xoko zonbeitetan galdurik. Eta urruntxagotik, hala hala burdinari estekaturik utzia izan zelakotz, xaal gaixo bat meu eta meu ari zitzaion behiari.

Merkatu erditsutan, Xantiago, herriko muthilak pilota partida bat oihu eginik, errabotera joan zen lehenik Piarres.

Jende parrasta bat bildu zen plazarat; bainan partida ahulxkoa iduriturik, ostaturat joan zen muthil gaztea, musean pitta bat deskantsatuko zelakoan. Bainon, errana zen guti deskantsatu behar zela arratsalde hartan.

Bozkak hurbilduxeak ziren herrian, depotatu bat Pariserat igorri behar zelakotz.

Piarresen bazakien zer egin bozkatzeko heier buruz. Eskualdun astekariak errana zion nor ziren heien aintzinerat agertzen ziren bi gizonak, eta gizon hetarik zein behar zuen hautatu eskualdun girixtinoak. Bertzalde, herriko gizon zuhurak han ziren, gau guzia etxez etxe bardin ibilirik, bozka bezperan helaraziko baitzioten, biharamunean herriko-etxean eman behar zen papera. Bozka egunean gero, oro joanen ziren, burua xut, barnean kilikarik batere gabe, meztatik landa, beren eginbide handiaren xuxen bethetzera. Bazter-nahastaileek ez zuten heiekin deus egitekorik; eta nehor guti zen, dire puska batean edo krakada batean truk, bere eginbide hura salduko zuenik. Eta halakorik batere balin bazen herrian, aire utziko zuten hura... krakadarik gabe. Xahar xahar bati edo bertzeri kafe bero bat emaiten zitzaion doi doia, urrunetik ahitua zeren zen ethorria, eta behar bada herrestaka. Arratsean gero, ilhuneko jendea etxerat itzulirik —nola bozkatu ziren herrian jakin ere gabe, gehienak—bertze igandetan bezen ixil zauden Senpereko bazterrak oro.

Bainan, merkatu egun hartan, arno ttotta batek burua nahasirik, eta arno harek barneko mina kanporat jauzarazirik, bazen Mattintegian halako gizonxka bat, dena ttarrapatta, ondoko igandeetarik batez behar ziren bozkez baizik ez baitzen hura mintzo. Tetele batez edo biez kanpo, ez zion nehorik behatzen ere.

Tetele hek hari beha sumatzeaz kukurustatua, bere buruaz, bere ttartapattaz dena hartua, xotatua, mahainari joka ari zen:

—Hura gorria zela gero, gorria... arno ona bezala, eta gorriek baizik ez zutela haren bozik sekulan izanen!...

Piarres Oihanaldekoari auzoko mahain batean oharturik, oihuka hasi zitzaion betbetan, dixiduka:

—Errak to, Piarres... Zer diok, hik, zuria?

Piarresen, mogitu gabe eta ez-adituarena eginez, bere laguneri:

—Mus, exku...

Gure Gorria, erhotua zeren ez zioten behatu ere nahi, xutitu zen; eta, traba egin nahi zioten tetele parek besoez baztertutik, badoako Piarresi aintzinerat:

—Gorra haiza, Piarres? Ez duka nik errana aditzen?...

—Paso ttikira...

—Zer, paso ttikirat eta handirat!... Oro bardinak zaitze zuri horiek guziak... jaun merak, aberats horiek eta aphezak sudurretik bethi eremaiten zaituztela!

—Pareak ba eta inbido... Utz nezak hortik, musean artzera, Antton! Hi bezala, sudurretik norbeitik ni ere ereman behar eta, nahiago diat aphezak eta gizon zuhurrek ereman nezaten, ezen ez eta hi bezalakako gizonek... Biga gehiago paretara!...

—Zer erran duk, Piarres?...

Eta, begiak beren ziloetan biraka, Antton besotik lotzen zaio Piarresi...

Ah! baia?... Piarresen, xutituta, dabla, dabla, bi paso emaiten diozka gorri atrebituari, eta hantxet, lau hatzez gora igortzen du mahainaren azpira...

Ahal zuen bezala xutitu zen gizon herresta. Haren lagunak arizan zitzaizkon alegia berriz jokatzeari traba egin nahiz. Antton bera, ezin errexitua izan balitz bezala zapartaka hasi zen. Bainan, gero, bera bezala gorri nahi zuen sudurra... minberatua sumaturik, ematu zen, Piarresek gehiago behatzen ez ziola; eta oihuka urundu zen, bertzaldi batez oraino atxemanen zuela zuri debrual... Moxkor maitagarri batzu, kantutatu eta kantutatu ari ziren xoko batean, Antton Gorri eta haren kalapiteri ohartu ere gabe: «Gazte nintzanian, denbora batian»...

* * *

Piarres, bere mus-partida puxka bat airera bururaturik, goizik itzali zen etxerat. Eta, afaiten biak ari zirelarik, aitari erran zion, ostatuan, ontsa nahi gabe, zer gerthatu zitzaion. Eta, Thomasek, lur huntan diteken gizonik prestuena zelarik, hitz hauk erran ziozkan doi doia:

—Ontsia egin duk, eta hire orde, bertze hainbertze egingen nian... Aphezak ez dituk aho-mihietan guk erabiltzekoak; eta hobe gindikek segur, heien erranetik ibil baginte bethi...

XIV

Bas-herrietako zoriona

Bozkak iragan ziren beraz herrian, deskantsurik ederrenean.

Igande arrats hartan halere, kataska-biderik ez hartzeko nehorenganik, Piarres, bertze aldietan ere baino goizago itzulia zen etxera.

Etxe hura egundaino baino maiteago zuen. Maitasun bero bero horrekin, loria bat heldu zitzaion beraz, ilhun-nabar hartan. Gau bat ederra zen. Gora bazoan ilhargia, urdin urdina egiten zuela zerua, xuri xuria kanpo guzia. Uso ilhunak laster iragan behar ziren bide zabalean, Jon Doni Jakoberen izarrak eta bertzeak, milaka eta milaka, dir dir, argi argia ezagun ziren, lurrari keinuka.

Inthari gora, kantuz heldu zen Piarres:

Zein den eder, arratsean.
Izar ante garbia,
Ipharretik agertzean
Mariñelen argia!
Bai, handizki eder dago
Zeru-zola handia...

Jenderik othe da izar pullit hetan? Arimak harat joaiten othe dira, beren gorphutzak uztean, hegaldaka? Eta arima hek, suz eta argiz eginikako untzi handi hetan ibilki othe dira, gain hatan, zeruko itsaso urdinean?...

Eta, ibar muthurrean gelditurik, bultatto bat beha egon zitzaioten Piarres. Mila harrabots heldu zitzaizkon herritik, oihanetik, urruneko uhaitzetik, itsasotik beretik. Behizain oraino tenore hartan, gizon gazte bat kantu errepiketan ari zen, han nonbeit, ipular batean. Zeru gain hetan, aldiz, deus ez zen mogitzen, urhezko izarrez bertzerik. Eta bethi bezala, ttiki, biziki ttiki kausitu zuen Piarresek bere burua, holako gauzak egin dituen Jainko handiaren aintzinean. Ezen, ederki sumatzen zuen tenore hartan, uhartzeak... lurra bezala, Jainko horrek alde orotarik inguratzen zuela... gizona...

Berriz begiak behehitu zituelarik, gaineke argi eztiak xoratu pitta bat balu bezala, deus ez zezaken lehenik ikus muthil gazteak alde aldeko gauzetarik. Halako ikare goxo batek inharrosi bezala zuen zangoetarik eta kaskoraino. Gauazko har xuri bati sasi batean oharturik, zonbeit urhats egin zituen; eta, ilhunbeari berriz begiak trebaturik, hurbil hurbila, han zuen, aintzinean, Oihanaldea, bere etxe maitea. Eta ilhuntxe hezean, bertze aldietan ere baino beroagoa iduritu zitzaion.

Zonbeit aste lehenago, burrunbaka zabilan erle-ume bati oihanean oharturik, hosto, xixtapur eta harri kixkolak ahutaraka aintzinerara arthiki ziozkan Piarresek, oihurik amultsuena ere ba: Bil Maria, Bil Maria! Eta, erle-umea finkatu zen haitz-ondoari, bi haizkora ukaldiz, kurutze bat egin zion berehala. Erle-umea harena zen handik harat, nehor sekulan ez baitzen erle-pilotari atrebituko herrian, eta, norbeit atrebitzekotz, segur hilen baitzitzaizkon hari erle maiteak. Kofoin bat ederra ekarri zioten gero Piarresek eta haitz-ondoari hurbil hurbila eman. Eta erle gaixoak pulliki sartu ziren kofoinean, xoriak beren ohantzean bezala, osoki berehala etxekotuak, kofoinetik loreetara, loreetarik kofoinera xaflaka hegaldatuak, beren lan zinez eztiari kuxean emanak.

Eta, han, Oihanaldeari hurbil, gogoratu zitzaion Piarresi, erle-ume hura kofoinera baino maitekiago bazoazila hek beren etxera. Ihes-leku hoberik ez zuten nahi, ez herrian zaudenek, ez eta ere herritik urrun, itsasoz itsaso, Ameriketarat egun batez joan zirenek, noizpeit oraino harat bererat berriz itzultzekotan. Hilak berak han gaindi ibilki ziren, biziak zonbeit aldiz sumatzen bezala baitzituzten, ohiko tokietarat ixil ixila jinak; nehor sekulan izitu gabe, hainbertze maite izan zituztenen laguntzera berriz ethorriak... Eta sukalde beroan sartu zen Piarres, gogoeta goxo horiek bihotzean.

* * *

Biharamun goizean, eta goiz guziez hala hala, ez zen ttikiagoa Piarresen zoriona, artizarra iguzkiak histen zuen tenorean, Hergaraiko kaskoan iguzki hura zelarik jaltzen. Argi-zirrintak bere lehen musu goxoaz jotzen zuen Oihanaldea, etxea bere itzalaz gerizatzen zuen eltzaur-ondoari dir-diran emaiten ziozkala hostoak. Sorroa, dena su, urheztatzen zen beherala, zilarreztatzen aldiz berho-sasietako ihintza, baratzeko irmi-armu sare pullitak.

Begiek, ikus ahala urrun, bazuten zertaz ase, herriraino lehenik, mendi handietaraino gero. Eta Larrune, Peña-Plata, Ibanteli, Hartzamendi, Mundarrain aita-alabak, orenetik orenera zeruarekin mudatuak agertzen zitzaizkon, ostixoan baino ere orai ederrago. Eta mendi heien artean, zelaiak ederrena, iguzkiaren argi, su eta indar guziak, hedoietak lanho eta uriak bildu behar zituen untzi handi bat erranen baitzen, Oihanaldeko gainetarik behatu eta. Eta gauza horiek oro, beren buruak indarka altxatuz eta goratuz, Jainkoarenganat gaki guziak!

Bai, goxo zitzaion Piarresi, heien guzien erdian hura bizi baitzen; eta ez zitzaion gogoratzen ere, halako kofoin maitetik, erle-umea bezala athera zitekela sekulan. Haurrideek berek egun guziez gehiago josiko zuten etxeari, eskualdun garbiak egiazki zirelaketz, eta eskualdun garbiek etxeei lehen emaiten dutelaketz bethi, etxe hura, zatikaturik, auzoko edo urrungo arranoeri utzi gabe behinere.

Hazteko behar zituenak oro han zituzkeen bethi, hel menean, eskupean, Jainkoaren ahurretik jali bezala, garbi eta argi. Eskualdun hats on eta nasaia harturen zuen bethi Oihanaldean; eta hiritar hetika dohakabeeri, diruaren puntan baizik ez diren jan-edan nahastekatuekin, utziko zioten beren hirietako hats erhaustatua, zerurik eta izarrik ez balitz bezala bizi diren etxe mehar ilhunetan. Zer ziren hiritar heien, atseginak deitzen dituzten harat-hunat guziak, bere mendiaren kaskoan zituen zorionen aldean, pilota partida eder baten beraren aldian, herri gauza lekuko, han hura agertzen zenean?

Hirian, hala da, beribil, ximixt-argi, aireko xori eta gizonen bertze asmu asko kausi ziteken, herrian guti halakorik izaten baitzuen muthil gazteak. Bainan horiek oro nahiz ez ziren heldu debruaren oldetik, nahiz Jainkoaren nahitik atheraiak ere ziren edo bederen haren baimenetik, horietaz orotaz ez othe zen Etsaia baliatzen? Horiek orok, bere lurretik, bere aztura on guzietarik kanpo, erroz gora, gizona ez othe dute emaiten? Gizonak, hola, ez duke ez astirik, ez tokirik, Jainkoak harentzat zadukan biziak bizitzeko, arbasoak lehenago zoriontsu egin dituzten gauza beren, hek bezala, sumatzeko, aditzeko eta maitatzeko. Aberatsago diteke behar bada jendea, ez ordean dohatsuago; eta gauza gutiagorekin biziki, zorion handiagoaren jabe zen lehenagoko jendea. Sukar gehiago egungo egunean, ez ordean gozo gehiago. Jendea arinago bakarrik.

Eta horiek guziak hola, bizi hau bardin dorpe gelditua; dorpeago ere ez balin bazen

bilakatua. Lur huntako bizi-pidea, ohiko nigar-bideen pean, ozke berean egoki bethi; jendeak bakarrik mudatuak, urriago sortuak, zonbeit urthez doi doia, bizi, bethi zainetan; eta gero, hain laster ehortziak! Intha hertsieri gora orgetan, edo bide-xendra meharretan oinez, gizonak ez othe zoazin malsokiago heriotzeari buruz, ezen ez orai beribil edo pirripitetan, eta ixtantean aireko xori-burdinazkoetan? Fur-furian orori behaturik, deus ikusi edo egiazki maitatu gabe ez othe doazi gizon horiek, parrapatakan eta —lasterka hek ere— heldu diren bertze batzueri toki egiteko? Biziaren bihurgune guzietan iduri baitu, zinez eta egiazki, herioa han dagola, beren oldez hari buruz lehenago baino zaluago heldu zaizkon guzien iresteko!...

Ororen buruan, honbertze harat-hunat, honbertze inguru, holako sukarra, ez othe dira zorionari bizkarrez ilzultzeko? Eta lur-gain huntan izan diteken zorion pitta ez othe du hobeki beretzen, bere mendi-kasko eta ibarmuthurretan edo oraino aran-xiloetan, athorra mahunketan izerditzen den artzain edo laborari eskualdunak, eskalapoinetan maizenik baitabila, malsokiago heriotzeari buruz joaiteko bezala?

Pairatuko zuen harek ere zonbeit aldiz, lurrik ederrena lur bethi gelditzen delakotz, hedoiik gabeko egunik nehoentzat ez delakotz zeruan baizik. Bainan, hirietan baino Jainkoari hurbilago biziko ere delakotz, Jainko hoi maitatuko du pairamen hetan beretan; badaki ezen, lurra hola maitatuz, eta hola bakarrik, doakela egun batez zerura.

Eta gero, pairamen horien aldean, aiphatu zorion handiez kanpo, bertzerik ere ez othe dauka Jainkoak harentzat? Jainko on horrek begirtzen balio, bihotz zola zolan berak ongi dakien maite bat paregabekoa?... Hirietako panpina guziak ez othe ditu balioko, Oihanaldeari hurbil hurbila, egun oroz gehiago zabalduz heldu den pinpirina garbiak? Lurrezko eltzerik urrun urrun bilhatu gabe, alde aldean, Lizartzako Goaña ez othe da harek behar duen eltze urhezkoa?... Ama-Birjinaren soin-xuri pullit hartan ez othe du, bere ondoan, mahain Sainduaren aintzinean, meza beraren entzuten, egun batez ikusiko?...

Bainan, zer?... Badu asti oraino! Hogoita lau urthe ez ditu! Badu zorion, badu gozo, bihotzaren bethe. Egunean egunekoa gozaturen du anhartean, eta geroa emanen du guzi guzia Jainko onaren eskuetan.

* * *

Bai, Piarres, molde berrieri neurritz ohartuko zitzaiotelarik, bere hartan bethi egonen zen bizkitartean, aitaren, aitaxoren, lehenagoko aitaxo guzien ozkean. Eta ez zitzaion batere idurituko bertzeak baino gutiago zitekela, hola jokatz. Guzien buruan, normahik bezenbat zorion beretuko zuen hemen berean, eta nehortaz ez zuen zeren bekaizti. Eta gero, bizi-molde hainitz eta hainitz mende huntan izanagatik, gure onetan guziek bildu behar dugun hel-burua... bardina gelditzen bethi, eta buru hortarik beraz, gizonak oro bardinak izaki!

Oihanaldean sortua, Oihanaldean biziko zen beraz eta Oihanaldean hilen, Jainkoak nahiko zuelarik. Hiritarrerri bereri baliatuko zitzaioten bas-herrietan hola, xinhaulriak iduri, gelditu baitziren hura bezalako hainitz; ezen, zorigaitz hiriari, lan-sari handiaren gose eta egarriz, bas-herritarrak oro, edo gehienak, hiri hartara jautsiko direlarik! Harenak egin du egun hartan; eta noizpeit beraz, goseta ez jitekotz, noizpeit, beharko du hiritarrak berak bere lehenagoko mendi-alhorretarat itzuli.

Oihanaldean bethi hola gelditzen, elizaren, etxearen eta hilherrien gainean bermatuko da.

Elizan, Jainkoa aurkituko du bethi jainkozko indarrekin, zeruko Amaren laguntza amultsuarekin, arbasoen hats eta erakaspenekin.

Etxean, bere aitaren eta amaren aldean, Oihanaldeko nausi ohi guzien on-bideak hartuko zituen, etxe hura hazkar bethi begiratu zuten on-bideak oro. Bere aitari behatzera askiko zuen, errege amultsu, errege oso, egun batez hura bezala izaiteko.

Eliz hilherrietan gero hazkartuko zen, nahiz ez ziren gehiago hilherri baizik, Jainkoar ekarria zaion herrak eta bertze bizitze baten beldurrak elizaren aldetik urundu dituelakotz, bi mila arima bederen dituzten herrietan. Lurpean usteldu hilak galbide omen ziren bizientzat; usteldura handiagorik ez balitz bezala etxeetan beretan, eta non nahi kanpoetan! Eskualdunak, herraren orde, maitetasuna du Jainkoarentzat; eskualdunak, jainkozko gauzeri maiz behatzen ere diotelakotz, ez du heriotzearen beldurrik. Heriotzearen ez ikusteko begien hesteak ez dio fedegabe xoroari mugarik gibelatzen; heriotzaren ikusteko begien idekitzeak ez dio hala hala muga hoi hurbilago nehoi emaiten. Begiak ideki ditu beraz eskualdunak. Kaskoz jokatu da bethi. Ikusi du; gisa hartara moldatu ere du bere bizia. Eta horra zertako izan den eta bethi izanen den egiazki fededun: beldurrik gabe zeren dion behatzen herioari... Guzia hortan datza fededun eskualduna.

Piarresen behatuko dio beraz, beldurrik gabe, Oihanaldeko hil-hobiari, eta hobi hartan ephe labur batentzat ihartu eta erhaustu eskualdun garbiez orhoiturik, hek bezala higituko da... Oihanaldean.

XV

Eliza-phestak

Uda bethean harat bazoazin. Uda bat ederra, eta ederra bezala, ona; zeru urdin lilluragarriena, iguzki bero eta gozoa; gauak aldiz izar-ihintz baliosenaz goxatuak. Ogiak heldu ziren erhotuak, urhearen pare, fereka baten galdez bezala, eta itsasoan uhainak bezala, farra farra alderdi guzietara kurtuak haizearekin.

Arthoak, bi-hiru aldiz jorratuak, ezin aski luzatuz ari ziren hek ere, eta, gauza segura,

«Jon Doni Joanez gordaturen zutela oiloa,
Jon Doni Petriz aldiz... ardia».

Klok, klok, kuku-mauka ari ziren non nahi aphoak eta xixtuka.

Oillanaldeari hurbil, aintzira batean, sugea sorro azpian sumaturik, igelak, ihien artean begi handi batzuekin kurumilkatuak, elgarri ari ziren:

—Ikusi dukes?

—Nor?

—Lepho-lux (sugea)?

—Nik ez!

—Hik ez, nik ez!

Eta guziak betan hasiko ziren gero, bethi'ta zaluago, hatsa galdu arte:

—Hik ez, nik ez, hik ez, hik ez, hik ez, hik ez, hik ez, hik ez...

Eta gauzak eta jendeak, oro zorion osoan heldu ziren beraz, noiz eta, egun batez, han, Hartza-mendi, Mundarrain eta Itsasuko Ateak hartzen zituela, lanho itsusi bat hedatu baitzen, arratsalde erditan, zuri zuria lehenik, ilhun ilhuna gero, eta azkenean, dena hauts-kolore.

Mustro bat iduri, kurumilkatuz bazabilan, bortuetako pozoinak oro bildu nahi balitu bezala. Eta orai, pozoin hetaz leher egiteko heinean hantua, pisu pisua heldu zen, zelaieri buruz. Eta Lapurdi guzian, ikharatu ziren jendeak, alimaleak eta kasik ere gauzak... Uztailleko lehen egunak ziren, eta, bazter guzietan, alhorrak, begiek ikus-ahala urrun, ogi urhezkoaz estaliak, sega xorrotxen beha zaudela erranen zinuten. Sega heldu zitzaienten egun, bainan zer eta nolako sega!...

Hedoi izigarria heldu zen beraz, haize zirimola batek hartu eta zeramala alderdi orotara. Urrunera, burrunba, orroa ilhun ilhun bat soma zitekeen, lazta bat emaiten baitzieten guzietan. Eta gero, ximixtak jali ziren, hauts ikaragarriaren erditik. Zer ihurzuriak! Santa Barbara, urrikal gakizkitzu!...

Lasterra ezin aski zalu eginez, etxerat, bordalderat, heiarat bazoazin jendeak, alimaleak; ixilik jendeak, marrumaz alimaleak, oro harrituak. Xoriak, hek, aspaldi ixilduak ziren, arbola ziloetan, berro zokoetan kukutuak, ez-deustuak ere!

Lanhoak heldu ziren anhartean, bethi'ta izigarriago, ortzi-karrasken erdian. Arbolak lurreraino kurtu ziren, ile handi batzu bezala beren adarrak alde guzietara xixtuka luzatuz... Athe leihoak zapartakan abiatu ziren etxe guzietan, asko pareta zahar urratu, teilak airez-aire hegaldatu, eta... hedoia lehertu zen herriaren gainera...

* * *

Itsasoa erranen zinuen orai etxe bakotxaren inguruan; harramantza itsusienak, orroa guziak han elgarretaratuak... Arratsalde erditan gau ilhuna, dorphea, zinez izigarria; ximixta hori eta gorriak iihunbearen argitzaile.

Adarra lehertu baino lehen elizara lasterrez joanak, emazteki zonbeit, arrosarioak eskuan, othoitzean ari ziren, ikaretan. Laguntza bat zitzaioten aldare aintzineko argiak berak iduri zuen, hiltzera zoala hura ere. Lur-ikare batean bezala, daldara ilhun batekin, ikaratzen ziren eliza zahar zahar hartako paretak, eta, han, ezkiladorrean, ezkilak intzireka abiatu ziren.

Karrikan, bizkitartean, ezko-xirio benedikatuak, lerro lerro, phizten ari ziren, etxe guzietan. Ixil ixila, orok, erremu-saindu hosto bat eskuratua zuten, eta amak, erremu-saindu hartarik ahurtara bat arthikia ere zuen su-phizkiaren erdira, karrask karrask erre zadien han, eta bere usain borthitaz betho zezan eta geriza etxe guzia.

Askio herrietako ezkilak, dan, dan, dan, othoitzean ari ziren ezkila-dorre zaharretarik:

«Santa Anna, Santa Anna,
Santa Maria Madalena,
Mendietara, Mendietara,
Jenderik eta abrerik ez den tokietara!».

Ihurzuri karraska batek, su-phizkiari beheiti dena sartu baliz bezala, Oihanalde guzia ikaretan eman zuen, eta, ixil ixila, Gaxuxak bigarren xirio bat phiztu zuen mahainaren gainean.

Eta uria heldu zen, phesiaka, Noeren egunetan bezala. Ilhunbearen ilhunbez, deus gehiago ez zen ageri sukalde handian.

Oren-erdi bat holaxet iragan zen, eta gero, bet-betan, ikaragarriko karraska bat — azkena— egin zuen. Jaun erretoaren othoitzek behar bada barreiatua, —behialako konderan bezala, aphezaren zapata bat ostikoka ondolik zuela erranen baitzen—, urratu zen hedoi itsusia eta ihesari eman; uria athertu zen, eta iguzki hits bat doi doia berriz agertu.

Xoriak, beren lumak inharrosiz, tiutaka eman ziren, iñarak zerurat airatu, athe leihoak zabaldu, jendeak, alimaleak jauzian kanporatu.

Piarres, athe aintzinean, bortuetara buruz kurumilkaturik zoazin lanho itsusieri beha zagon, eta Jainkoari eskerrak eman ziozkan, zeren ogiak, arthoak, mahatsak, oro xutik gelditu ziren...

* * *

Gauzak jin, gauzak joan, kalerna-dixiduak ahantziak ziren, eta Eliza-phestaz bertze gogoetarik ez zen herrian.

Jadanik, Jon Doni Joane bezperan, bethiko suak phiztu ziren herrian, non nahi. Tiroak entzuten ziren Amotzetik, Ibarrundik, Hergairaitik, Plazatik; eta zinez egia zen, Jon Doni Joaneren sortzeaz jendeak oro bozten zirela, aingeruak lehenago mezutu ere zuen bezala.

Oihanaldean, aintzineko urtheke erremuak egurrekin harat arthikirik, su ederra egin zuten athearen aintzinean; eta Gaxuxa lehen, Thomas ondotik, oro maiteki ibili ziren su haren inguruan, arrosarioa eta gainerateko othoitzak goratik erranez.

Tartean, Piarres, Ganix, Marie, Gantxume bera, garraren gainetik, jauzian, karkaraka iragaiten ziren, lumarik suari utzi gabe batere.

Egurak errexe zirenean, Thomasek, Gaxuxak, pulliki bazterretik, —eta hirri goxoki egiten ziotela bertzeek—, adinak pitta bat gogortu eta pisutu zango batzu biraka altxatu zituzten suaren gainean, su hura benedikatu nahi izan balute bezala.

Eta gero, itxindu lodi batzu Jon Doni Joaneren suan harturik, Thomas, Piarres eta Gantxume joan ziren, itxindu heien landa eta mahastietara besagainka arthikitzera, kurutzearen seinale bat bezala airean egiten zutela, hek botatzean... Jainkoak eta haren zerbitzari handi Jon Doni Joaneke begira zetzatela Oihanaldeko kanpoak eta jendeak oro!

Eta orai, orotan, garbiketan ari ziren, xoko-moko guzien xuritzen, eta kanpoko jauntzia ere berritzen zioten asko etxeeri.

Jon Doni Petri bezperan, oilo eta oilasko gutiago zabilan baratze eta iphularretan, biphildurik xuri eta gorri, luze luzea, kukurustak dilindan emanak zirelaketz mahain gainean. Han hemenka, oilategi batzu hustu ere zituzten... axeriek. Zirikolatzeko axeriak othe ziren? Ala, bi zangoekilako bertze axeri batzu, hek ere, oilo, oilasko edo bardin oilar zonbeit gabe, Jon Doni Petrietan egon nahi ez zirenak? Hori zakiena ixilik egon zen Senperen; eta diote, azken judizioko egunean, ebastaileak eta galtzaileak elgarretaratuko direlarik, asko oilo eta oilasko senpertar hegaldaka ikusiko direla han, ohoinen aztaparretarik beren jabeenganat lorietan gaki!... Ai, Maria, ez zaitan goxo izanen! Ez alaxede!...

Zapartaka ezkilak bezperan arizanik, —atabal eta turruta—Ganix eta haren lagunak karrika guzia airean arratsean emanik, igande goizean, lehen igandea ere zelaketz eta Eskual-Herrian bakarrik hola ikusten ohi den bezala, Senpereko gazteria, kurutzea bulhargainean, hurbildu zen mahain saindura. Arratsaldean dantza-lothu zikinetarik urrun, jokoan, musean, errabotean, kanta errepiketan, fandango arinetan deskantsatuko ziren gazteak, han ziren, goizean, aldare aintzina, beren Jainkoa hartu beharrez, ihurtzuri-azantz batean selauruetarik jautsiak.

Eta Piarres eta haren lagunak zinez eder ziren tenore hartan.

Elizatik atheratzean, atabal parrapata baten ondotik kadira baten gainera igana, han zuten Xantiago, herriko muthila, goratik erraiten ziozkatela hiru egun hetako pilota partidak. Eta haro handi batean ohildu ziren han zirenak oro.

Meza-Nausia gero, berantxago, pinpirinan aphaindu eliza ederrean, hiru aphezekilako meza-nausi xoragarria. Auzo herrietarikako erretor jaun batek handizki goretsi zioten beren Patroina. Eta, aldarearen gainean, argien erdian, Dabit ihiztariak aiphatu bizar nasai eta legunean, hirri maite bat bazuen Jon Doni Petrik bere herritarrentzat, errepiketan haek hasi zitzaizkolarik:

O Jon Doni Petri,
Beha guri!
Othoitzean ari,
Gaude zuri.

* * *

Zeruan hoin handi zarena,
O Senpereko Patroina,
Izan zazkigu ona,
Maita zazu Eskualduna!...

Jaun bikarioa eskearen egiten ari zen, pazote bat bezen xut, hirri bat ordainduz sos bat emaiten zionari, milesker zorrotz bat aldiz, bi eskuetan kokotsa sarturik, bizkarrez egoiten zitzaionari. Ez zen gero jostetarik harekin!...

Eta, Anjelus ozen bat zeruraino igorritik, athera ziren guziak, bazoazila batzu hameketako poxi baten egitera, bertzeak etxera berehala. Eta, hiru egunez athertu behar ez zen Manesa hasia zen jada, para, para, para, haurrez leherra ban baitzuen berehala inguruan.

Arbola azpietan, buhame batek lerro lerro botoila zonbeit emanik, gazte koxkorro batzu ari ziren botoila heieri zurezko erheztun batzu sartu beharrez... Eta, holaxet, begien hesteko artean, bizpahiru libera sartu ziozkatzen... buhameari bere moltsa luzean.

* * *

Bazkari ederra zuten Oihanaldean, Gaxuxa, Marie, auzoko emazteki bat lagun, lehenbiziko meza entzunik, ongixko bermatuak ziren goiz hartan guzian. Ezkaratz handian, mahain eder bat plantatua zen hantxet. Mahain haren gainean xuri xuria, marra urdin batzuekin, hedatua zen, etxean irunik, Iñazio ehaileak eho dafaila handia, gauazko izar-ihintzean xuritu dafaila.

Mahainaren inguruan, Thomasen bi aldean eta hari parrez-par eman ziren bazkaltiarak, hemen gizonak, han emaztekiak, osaba, matanta, aitaxi, amatxiak, itiki eta handi, bizpahiru ahaide-aralde; Oihanaldekoak azken buruan emanak ziren oro, lanean ari zirenez bertzeak. Gaxuxa hura, Eskual-Herriko bethiko moldeak hola nahi ere duen bezala, xutik han zabilan, orori begia zadukala, etxekandre zabal eta maitea egiazki.

Mahainerat, kaldan oraino, ekarri ziren Mariek salda begiduna, hori horia, etxeko oilo ederrenek joritu salda. Nekatzaileak maltxur maltxurra erraiten obi du halako saldaz, dela «aphez-salda»... Lehenago, behar bada... Orai, aspalditto huntan, badugu uste, eltzekaria maizago derabilkan aphezak, ezenez oilo-salda.

Kurutzearen seinalea orok eginik, ixil ixila, bezperan erre etxeogi mamitsua eskuan, ufaka jan zuten beraz salda gizona, bihotza atxeman baitzioten orori. Oihanaldeko arnotik gero, zorro handiko pitxer-botoila beltz batzuetarik bethe ziren basoak. Hustu ere ziren batik zalukala. Hazpandar batek, omen, baitzion egun batez, bere baso-barneko azken azken xorta hurrupatu arte ez zuela sumatzen lehen lehenbiziko xorta, hertzea luzexko hazpandarrek izanez, badut uste Oihanaldeko bazkaltiarrek hazpandarren ite bazuten egun hartan. Ezen, basoak maiz aski hustuak ziren mahainaren gainean. Bainan laster bethetzen ziren hala hala.

Oro betan mintzo ziren orai ezkaratzean, etxe-arno urhezkoak trenpuan goxoki berehala emanak.

Salda begidunaren ondotik, ethorri ziren oilo gizenak, axaleraino gauza hoberenez orratuak, hari xuria zapartatazteko heinean hanpatuak. Tomate gorria bazen tira, nahi zuenarendako. Barnea kilikatu nahi zuela, agertu zen xaalki saltsa bat hauta, ogi-zerrak eta

erhi-muthurrak oro bardin ontzen zituela, Napoleon Handiari lehen bezala.

Errakia gero: oilaxko pullit pullit batzu, zangoak goiti kurumilkatuak, untzi luxean; xikiro azpia ondarrean, Thomasek, kanit handi batekin, xerraka xerraka, ezpainak mehatuz pikatzen baitzuen, eta kanit muthurrarekin emaiten ilhar zuri eder baten gainean.

Eta bazen haro eskaratz handian! Ganixek maiz xutitzea zuen pitxer borobilaren berriz bethetzeko. Oseba Beñat, athorra paparoa idekirik, zikiro hexur bat eskuan, kantuz hasia zen:

Nik badakit, zaharragoek erranik,
Arno onak ez duela parerik!
Orai ere balin banu hartarik,
Edan niro basoa betherik!

Eta guziek errepikatzen zioten, hire, lau bozetan:

Orai ere balin banu hartarik,
Edan niro basoa betherik!...

Esne-opila gainerateko esneki goxoarekin, pastiza begietarik eta... ahotik ezin utzia mahainean agertu zirelarik, Gantxumeren, Frantxaren, Xanetaren eta bertze haurren loria! Jan ahala jan... ari ziren, zati eder bat esku bakotxean, pozi alimalea ahoan. Mahai inguruan, paper xuri batzu, mokanes garbi xuri batzu ere pulliki pulliki xabaldu ziren. Bazkaltiarak orhoit ziren beren etxeetan utzi haurttikiez eta... handiez ere orobat; eta Oihanaldeko orhoitzapena bazeramaten pastiz ederretik.

Kafe beltz beroaren eta pattantun garratxaren aintzinean pipa eta pipa ari ziren gizonak.

Berorik, urririk eta jarririk, han zuten edari goxoa. Eta kantuz oro berriz hasiak dira, egundaino bezala:

Uso xuria, errazu,
Nora joaiten zira zu?
Espainiako bortuak oro
Elhurrez betheak ditutzu...
Gaurko zure ostatu
Gure etxean baduzu,
Gure etxean baduzu!...

—Hots, Mañifikateko bederen behar diaguk elizzarat, Jon Doni Petri egunean. Mus partida bat beraz berehala, gu, aita-semeak, aitatxi-osaben kontra. Bazaiztea?... Marie, kenatzu puska hauk mahain gainetik, eta kartak hunarat, berehala!

Eta musean hari ziren, Thomas eta Piarres alde batetik, aitatxi eta osoba bertzetik. Haurrak jauzteka atheratu ziren kanporat, aitatxi-amatxiek eman sosekin jostatu beharrez, sos hek eltze-itsu gorrietan eman baino lehen. Bazkaltiar emaztekiak jarri ziren aldiz supazterrean.

Bezperak ondoan, mundua bildu zen errabotearen inguruan. Leoniz eta Puxant ari ziren Dongaitz bi anaien kontra. Partida bat ezin gehiago ederra. Behaxtegi eta bertzetik

han ziren, bethi bezala beren urruñar pilotarien alde diruz hanpaturik ethorriak. Diru gehiagorekin oraino itzuli behar ziren etxerat, ezen bost kintzez joan zuten dongaitztiarrek...

Partida bururatu orduko, harhesiaren gainean xutik, bi gizon eman ziren kantu errepiketan: Ganix eta Matxin persuka. Eta, berehala jendea trumilka bildu zitzaioten aldera, loria bat begietan.

Jaun merak hitz bat gora gora erranik, kapelua eskuan, boz goxo batean, jadanik hasia zen Ganix:

Jaunak, hean guziak gure aditzera,
Eskualdunak koblaka hemen entzutera...
Jaun Merak hola nahiz, noa erraitera
Arnoa baino hobe nola zautan Ura.

Esku zarta zonbeit aditu ziren, Ganixen goresteko, eta Ganix, beltxaran bere ile eta muztatxen azpian, handi handia itzuli zen Matxinen aldera.

Ttiki ttikia, ile luxe eta legun batzuekin, hirri maite bat ezpain xokoan, hirri maltzur bat begietan, kapelua bere eskuarekin murdukatzen zuela harek ere, zalu zalua —zaluegi behar bada— tik eta tak lothua zen Matxin Ganixen urari.

Badut uste gaur Ganix ai den jostetaka,
Arnoa baino hobe einez ur-barrika;
Hameka aldiz Ganix Matxinek badauka
Senperen ikusirik arnoan ithoka.

Hango hirriak orduan, eta esku zartak; Matxinek bere persua akabatu ere gabe, halako zerbeit bazuten asmatuik han zirenek orok. Eta beha zauden bakarrik, nola koblariak bururatuko zuen eta zer tankakoarekin, guziek buruan birilkatzen zuten gogoeta. Begiak ñir ñir atseginez argituak, azken azken liztafin sista igurikatzen zuten, laugarren phondu bakotxean. Eta Ganix eta Matxin zinez hazkar ziren hortan, Ganixek hobekixago zeramala solasa, gehixago ere bazakielakotz behar bada; bainan edo zein sail har zezala, gainean berehala zuen Matxin, bere asmu xorrotxarekin. Biba Ganix, biba Matxin! Eta zinez, pilota partida batean bezala ez bazen, bertze hainbertze bederen loriatua zagon hango jendea.

GANIXEK

Baditake arnoa dautazun ikusi,
Jaunak egin gauzarik ez baitzaut itsusi;
Bainan gauza bat, Matxin, zuk behar onhetsi:
Bathaioko uretan ginela ikuzi.

MATXINEK

Bathaioan, hala ela, ura baliatu,
Baliatzen oraino, Jaunak nahi baitu...
Bainan, Gorphutz Sainduan, hark ura baztertu,
Eta katitz barnerat arnoa hedatu.

GANIXEK

Jainko horrek munduan lurak egin diiu,
Ibar zelaia ere non nahi moldatu,
Ahutaraka aldiz mendiak altxatu...
Hiru aldiz gehiago urak tuo largatu.

MATXINEK

Ur sobera edanik, uhalde handian,
Itho ziren jendeak mundu zabalean;
Noe zen bakarrikan salbatu untzian...
Aihena landatzeko bere mahastian.

GANIXEK

Oxala behin ere ezpalu landatu!
Lehen lehen aldian, bera zen mozkortu;
Bere haurretarik bat aitaz zen trufatu,
Aita harek baitzuen han madarikatu.

MATXINEK

Emagun soberaxko'ta jakin gabea,
Noek edan zuela egarri batean;
Bainan, negurriz norbeit jokatzen denean,
Deus hoberik othe da lur hunen gainea?

GANIXEK

Arnoarekin ez da saldarik moldatzen,
Ez eta boketarik sekulan xuritzen;
Arnoarekin ez eta errota ibiltzen,
Ez eta portuetan untzirikan sartzen.

MATXINEK

Saldaren ondotikan ura edanazu...
Indar guttiren jabe izanen zira zu,
Boketatik sekulan eginen ez duzu,
Untziak portuetan galduren ditutzu.

GANIXEK

Arno higuin hortarik gizonen-hiltzeak,
Erreka zola jorik, etxeen galtzeak,
Aharra gaixtoenak, galbide guziak,
Emazte-haur gaixoen nigarrez-hartzeak.

MATXINEK

Arnoak egin mina arnoak sendatzen,
Zure emazte hoier nigarrak xukatzen...

Gaixto egarrituak du gizona hiltzen,
Gizon moxkorra aldiz kantaz duzu artzen.

GANIXEK

Ez duzu ukaturen, idorte handitan
Uria goxo dela gure alhorretan;
Urik gabe ez laite deusik mahastitan;
Ura galdegin beraz, zuhaurren onetan!

MATXINEK

Urik aski bederen zauku atheratzen,
Ilhabethe osoak ezpaitzau athertzen!
Uriak ez bezala iguzkiak ontzen...
Dena urhe arnoa baitauku ezartzen.

GANIXEK

Erranen duzu ere, arnoak eria
Laster pixkorturikan duela zarria...
Urean'ta arnoan, behar negurria...
Ez othe zautzu hori gauza ageria?

MATXINEK

Eskuak beraz, Ganix, gu biek elgarri!
Aithormen'man dezagun Jainko handiari;
Zuk ura arnoari, arnoa nik urari,
Eta biek elgarren osagarriari!...».

Orduan, orduan, esku zartak eta alde orotarik! Bi koblarieri beira gaxura edaten egonik, jendea, noizpeit, solas-burrunba batean barreiatu zen, aditu gauza pullitez gogoaraينو hartua. Sari bat ederra eskuratu zuten persulari maiteek, eta biak bazoazin orai, hango gizonen artean, edozein bi senpertarren idurikoak bilhakatuak.

* * *

Manesa ari zen, inguru inguru, bere xingola, xahar-berriak firurikatuz, zilhar eta urhe, mirail eta girgilleria. Zurezko zaldi, asto, elefant eta bertze alimale batzuen gainean, sorgin-karrosa batzuen barnean, hirri eta hirri, bira-bira iragaiten ari, ikusten ziren haur ttiki batzu, eta ere... haur handiago batzu, ahalketuak pitta bat, panpina josteta hartan mota guzietako paper txar batzu elgarri botaka hala deskantsatzeaz.

Piarresek begian aintzinean ez zezaken ikus josteta ergel hoi, eta zinez urrikari zituen, hiru egunez, goizeko oren bat arte, musika zirin-zirin hura karrikan pairatu behar zutenak.

Urrunago joanik, inguru bat egin zuen beraz plazan, baso bat hustu soldadogoako bidartar adixkide batekin, eta, gero bere lagunekin joan zen Dominixe Mundutegikoaren etxean afaltzera.

* * *

Astelehen goizean, berant-aire atzarri zen Piarres, iguzkia gora jada zelarik.

Thomas eta biak, joan ziren, eskualdun ohidura zaharrak nahi duen bezala, herriko hilentzat phesta-biharamunean emaiten den meza nausirat. Hil eta bizi, herri guziaren phesiak izaiten ziren Jon Doni Petriak, eta Oihanaldean sobera atxikiak ziren beren hilen, holako egun batean hek ahanzteko.

Mezatik lekora, jende gaitza bildu zen berriz ere plazara. Plaza hetsia zer den ez dakite oinon Senperen. Gizonak ziren oro kasik. Neskaxa gazte zonbeitez bertze emaztekirik ez zen han ageri, arras guti baizik; salda begidunaren moldatzeak sobera lan emaiten zioten beren etxeetan. Eta hirixka batzuetatik kanpo (sehiak han gehiago ere badituztelakotz), hola bide da Eskual-Herrian, goizarekin jokutzen diren partidetan. Urtheak ditu, ez dutela pilotariak beren soinekorik atxikitzerat eman andere gazte hetarik bati. Beren lagun bat aski zaiote lan horrentzat. Bertzerik diotenak... Kaskoinak dire eta ez eskualdunak.

Iguzki guti begietan Senpereko plaza ederrean, goizeko hamekak eta erdietan; bainan, itzal ere arras guti, pilotariak bederen. Izerdi uharretan ari ziren beraz Piarres eta haren bi lagun senpertarrak, hiru azkaindarren kontra, urhatsez urhats, kintzez kintze, elgarren bethekoak.

Piarresen bizkitartean hiruzpalau saka bihurri eginik, gaina hartzera zoazin senpertarrak, eta eraiki zen han oihu, eraiki zen trebes! Musikariak Uso xuriaren airea eman zuten hek ere, Piarresen gorestekoa. «Hogoitabortz eta hogoitabat, berrogoita bortzetara».

—Emak hor, Piarres! Hogoi libera hamarri!... Ehun libera hiruetan hogoiri!...

Bet-betan, Piarresen pilota bat besogainetik leherrarazi hain xuxen zueneko, hamabi orenen jo zuten, eta berehala gero, Anjelus ezti ezti bat jautsi zen ezkiladorretik. Eta han zirenek orok —eskualdunak ez ziren arrotz gaizki-ikasi batzuez bertze guziek— pilotariak lehen lehenik, kapelua khendurik, beren bethiko othoitz maitea egin zuten.

Eta berriz lothu ziren pilotari, errabia gorrian: Kondatzen ohi baita, lehenagoko denboretan, Senperen salda plazarat ekarrarazi zutela pilotariak, eta salda han jan zutela plazaren erdian, beldurtzeko zen, aldi hartan oraino, holako zerbeit ikusiren zela. Ezin trenkatuzko kintzeak bazoazin, luzatuz, luzatuz...

Bainan, ez; oren bat irian, Piarresen erhautsi zituen azkaindarrak eta hogoita hemeretziatan utzi berak berrogoita bortzgarren kintzea beretzen zuela.

Saldari buruz joan ziren orduan guziak, buruak aphaletan eta mina sabelean batzu, xoratuak bertzeak.

* * *

Arratsaldean eta biharamunean oraino, partida ederrak ikusi ziren errabotean; eta, ehunka plazarat, sekulan unhatu gabe, ethorriak, erakutsi zuten Senpereko eta auzo-herrietako eskualdunek, pilotariak gabeko phesta ederrenari begitarte guti eginen diotela bethi Eskual-herrietan.

Baionatik ethorri musikariak ari ziren orai, karrika buru batean, dantza-lothu kaskoin batzuetan jendea arrarazi beharrez. Gizon adinetako bihi bat ez zen ageri han gaindi. Eta, herriko neska-muthil bakhar batzuez kanpo, auzo-herrietarik eskapatu

xangarin zonbeitez landa, gazteek ere nahiago zuten plazari behako bat eman eta, harat hunat besoz beso itzuli bat edo bertze egin ondoan, elgarrekin ongi deskantsatu ostatu barnetan, ostatu aintzinean. Musean, kantu-errepiketan, bardin zozokeria maite batzuetan ari ziren, elgarri koplaka. Eta Aranaz-etik eta Santa-Grazi arterainoko kantu mota guziak entzuten ziren han, bizpahiru orenez.

Plazako itzuliaren egitean, berak nahi ere gabe, ohartu zen Piarres, Lizartzako Goañarik ez zela han gaindi nehun ageri. Eta berehala orhoiturik, gogoratu zitzaion, bere lagunekin, eskol-etxe girixtinoan zitekela. Herriko jende gisakoenak han ziren ezen, Harretxean, Zubietako Debrua zelako antzerki edo komedia pullit pullit baten ikusten, hirri gozorik eta esku-zarta onik entzuten baitzen barne hartarik atheratzen.

Eta hola nahiago zuen Piarresek, berak ere ez zakiela zertako...

Arratsean gero, astelehen hartan eta biharamunean hala hala, afal ondoan, bazen oraino zalaparta karrikan. Senpertar gazteak, eskualdun egiazko zirelaketz ere, hiritar dantza arinetan baino gehiago loriatzen ziren —beharrik— fandango eta fandangilloetan. Zangoak ez jakin non finka, emazteki batzu bezala nardaturik artzeko orde, nahiago zuten, erhiekin zartaka, oinak arin arin altxatuz, hatsak eta oro joan arte, tokiaren gainean, zume batzu bezen zalu itzulikan ari.

Arin, arin! Eta fandango bat, sekulako erhautsean bururatu orduko, bertze bati lotzen ziren, eta bardin hari berari: «Berriz, berriz!». Xuberotarrak dantzariak direla... bai eta alafetako senpertar belhaun-buru handiak ere!... Piarres ari zen, ari, mundu huntan egin ahala, goizean edo bezperan partida neke batean lehertua izan ez balitz bezala.

Bainan gazteez bertzerik ere bazabilan han jauzika. Gizon adineko zonbeit ari ziren hek ere, lehen izanik, orai ez ditekela... ahantzirik. Hetarik bat, gizon ederra, kara onekoa, ikustekoa zen egiazki, molde pullitenean bira eta bira gozoki. Eta erran zioten Piarresi, zonbeit urthe lehenago, dantza jauzietan, lapurtar, xuberotar, bidarraitar, xibandiar eta bertze egiazko dantza eskualdunetan behar zela ikusi xuberotar guarda ondoa... «Ala Jin...! bai!».

Eta dolu zuen Piarresen, eskualdun dantza maite hek zeren ez ziren gehiago ikusten Senperen, Xuberoko eta Garaziko herrietan oraino bezala, musikariek aire hek ez jakinez, edo gazte senpertarrek hek ez ikasirik.

* * *

Arratsean, ongi berantu ere gabe, Oihanaldean Piarres sartu zelarik, aita atxeman zuen, aitatxi osabeekin solasean ari. Eta, ohartu zen muthil gaztea, karrikako alegrantziaz bertzerik bazela han sukalde hartan.

«Hor zaitugu, Piarres? Ongi egin duzu. Eta goiz aldetat ethortzea baino pullitago da zuretzat, tenorez gaur etxeratu baitzira...

»Gauazko phestak ez dira bethi ikusi Senperen, eta ene haurrean, ez zen holakorik aiphu. Eta hala hobe zen. Bazterzabalak ditu gure herriak; eta, asko etxerat-itzultze, urrun urruneko etxeetarat bederen, ilhunbean, bitanazka, daukat direla arimentzat galbide segurrak. Hala ez duzu ikusiko ez Marie orai, ez geroan —agian— gure Frantxa eta Xaneta».

Begitartean zain bat bakarrik mogitu era gabe, Thomasek begietarat behatu zion orduan Piarresi, eta gero hau erran:

«Badut uste, Lizartzan ere, Oihanaldeko bizi-modu berak dituzten...

»Hots! Goazen oherat! Uli beltz bat bezala, gogorat gaur-guzian heldu zaut, ostatuan, arratsalde huntan aditu solasa: baizik eta kazeta egunkariak mintzo direla, han urrun, iguzkialdean, gerlabide zerbeit eraikirik balitekela...

»...Balinba holakorik ez ahal dugu gainea!...».

Eta, bertze aldietan baino maitetasun gehiagorekin behatu zion aitak semea; eta gero, zizelu xokoan ikare batean xutitu zen aita hura, Piarres bere ganbaralat zoala ikustearekin:

—Jainkoak dautzula gau on, Piarres!

Eta ilhundura bat jin zitzaion muthil gazteari bihotzera, zeren, ordu arte, bethi, harek zion erran aitari:

—Jainkoak dautzuta gau on, aita!

XVI

Gerla! Gerla!

Biharamunean oraino, Piarresetik ez zezaken bere gogotik aldara, bezpera arratsean aitak egin zion behatze samurra. Gerla? Gerla, iguzki aldean zeren bethi bazituzten beren arteko eztabadak? Eztabada horiek zer zitzazkoten frantseseri, Frantzian eskualduneri, eta Eskual-Herrian senpertarrerri? Beren arteko makurrak beren artean xuxent zitzatela, eta deskantsuan utz deskantsuan bizi nahi zutenak!...

Eta Piarres, bere grinak lan zerbeiten gainera hustu beharrez, kopeta zimur athera zen Oihanaldeetik, haizkora bat eskuan.

Main xuxen, inthari gora, bere makilaren gainean plegaturik heldu, agertu zen Azkenbordako Maria zaharra. Maiz aski entzuna zion Piarresetik: «Oilaskoz ase, ala arthoz ase, ase zela bethi... ase». Bainan, Phesta biharamun hartan, arthoaz bertzerik igurikatzen zuen, beroaren bero, hala izerditan Oihanaldeko kaskorat hupatzeko. Ez bide zen burutik maingu gure Maria.

Hainbertze gogoeta ilhunuen artetik, hirria jali zitzaion beraz berehala Piarresi, erdi-burlan oihuka hasi baitzitzaion atso zaharrari: «Eup! Maria? Oihanaldeko kaskoaren aldi dugu holetan. Ontsa, ontsa. Ortzirale sainduz baino usain hobe usnatua dukezu hemen gaindi, Eliza-Phesta biharamunean... Eta, zer berri da behere hortan? Zer diote kazeta egunkari horiek irakurtzen dituzten aizinatuek?

—Nik ez zakiat, Piarres, jaun horiek zer dioten edo zer irakurtzen duten egunkarietan. Bainan, kazetaz, bertzerik irakurturik badiat nik ene bizian, eta lur huntako kazeta guziek erakasten ez dituzten gauzak bazazkiak aspalditik, hi sortu baino lehen ikasirik. Nahi duk jakin Maria zaharrak zer dion? Goxo goxorik deus ez... ilhargiaren... ingurua dena odol duk egun hartan. Odola, odola! Espainiako errege zena hil izan zelarik orai hogoita hamar bat urthe, hola hola gorritu zuan ilhargia eta odolztatu. Orain ere, errege-hiltze eta gerla, holako zerbeit ikusi behar diagu...

—Bakea emazu, emaztekiak!...

—Ez bakea, ez, Piarres, bainan bai gerla... Eta gero, bazakiat zer diotan. Zumabian ikusiak ditiat, barda oraino azkenik, sekulako bultoa... Argi handi batzu hala hala. Ah!.. Piarres, Piarres, ez zakiat, bainan badiat uste hire meza hura ez dugun bulta batez oraino ikusiko...».

Eta, hinkili hankala, mottoa daldaratuz, bere buruarekin gora gora erasiaka, urrundu zen Maria...

—Atso tzarra eta ez bertzea!... Horiek solasak erraiteko! Bihotz-altxagarriak egiazki!...

Eta saingaka, hulubiaka Xuriko Oihanaldean ari zelarik Maria zaharrak edo bezperako ilhargi gorriari, Piarres, bere haizkora handia zangoetan, soldado-gudulari bat iduri zuela jadanik, xut xuta gelditua zagon hantxet, ipular-buruan, keeta handiaren aldean.

Ez zen bada buru ahul eta tutta hetarik. Sinhesten dute egiak bazitzaizkon aski, bertzerik nola-nahizka iretste. Bainan, futxo, tenore hartan, gerlarik baizen ez aiphu bazter orotan!...

* * *

Bizpahirur aste iragan ziren holaxet. Ogiak oro ederki sartu zituzten herrian. Ahapetik, aphal aphala oraino, eta holako beldur batekin bezala, bainan gerlaz bertze solasik ez zuten beraz aitak, Maria zaharrak, kazeta guziek! Hainbertzenarekin, berria hedatu zen, Otrixiako jaun handi bat, errege seme bat hil zutela han nonbeit, Zerbian!... Bainan, zer zoakoten hortarik oraino Frantziari, Eskual-Herriari?

Eta bizkitartean, bethiko Alemania higuina hor balitz, kataska horien gibelean, guzien akulatzaile? Joan behartzen balin bazitzaion? Herritik urundu behar balin bazuen harek ere, eta gerlara joaiteko, amets bati bezala ordu arte, urrundik eta airera baizik behatu nahi ez zion gerlara? Gerlak izan zitezken beraz gure mendean oraino? Gizonak joan zitezken gizonen hiltzera, ihiztariak ihiziaren garbitzera bezala? Asma ere zitekela gehiago holakorik!

Eta, hala hala, gerlak izan ziren lehenago, bethitik eta bethi... Berek nahi ala ez, gainean dituzten gaitzak oro ez askiz, gizona lotzen bethi gizonari, otsoa otsoari, diotenaz, lotzen ez zaiolarik!...

Egun batez, Oihanaldeko kaskotik beha zagon beraz Piarres, herri maitea han zuela, oinetan.

Elizari hurbil, doi doia xutik egoki, ikusten zuen jauregi zaharra, alderdi orotarik zilokatua eta xirak ehortzia, kolperik baizen ez baitzuen erakustekorik, eta kolpe hek, orduan, nahiago baitzituen kukuturik.

Han ere gudulariak iragan lehenagoko aitoren-semeen denboretan, eta berrikiago, Senpereko sabel-gorrien eta Urtubiako sabelxurien egunetan!

Duela ehun urthe, Wellington han iragana, Senperen, bere angles, español eta portugeseekin, Soult marexalaren ondotik. Amotzeko zubian, Tontolokobordako mazeletan, Santa Barbarako muthurrean, hurbilago oraino Aantzenbordako kurutzearen ondoan, etsaiarekin borrokan arizan frantsesak! Serresen, Fausuko oihanean, Helbarrongo Olha inguruan, hortxet Muxkoenbordako patarrean, pentotak oraino izaki, orduko gudulariek altxatuak! Arbona, Arrangoitze, Basusarri, Milafranga, Mugerre, Baionako inguruak, oro kanoi-pezek irauli orduan eta uzkaile! Eta han, urrun, Ursuiko mendiaren hegaletan, Harispe jeneral eskualduna, Heletako kaskoetan, borrokan iragan Donapaleurat buruz, etsaiaren aintzinean ihesi...

Holakorik bederen ez da aldi huntan ikusiko?... Kanore du!... Eta bertzalde, gerlarik nork nahi zuen Frantzian? Nondik behar zen beraz gerlarik?

Piarresi halere ez zitzaion bihotza osoki sosegatzen, eta, bere buruarekin erasiaka urundu zen handik. Ogi-jotzea zuten larunbatean, eta maxinarentzat egur xehatzea zuen muthil gazteak. Haizkora-phikoa xuxen zeraman Piarresen goiz hartan! Egur idor hek bezala, puskatu ahal izan balitu bederen otrixianoak oro!...

* * *

Hiru edo lau egun iragan ziren berriz oraino. Kominione handia behar zen, lehenbiziko igandean berean, eta, herriko elizan, Othazehe jaun misionesta ari zen, Senpereko ehun bat nexka eta muthiko phesta hunkigarri hartarat moldatu beharrez. Lizartzako haur bat Erretreta hari jarraitzen ere baitzen, harek ekarri zuen berria, erretor bikarioak ilhun eta kexu ikusten zirela, eta haurreri maiz galdatzen ziotela othoitz bat egin zezaten frantses herriarentzat!...

Ortzirale arratsean gero, berantean, indarka eta lauzkatuz, Amotzetik ekarri zen

ogi-jotzeko maxina handia, eta Oihanaldean, destenorean oraino, ari ziren biharamuneko puska guzien moldatzen. Gaxuxak, Mariek, ez zuten nahi deus erraitekorik izan zezaten Oihanaldeko langileek. Bainan, bertze urtheetan halako loriarekin egiten zen lanari, ixil ixila kasik lothu ziren, eta gogoa han nunbeit urrun.

Thomasek, Piarresak, to tuntik ezin egin zuten, eta, larunbat goizean, ohearen gainean jo harat eta hunarat luzaz egon ondoan, oilarra kantuz hasi orduko, jaikiak ziren biak.

Xixtu luze luze bat entzunik, langileak heldu ziren bizkitartean. Bainan, maxinan zerbeit makhur berehala gerthaturik, goizaren erditsutan bakarrik lothu ziren lanari. Beharrik ez zuten ere sobera ernatzerik bigarren ogi-jotzerik ez izanez egun hartan. Ahamen bat jan zuten beraz orok, denbora iragan, aztaparren xorroxteko bezala.

Ezti ezti lehenik, eta gero burrunbaka, hasi zen suzko maxina, eta berehala, Oihanaldean altxatu zen laborariak hain maite duen bethiko haro gozoa. Etxe ondoan erleak harrot ziren eta laster gero sosegatu, berena ere baino maiteagoko lana Oihanaldeko kofoin handian ezaguturik. Xixtuka inñarak hasi ziren eta alderdi guzietarat inguruka.

Maxinaren berotzaile, athorra mahunketan, Xoilo ari zen, Afrikako moro beltz bat iduri zuela jadanik, maxinaren xuxentzen zikindua. Eta, lehenago Phesta-Berrietan atabal jotzen bezen deskantsuan ari zen, Xixtuk haren aldean pikatzen ziozkan egurrak labe gorrian sar eta sar, uhal bat hementxet xuxen, olio xorta bat hantxet eman.

Selaurutik, tranpatik artiki maltxo-ezpaleri estekaren pikatzen, erne erne ari zen aldiz Felix, manexek harrotzen zituela gero hek, berehala.

Matxin eta Xabatene, apheza aldarean bezen xut, ezpal heien sartzen ari ziren, begiak argi, eskuak zalhu.

Bere sardi-furtxa eskuan, debru bat iduri zuen Gaxienek lasto aldaratzen.

Ganix, Pierre, Loran, gazteenak, hirriz eta lasterka lehenik, maltsokiago gero, lastoaren garreiuari ari ziren; eta lehenbiziko meta-lastoa bazoan altxatuz, altxatuz, erlekofoin handi bat bezala. Meta lasto haren gainean, Martin gaizoa xutik hantxet zagon, Piarresak ederkixko laguntzen zuela, bizkar-sorbalda pullitenak lastoari eman beharrez.

Tupin zahar bat gero kasko-kaskoan kapelutzat, eta horra meta-lasto jauna xutik, lagun baten edo bien beha egoki, oro pidaia bati lotzeko, jendeak oro lokhartu zitezkenen...

Eta maxinaren sahetsean, huna zakueta-emaileak, Thomas eta bertzeak, lerro lerro zorroak ogi ederraz bethetzen dituztela. Lanarekin borroka, joantxe bezala zaizko Thomas gaizoari bere grina pisuenak. Noizetik noizera halere behako bat samurra emaiten dio, han, meta-lasto kaskoan ikusten duen Piarres maiteari, eta halako intzire bat jalitzen zaio orduan bulhar barne barnetik.

Bizkitartean, iguzkia badoa gora, bere bidean. Aboztuaren bia da, uda bethea. Bero ari du hazkarki eta erhauts bat eraikia da ogi-jotzetik, zintzurak orori tapatzen baitiozkate. Meta-lastoaren gainerat iganik, Ganixek hedatzen du xahako handi bat, eta begitarte badu haren etxe-arnoak. Thomas harat hunat badabil, bere pitzer-arnoa eskuan. Kolpe bat ona emaiten diote, behin, bietan:

—To, muthikoa, edateko aro duk!

Eta, ukhondoaz doi doia kopeta xukatu ondoan, edaten dute langileek; basotik lurrerat ixurtzen dute gero baso hartako azken xorta, eta badoazi berriz lanerat, berriz iguzkirat, berriz erhautserat.

Oren bat eta erdiak irian, xixtu luze bat berriz ere, eta lanetik gelditu dira oro.

Eta, orain, han dagozi, deskantsuan, ongi beretua duten otruntzaren egiten ari. Lan borthitzak janari nasaia galdatzen, janariarekin... edari ona ere bai. Oihanaldean, bethitik, begitarte badute ogi-jotzaileek, eta deusen eskasik ez dute beraz aldi huntako langileek. Bainan, solas guti gaur, heien artean, eta hirri gutiago oraino, jan eta edan ari dira oro, bainan ixilik edo kasik.

Bizkitartean, zigarroak erretzean, zalutu pitta bat ziren mihiak, eta bakotxak zakien hura edo aditu zuen hura erran zioten bertzeeri.

Halaxet jakin zen, aintzineko egunetan, Lurden egin zen biltzar handian, oihuka oihuka othoitzez arizan zitzaizkola jendeak harpeko Ama Onari, gerla-mehatxuak barreia zitzan frantses Herritik urrun; eta Ybarnegaray deputatu gazteak, bere lagun eskualdunak Arrosarioko Ama-Birjinaren ondorat oro bildurik, erran ziotela goraki, zortzi egun gabe gerla bat izigarria eraikitzaera zoala guzientzat, Jainko ona urrikaltzen ez balin bazitzaieten.

Ixil ixila gelditu ziren orduan Oihanaldeko langileak oro. Hamar bat muthil gazte baziren han, lehen lehenetarik joan behar zirenak, Frantziak hel egiten balin bazioten sekulan! Eta, begiak xorrotx hantxet zauden, urrun, harat norapeit begira, deusik ikusten ez zutela. Ikararik ez zuten, ez eta ere heriotzearen beldurrik, bainan bai halako ilhundura bat bihotzean, nor bedera bere etxe-xokoaz orhoitu eta...

* * *

Xixtuka berriz maxina abiatu zelarik bizkitartean, ixil ixila itzuli ziren oro, zoin bere ogi-jotzeko tokira. Bainan, goizean ere baino kar gutiagorekin lotuak ziren lanari; eta, Xoilok bere orratzari ez bethi aski hurbildanik behaturik, gogoia galdurik ari zelakotz hura ere noizetik noizera, gelditzerat egiten zuen maxinak. Intzire-dolamen bat aditzen zen orduan; lotarik iratzartzen bezala zen su-berotzailea. Xixtuk xehatu egurrak, ongi jakin ere gabe zer ari zen, sartzen ziozkan labeari; eta, abre bat iduri, berea berriz izanik, arroaz emaiten zen lehenagoko behien orde lan gogorrean ari zen tresna gorritua.

Arratsaldea bazoan holaxet. Iguzkia Helbarrongo kaskoeri hurbila aphaltzen ari zen, gorri gorria, aintzinagoko gau guziez ilhargia bezala. Sei orenek jo zuten herrian, eta azken maltxoia eskuan jada hartua zuen Xabatenek, noiz eta ere, betbetan, jendeak, etxeak, kanpoak oro harrotzen zituela, harrabots bat altxatu baitzen, han, herrian, zinez ikaragarria, lazta bat emaiten ziotela berehala orori...

Dan, dan, dan, eliza-dorretik, ilhun ilhuna, hasperen bat erranen baitzen egiazki, ezkila nigarrez ari zen bere senpertar maiteeri, eta mixteriozko haro bat eraiki zen berehala zoko guzietarik...

Dan, dan, dan! Dan, dan, dan!... Su-deia ari zen bethi'ta ilhunago. Sua ba, eta su ikaragarria, eta ez gehiago Zirikolatzen edo Garramunen, bainan bai Euskal-Herrian, Frantzian, kasik lur guzian!...

Oihanaldeko gizonak, zuri zuria egin ziren; elgarri beira eman ziren, hitz bat ere gabe... Nigar bat jali zitzaieten zenbeiti. Beren meta-lastoaren gainean, Martinek, Piarresek kurutzearen seinale bat egin zuten ithoka.

Atalasean, xuri xuria hek ere, agertu ziren Gaxuxa, Marie, Goaña Lizartzakoa...

Hainbertzenarekin, atabala karrikan ari zen, zinez izigarri tenore hartan. «Plan, ran, plan! Plan, ran, plan!»...

Zurubietarik jaustera zoan Piarres. Atabalaren ukaldi bakotxa bihotzean sartzen zitzaion, erdi erdiraino. Behatu zioten bere aitari, bere amari... Eta ama hura, bi eskuak

begien gainean emanik, nigarrez ari ikusi zuen semeak. Marie, Goaña, ama gaixoaren aldean xutik han zagozin. Beren amodioa baizik ez ziozoketen eman Gaxuxari, eta guzia hura emaiten zioten, hari besarka lothuak maiteki...

Nigar batean gelditua zen maxina, nehork begiratzen ere ez ziola gehiago.

Begiak zorrotz heldu zen orai Thomas bere langileetara:

«Hots, muthikoak! Oro baino gorago duk Jainkoa. Lagunduko gaitik!...

»Gorphutzak behar dik berea; ahamen bat iretsiko bederen duzue, eta, gero joanen zaizte, zoin bere alde... Engoitik, zuen etxe horietan ere zuen beharretan dituk...».

Eta gero, itzuli zen aita bere seme maiteari buruz, eta, ezti ezti, halako ikare bat mintzoan, erran zion:

«Zoazi, Piarres, eta jakinazu sobera baizik ez dakigun berri madarikatua. Eta, harat ernatzerik balin baduzu ez ahantz jaun erretoraren etxean iragaitea dukezula lehenik...».

Hitz bat erran gabe, xoko batean bere soinekoa harturik, athorra-lephoa hetsi zuen doi doia Piarresek, eta herrirat buruz urrundu zen gero berehala, xorrotx xorrotxa begiak harek ere...

Eta, oren laurden bat gabe, ithoka zerbeit janik, alderdi guzietarat ohildu ziren Oihanaldeko langileak oro. Herrian, ezkila, atabala bethi ari ziren: bihotza ereman nahi zioten guzieri.

* * *

Oren bat eta erdiren buruan, Piarres Oihanalderat heltzen eta, Lulaiko patarrari behera jausten sumatu zuen Letxero Arrangoitzkoa, bere turrutarekin halako aire hits bat emaiten ari: La Générale!... Etsaia ja hurbil hurbila emaiten ohi den airea!...

Eta, goxo izan zitzaion, orduan berean, kañixkaz zangoetarat ethorri baizitzaion Xuriko, bere xakur maitea, fereka bat eman zion, eta, etxean ikusi eta aditu guzietarik zerbeit jakin izan balu bezala harek ere, sekulako erasian ari zitzaion alimale gaixoa.

Sukalde handian sartzearekin, nahiz bero ari zuen oraino kanpoan, oro elgarren ondoan supazterrean jarriak kausitu zituen. Aitaren aldean jarri zen bera ere, nahiz ongi nahiagoko zuen amarenganat hurbildu. Ez zen menturatu, ama maite hari sobera bihotzmin ez emaiteko.

Haren belhaunetarat ethorri ziren berehala, begiak nigarrez hanturik, Gantxume, Frantxa, Xaneta, Ganix, Marie ez ziren beren hartarik mogitu. Itxindu bat eskuan, suaren harrotzen ari ziren biak. Othoitzean ahapetik, ezpainak doi doia higituz ari zen aldiz Gaxuxa, begien gainean esku bat, bertzea arrosario higitu batzuek inguratzen ziotela.

Bulta bat ixil ixila egon ondoan, aita ezti ezti behaturik, hasi zen beraz Piarres, eta erran zuen nola, hura herrirat heltzearekin, jandarmak paper handi batzuen hedatzen ari ziren, han hemenka, paretetan. Paper xuri haren kaskoan, bi bandera baziren kurutzean emanak, eta bandera heien azpian larri larri hauk:

«Ordre de Mobilisation Générale».

Jandarmak, aphezak, herriko gizonetarik zonbeit han ziren, erran baitzioten hek, Zerbiaren alde emaiteko, Rusiak bere soldadoak bilduak zituela. Alemaniak ere bereak egin zituen orduan berehala. Eta, orai, Frantziaren aldi zen, Rusiako bere adixkideen hola sustatzeko, bi erresumen arteko alientziak nahi zuen bezala.

Ez zen beraz gerla ere, oraino bederen; mobilisazionea bakarrik... Frantzia, Rusia ari ziren gerla hura baitezpada urrundu edo barreiatu beharrez.

Bainan, Thomasek burua daldaraturik, aithortu zuen Piarresek beldur handia zuela harek ere, Alemania horien oronen giblean zitekela eta Alemaniak gerla nahi zuela baitezpada...

Intzire bat jali zen orduan supazterretik, Gaxuxa, Ganix, Marie zauden xokoetarik. Haurrak nigarrez ari ziren Piarresen aldean...

«Hots, haurrak, urrikal zaizte bada Piarresez! Gaurko afariari ez baitiogu nehork min handirik eginen, belhauniko guziak, eta arratseko othoitz bat ona erran dezagun berehala!...».

Eta arrats guzietako Jainkoarekilako solasak hedatu ziren sukalde handi guzira, bertze aldietan baino ahalago bakarrik, eta nigar bat edo bertze jalitzen zitzaioleta orori noizetik eta noizera.

Othoitz maiteak eztitu zioten pitta bat bihotzmin pisua. Haurrak, Ganix bera ere, — ez errexki— bainan oherat joan ziren halarikan ere, aitari hitzemanarazirik goizik atzarraraziko zituztela biharamunean, Piarres nehorat urrundu gabe.

Eta Piarresek baietz erran zioten harek ere, baietz segurki. Bakarrik, sekulan ez eta, aldean iragan zitzaizkolarik oherat joateko, alegia fereka bat emaiten, tinko-tinkoa hartu zituen besoetan, eta musu bat eman, ebaska bezala. Ez zioten berehalakoan bertzerik emanen!...

* * *

Haurrak lokhartuak ziren jada bulta hartan, eta bi gizonak xutik zauden bethi sukaldearen erdian. Gaxuxa, Marie, ixil ixila eman ziren berriz suaren ondoan, Oihanaldeko su-phizkia maite hartarik laguntza bat igurikatzen balute bezala ortino. Noiz othe berriz bilduak aurkituko ziren errota-harri handi haren inguruan?...

Thomasek orduan ahapetik, bere mintzoaren entzuteak berak izitzen balu bezala, galdatu zion Piarresi:

—Eta, jaun erretora ikusi duzu, haurra?

—Ba, aita. Eta bihotza ongi hazkartu ere dauku harenganat bilduak ginen gazte guzieri. Ixil ixila, dirue zerbeit ere uste dut eman dioten gutarik zonbeiti, orori aldiz harrarazi dauku, abituak galtzen ere baginituen, medaila bedera. Huna nerea. Ongi hitzimana dauku ez ginituela bere gazteak ahantziko, eta othoitz onik eginen zuela aldarean guretako... Guziak kofesatu gaitu gero, eta bihar goizean, lau oren beretan emanera dauku komuniatzera.

—Ongi, haurra. Bainan, berehala urrundu behar zauzku beraz?

—Bihar goizean berean, aita. Gogoz ongi dakitan mobilisazioneko manuak bigarren egunean galdatzen nau Donibaneke garalat, geldi-tokirat, zazpi orenetako, handik gero berehala Baionarat jotzeko, berrogoita bederatzigarren nere lehenagoko erreximendurat. Ikusiko duzu zuhaurek, aita...

Eta gelatik berehala ekarri zuen Piarresek bere soldadogoako liburu horia. Liburu hartan orri gorri gorri bat erakutsi zion orduan, eta handik irakurtu bigarren egunean berean nola behar zen etxetik urrundu.

Zuri zuria egin zen Thomas gaizoa, eta bere jartokitik xutitu aldiz Gaxuxa...

Hain xuxen, norbeitek jo zuen athean, eta gizon handi bat sartu zen sukaldean:

—Gau on!

—Bai zuri ere...

Eta, berek ongi jakin gabe zertako, etsai bat iduritu zitzaioten tenore hartan hala ethortzen zitzaioten arrotza. Beltzuri bat egin zion Thomasek.

—Barkatu, hola orai heldu banitzauzue. Bainan, ethortzekotz, orai ethorri behar nuen.

—Zer nahi zinduen, jauna, gureganik?

—Huna. Agustin beratarra naiz. Atzoz geroz badakigu Espainian...

—Aleman tzar horietarik beraz!...

—Ez dut ukatuko. Arratsalde erditan abiatua naiz etxetik, eta bidean heldu nintzalarik, aditu ditut hemengo zuen ezkilak, atabalen tarrapatak. Senperen bezala ari ziren Saran, Urruñan, Hendaian, eta dudarik ez da, Frantzia guzian... Ez nauzue behar bada ni ezagutzen. Bainan, nik ezagutzen dut Piarres. Hameka aldiz ikusi dut partida nekeen irabazten. Tokatzen zaizkit, Piarres... Gerla izigarri bat hastera doa. Galbideak oro utzirik, nahi duzu nerekilan ethorri?... Zu bezalako gizon gaztearentzat bada toki gure etxean! Berrehun pezeta zureak dituzketzu, hilabete guziez...

Beren xokoan xutitu ziren Gaxuxa, Marie. Ama, aita, arreba han zituen muthil gazteak, etsaiari betan ihardokitzeko haren aldean emanak...

Bainan, ez zuen Piarresek laguntza beharrik. Ezpainak ikaratu zitzaizkon pixka bat, bi ukamiliak ere bildu beren baitharik... Oihurik gabe bizkitartean, bainan idor idorra ihardetsi zion:

—Zertarat ethorria zira gaur, deus nehork galdatu gabe? Ala laido egiten zaioten gizonetarik batentzat daukazu Piarres Oihanaldekoa?... Ez, jauna, ez! Eskualdun lurra ez dut nahi galdu...

—Eskualdun lurra badukezu oraino gurekin...

—Ez ordean gurea.

—Zurea ere badukezu, zonbeit urthe goiti beheiti, amiztia bati esker.

—Hobenduna da amiztiaz behartzen. Amiztiarik gabe nahi ditut —ahal bezenbat berant— ene aita-ama gaixoak lagundu Oihanaldeko eliz-hilherrietarat, eta amiztiarik gabe, egun batez, nahi naiz etzan nihaurek zaindu eliz-hilherri horietan... Anhartean, zuhaurekin eta zuhaurentzat atxikazu zure diru madarikatu guzia. Nere lagunen odolaz gorritua ikus niro bethi. Ez dut nahi!

—Berautzu ez othe zautzunez urrikituko, eta han nonbeiteko hilherri zonbeitetarat ez othe zarenez eroriko...

Sua begietan, eta bere ama-bihotz bihotzean asikia, beratarraren alderat itzulia zen Gaxuxa:

—Aski hola, gizon abrea, aita baten, ama baten bihotzminaz hoin guti axolatu gizon abrea!... Eta, zuk, Piarres, jakin zazu hila nahiago zaitugula zure aita eta zure amak, ezen ez eta bethikotz desohoratua!...

Nigar bat jali zitzaion orduan emazte gaixoari. Ama nigarrez ari zen, eta ama hura itzulia zen su-phizkiaren gaineko kurutzelika tikiari buruz:

—Gizon horrek erran duen izigarrikeria ez duzu onhetsiko, Jainko on eta maitea. Gure Piarres ekarriko daukuzu etxerat!...

Thomas, zuri zuria egina, itzuli zen bere lagun maitearenganat, samur samurra, bainan maiteki erraiten ziola:

—Barkatzen dautzut, Gaxuxa, zeren aintzindu zazkitan. Nere aldi orai...

Eta beratarrari atea erakutsi zion, erranez:

—Aski hola! Jin bidetik zoazkit eta zalukara, zuhurra balin baduzu...

Eta, Thomasek bere besoa hola hedatua oraino zaukalarik, hitz bat gabe, athera zen gizona eta gau ilhunean berehala suntsitu.

* * *

Hamek'orenek jo zuten, han, urrun, herriko elizan. Asaldatuak bulta bat egonik, jarri ziren berriz oro supazterrean.

Nigarrik ez zuten gehiago, bihotza gogortu bezala baitzitzaioten guzieri, halako gudu saminean. Bainan bihotz harek tanka onik egiten zioten bulharretan.

Bizkitartean, lerro lerro bazoazin orenak, eta gaua labur iduri zitzaioten guzieri. Nahi ala ez, puxka zerbeit behar zen moldatu Piarresentzat, jateko pitta bat ere bidekotzat.

Xutitu ziren beraz oro, eta ixil ixila harat hunat abiatu sukaldean, ganbaretan.

Hainbertzenarekin, jo zuten berriz ere athean. Kopeta zimurtu zitzaioten guzieri, bainan begiak arindu ere berehala. Sartzen ari, herabe herabea, ikusi zituzten Lizartzako andrea eta haren alaba Goaña. Jainkoak igorriak ziren tenore hartan, beratar higuinak egin laidoaren eztitzeko bezala. Eta, loria bat jin zitzaion berehala Piarresi bihotzera.

—Jainkoak dauzuela gau on!... Ez gaizki har, zuenganat hola atrebitu baigira. Gure gizonak berak igorri gaitu orai berean, erranez: Zoazte Oihanalderat, eta errozute adixkideak hetaz orhoituak daudela gau huntan. Errozue Piarresi hazkar eta gora atxik dezan bihotza, gu guzien amodioak begiraturen duela galbidetarik. Gure Joset ttikiak komunione handia du bihar, bainan ez da bihar phestarik izanen gure etxean; ez da sori. Oherat joana da erranez, bihar Jesus bihotzera jautsiko zaiolarik, ez duela ahantziren bere Piarres maitea....

Eta goxo izan zitzaizkoten solas hoik Oihanaldekoeri; hunkituak oro ziren, eta lañoki erakusterat eman zuten hala ere zirela.

Bideko pukak bilduxeak ziren, eta oro jarri ziren, azken aldi bat oraino, su-ondoan.

Eta luzaz, luzaz, solasean maiteki hantxet egon ziren, gogoan zuten ere baino bertute gehiago batek bertzeari erakutsi beharrez: «Laster bururatuko zen gerla madarikatua!... Gerlarik ez zen behar bada oraino batere izanen; edo han, Alemaniako mugan ziren soldadoak berak askiko ziren, Baionatik Piarres mogitu ere gabe!...». Jainkoak errexki barkatzen dituzke holako hinka txarretan erraiten ohi diren gezur maiteak eta haur elheak...

Hiru orenak!... Ikare batean, ametsetarik bezala atzarri ziren oro; xutitu zen Piarres eta bere ganbaralat joan.

Handik laster, berriz agertu zen sukalderat, igandetako eman, oinetako berri berri batzu zangoetan, soldado-gai zinez ederra... ederregia!

Amak orduan, eskuak ikaratzen zitzaizkola, athorra xuriari josi zion oihalezko sakela ttiki bat, eta sakela hartan lerro lerro eman hogoi-liberako urhe zonbeit.

Goaña ere hurbildu zen eta, begietara behatzen ziola, erran zion Piarresi:

—Amak onhesten daut Lurdeko Ama-Birjinaren medaila zilarrezko hau eman dezazudan. Onhartuko duzu eta bethi zurekin erabiliko, nere orhoitzapenetan. Zorion ekarriren dautzu...

Piarresek hartu zuen medaila, eta gorri gorria Goaña egiten zela, musu eman zion medaila hari, hogoi-liberako urheekin hura sakelan eman baino lehen.

Argi bat hartu zuen gero berekin, eta harrabotsik egin gabe batere, sartu zen haurrak lo zauden ganbaretan. Eskuaz argia kukutzen zuela, behatu zioten Ganixi,

Gantxumeri. Zimurdura bat bazuten biek kopetan, beren Piarresez gogo harturik lokhartuak zirelaketz. Musu bat eman zioten muthil gazteak. Ez zagoken eman gabe, sukaldean bere ustez azken aldikotz besarkatuak jada zituelarik...

Frantxa, Xaneta, elgarri besataraka lothuak, hirriz lotarik ari ziren aingerueri... Eta hek hala garbi ikustean, seguratu bezala zen Piarres, bizirik heienganat ekarriren zuela egun batez oraino Jainko maiteak, haur ttiki garbien adixkide bethi gelditua den Jesus maiteak... Zerbeit argiri oharturik bizkitartean, atzartzerat egin zuten haur gaixoe, eta ikaratu zen Piarres. Zalu zalua, musu eman zioten heieri ere beren ile pulliten gainea, eta ixil ixila atheratu zen ganbaratik...

Eta orai, urrundu behar zen, eta urrundu lehen bait lehen... Aita nahi izan zuen besarkatu, baina Thomasek erran zion berehala:

—Keetaraino segitu nahi zaitut, haurra.

Ama hartu zuen orduan bihotzari kontra: «Ikus arte, ama!». Eta nigar bat jali zitzaioten bieri...

—Ikus arte, Marie! Ongi arthaturen dituzu aita, ama, haur maite horiek! —eta bere bi besoen artean tinkatu zuen nexka gazte prestua...

Lizartzako andreari, Goñari eman zioten gero eskua. Eta, esku hura bere eskuetan harturik, ikare maite batean erran zion Goñak:

—Itzuliren zira, Piarres; itzuli behar duzu, Oihanaldekoengatik, Lizartzakoengatik. Gure aingeruek begiraturen zaituzte...

Eta, athearen ondoko ur-benedikatuarekin kurutzearen seinale handi bat eginik, aitarek ondolik, (sukalde maiteari, jende gaixo heieri azken aldikotz behatzerat ezin menturatz) Oihanaldek athera zen Piarres. Han urrun, Donianeko alde hartan, soldadoz betherikako tren bat sumatu zuten xixtuz joaki Baionarat buruz...

Ixil ixila bazoazin bi gizonak. Keetaren ondorat heldu izan zirelarik, gelditu zen Thomas:

—Ikus arte, Piarres. Jainkoak begira zaitzala! —eta, tinko tinkoa, aita-semeek elgar besarkatu zuten ilhunpean...

Bakarrak bazoan orai Piarres. Jauzteka, ondolik abiatu zitzaion Xuriko; baina Thomasek oihera hala eginik, intzireka, herrestaka itzuli zen xakur gaixoa, bere nausi gazteari gibelerat behatzen ziola guziengatik...

Bihurgune batean, azken bihurgunean, aldi bat oraino gelditu zen Piarres. Oihanaldea nahi zuen ikusi eta bere begien zolan hartu eta eraman harat, gerla-toki ilhunetarat.

Behatu zuen beraz, eta xuri xuria ilhargi ondarraren azpian, ikusi zuen bere etxe maitea. Keetaren ondoan, beltz beltza xutik, ikusi zuen ere bere aita...

Hasperen bat jali zitzaion, bat bakarrak; eta lasterrez bazoan orai, karrikako etxeen erdian, geriza bat iduri zitzaion elizarat, han haren beha zagon Jesus onarenganat...

Sukalde batean, Oihanaldeko kaskoan, emazte batzu nigarrez ari ziren...

Jean Barbier